LIGNINAREN ERALDAKETA BALIO ERANTSIKO PRODUKTUEN LORPENERAKO

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Amaia Morales Matías

2022ko Urtarrila

Ligninaren eraldaketa balio erantsiko produktuen lorpenerako

Amaia Morales Matías-ek aurkeztua

Euskal Herriko Unibertsitateak

Material Berriztagarrien Ingeniaritzako programan

Doktore Titulua lortzeko bete beharreko baldintzak betez

Tesi zuzendariak:

Jalel Labidi eta Patricia Gullón doktoreak

Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila

DONOSTIA – SAN SEBASTIÁN

2022

 *“Science is magic that works.”*

Kurt Vonnegut

Esker onak

Zaila egiten zait laborategia lehen aldiz zapaldu nuenetik 5 urte igaro direla pentsatzea. Egia esan, Master Amaierako Lana egiten hasi nintzenera arte doktoretza egitearen ideia ez zen nire buruan agertu. Astelehenetan lanerako gogo eta ilusioz jaikitze hutsak bide honen alde apustu egitea eragin zidan, eta orain, igoera nahiz jaitsiera, barre eta negar, momentu on eta ez horren onez beteriko urte hauen ostean, helmugara iritsi naiz. Horregatik, nire bizitzan hain garrantzitsua izan den etapa honetan nire alboan egondako guztiei eskerrak eman nahiko nizkieke.

En primer lugar, me gustaría agradecer a mi director, el Dr. Jalel Labidi, por haberme animado y haber confiado en mí al blindarme la oportunidad de realizar esta tesis. Quisiera agradecer también a la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por concederme esta oportunidad mediante su ayuda a la Formación de Personal Investigador.

En segundo lugar, agradecer a la Prof. Margit Schulze por haberme dado la oportunidad de unirme a su grupo de investigación en Bonn, aunque solo fuese por dos semanas. Igualmente, quisiera darle las gracias a la Prof. Ebru Toksoy, por aparecer en un momento clave de mi tesis y poder colaborar con su grupo de investigación para así poder ponerle el broche final a mi trabajo. Muchísimas gracias a la Dra. Merve Erginer y a la doctoranda Selay Tornaci por haber dedicado su tiempo a mis experimentos.

Quisiera agradecer a todos los compañeros del grupo BioRP por su ayuda y apoyo, y también a Loli, tanto por su apoyo tanto científico como moral durante estos años. Gracias también a compañeros de otros grupos como Joseba, Mireia e Iratxe, que han hecho que el día a día sea más llevadero.

Me gustaría agradecer a mis *Morenitos* por haber sido uno de mis pilares más importantes durante este tiempo, por haberme ayudado a construir la base de esta torre que, como buena arquitecta frustrada, estoy a punto de terminar. Gracias en especial a Julen por su apoyo en mis momentos de crisis científicas y

personales, por rescatar a esta *drama queen* de sus momentos de ahogo en un vaso de agua. Y gracias también a Fabio, que aunque nos costó caernos bien, hemos sido fieles compañeros de viaje y nos hemos apoyado mutuamente cuando más lo hemos necesitado. Porque al mal tiempo, buena cara, y a un mal día (martes normalmente), un buen café.

Me gustaría, como no, dar las gracias a mis queridísimos *Rebujitos*, que me acogieron con los brazos abiertos en este loco mundo y me han ayudado a crecer tanto personal como científicamente. Gracias a Fabio, Rut, Leyre, Izas, Xabi y Jonatan por todos los momentos de locuras, por las risas, por hacerme descubrir mi pasión por las *escape rooms*, por hacer de los congresos viajes inolvidables, por hacer que los *Skypotes* sean ya una nueva tradición y por mimarme tanto por ser la más jovencita (aunque ya no tanto, pero lo seguiré siendo siempre). Que aunque nos vayamos desperdigando, siempre es un placer volver a juntarnos y seguir haciendo maldades y locuras. Nada hubiera sido lo mismo sin vosotros.

Quisiera también dar las gracias a mi cuadrilla, a esas personas que *finde* tras *finde*, han estado ahí escuchando mis aventuras de las no-estancias, las que han intentado entender qué hago en mi día a día, para qué sirven esos *bichos* que se hinchan, etc. Sé que no os lo digo mucho, pero gracias de corazón.

Gracias también a mis compañeros de *Amets Bide*, que han hecho de cada ensayo una vía de escape. Eskerrik asko en especial a Enara y a Beñat por aguantarme tanto, y también por aportar aire fresco de creatividad a esta tesis.

Me gustaría agradecer a mis padres por su apoyo incondicional, por escucharme y aconsejarme, por dejarme elegir mi camino en todo momento sin separarse ni un segundo de mi lado. Gracias a mi familia, en especial a mis abuelos, a los que tanto admiro y se preocupan siempre tanto por mí.

Quisiera agradecer a mi codirectora, la Dra. Patricia Gullón, por su infinita paciencia y su tiempo dedicado a mi trabajo. Gracias a Patri, por estar ahí siempre, por ser una amiga, por confiar en mí, por su profesionalidad. Todo lo

que he conseguido desde el primer día que pisé el laboratorio ha sido en gran parte gracias ella, y esta tesis es un claro reflejo de ello.

Por último, quisiera agradecer a Ander, que en todo este tiempo me ha ayudado a levantarme cada vez que me he tropezado, que me ha dado un abrazo cuando más lo he necesitado, que me ha aguantado día tras día, que me ha escuchado y apoyado siempre. Por poner un poco de cordura a mi locura y por seguir consiguiendo más retos personales y profesionales juntos. "*Questions of science, science and progress do not speak as loud as my heart*". Eskerrik asko, bihotzez.

A todos los que de alguna manera habéis dejado huella en esta tesis,

Mila esker!

Laburpena

Produktu polimerikoek gure eguneroko bizitza irauli dute eta ia sektore guztietan ezinbesteko material bihurtu dira eskaintzen dituzten abantaila ugariei esker. Hala ere, material horiek baliabide fosiletan izan ohi dute euren jatorria, eta ez dira mugagabeak; horregatik, material horiek agortzea eta euren prezioen gorabeherak kezka bihurtu dira egungo gizartearentzat. Gainera, plastiko edo material polimerikoek ez dute biodegradagarritasunik izaten, eta, ondorioz, horiek behar bezala ez eliminatzea eta gaizki kudeatzea kaltegarria da ingurumenarentzat, eta arriskutsua espezie bizidunentzat, gizakia barne.

Testuinguru horretan, aipatutako kezka guzti hauek ordezko baliabide jasangarriak eta ekologikoagoak bilatzeko premia sustatu dute (biopolimeroak, esaterako). Zentzu horretan, biofindegiak irtenbide potentzial gisa agertu dira, biomasa biopolimero eta oinarri biologikoko hainbat produktu merkaturagarrietan bihurtzeko gai baitira. Biomasa lignozelulosikoak arreta handia irabazi du azkenaldian, bere osagai nagusiak (zelulosa, hemizelulosak eta lignina) isolatu ondoren eskaintzen dituzten aplikazio ugarien ondorioz. Horien artean, badirudi lignina etorkizun handiko hautagaia dela karbonoan oinarritutako konposatuak (hala nola, produktu kimikoak eta materialak) fabrikatzeko erabiltzen diren baliabide fosilak ordezkatzeko. Hala ere, badirudi biopolimero hau gutxi ustiatuta dagoela, ziurrenik bere portaera egonkor eta egitura kimiko konplexuagatik. Edonola ere, ligninan oinarrituriko balio erantsiko produktuen ekoizpena funtsezkoa da bio-findegi plantak ekonomikoki lehiakorrak izan daitezen.

Ildo horretan, tesi honen ardatz nagusia ligninari balio erantsi bat ematea da, hidrogelak bezalako balio erantsi handiko konposatu bihurtuz. Tesi honek 5 kapitulu ditu: 1. Sarrera, 2. Helburuak eta erronkak, 3. Metodologia, 4. Emaitzak eta eztabaida eta 5. Ondorioak eta etorkizuneko lanak. 4. kapitulua 4

ataletan banatu da: lehenengoan, tesi honetan erabilitako ligninen karakterizazioa deskribatzen da; bigarrenean, hidrogelen sintesiaren optimizazioa garatzen da, polibinil alkohola eta lignina alkalino komertziala erabiliz; hirugarrenean, hidrogelen propietateetan eragina duten faktore desberdinak eztabaidatzen dira, eta laugarrenean, material anitzen aplikagarritasunerako emaitzak azaltzen dira.

Emaitzek lignina ingurumena errespetatzen duen polimero matrize batekin nahastuz (polibinil alkoholarekin (PVA), hain zuzen), fisikoki saretutako lignina-hidrogelak arrakastaz lor daitezkeela erakutsi dute, eta material horien ezaugarriak zenbait sintesi- eta formulazio-parametro aldatuz egokitu egin daitezkeela. Gainera, lignina hidrogelak hainbat aplikazio eremutan erabiltzeko material moldaerrazak direla frogatu da, hala nola, kutsatutako uren tratamenduan, bilgarrietan edota biomedikuntzan.

Atxikitako argitalpenen zerrenda

I. Artikulua: A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, G. Astray, *Synthesis of advanced biobased green materials from renewable biopolymers*, Curr. Opin. Green Sustain. Chem. 29 (2021) 100436. DOI: 10.1016/j.cogsc.2020.100436.

II. Artikulua: A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, *Assessment of green approaches for the synthesis of physically crosslinked lignin hydrogels*, J. Ind. Eng. Chem. 81 (2020) 475-487. DOI: 10.1016/j.jiec.2019.09.037.

III. Artikulua: A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, *Effect of the formulation parameters on the absorption capacity of smart lignin-hydrogels*, Eur. Polym. J. 129 (2020) 109631. DOI: 10.1016/j.eurpolymj.2020.109631.

IV. Artikulua: A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, *Impact of the lignin type and source on the characteristics of physical lignin hydrogels*, Sustain. Mater. Technol. 31 (2021) e00369. DOI: 10.1016/j.susmat.2021.e00369.

V. Artikulua: A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, *Influence of lignin modifications on physically crosslinked lignin hydrogels for drug delivery applications*, Ind. Crops. Prod. (under review).

Tesian sartu gabeko ekarpenak

🕮 A. Morales, F. Hernández-Ramos, L. Sillero, R. Fernández-Marín, I. Dávila, P. Gullón, X. Erdocia, J. Labidi, *Multiproduct biorefinery based on almond shells: Impact of the delignification stage on the manufacture of valuable products*, Bioresour. Technol. 315 (2020). DOI: 10.1016/j.biortech.2020.123896.

🕮 A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, *Hydrothermal treatments of walnut shells: A potential pretreatment for subsequent product obtaining*, Sci. Total Environ. 764 (2021) 142800. DOI: 10.1016/j.scitotenv.2020.142800.

🕮 L. Sillero, A. Morales, R. Fernández-Marín, F. Hernández-Ramos, I. Dávila, X. Erdocia, J. Labidi, *Life Cycle Assessment of various biorefinery approaches for the valorisation of almond shells*, Sustain. Prod. Consum. 28 (2021) 749–759. DOI: 10.1016/j.spc.2021.07.004.

🕮 A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, *Integral valorisation of walnut shells based on a three-step sequential delignification*, J. Environ. Manage. (under review).

Kongresuetarako ekarpenak

✍ BIOPOL 2019 (Ekainaren 17-19, Stockholm - Suedia): A. Morales, J. Labidi, P. Gullón; *Influence of the molecular weight of poly (vinyl alcohol) in physically crosslinked lignin-based green hydrogels* (Ahozko aurkezpena)

✍ BIORESTEC 2021 (Maiatzaren 17-19, Garda - Italia): A. Morales, P. Gullón, J. Labidi; *Effect of differently extracted shell lignins on the synthesis of smart materials* (Posterra)

✍ MZT 2021 (Azaroaren 29-30, Bilbo – Espainia): A. Morales, P. Gullón, J. Labidi; *Fruitu lehorren azaletatik isolaturiko lignina eraldatuek hidrogelen ezaugarrietan duten eragina* (Ahozko aurkezpena)

Nomenklatura

Laburdura	Deskribapena
AS	Almendra azalak
ASL	Azidotan disolbagarria den lignina
ATR-FTIR	Islapen Total Indargetua-Fourierren transformatuaren bidezko espektroskopia infragorria
CQE	Kertzetina komertziala
DMSO	Dimetilsulfoxidoa
DSC	Ekorketa diferentzialeko kalorimetria
FGI	Hazkunde fungikoaren inhibizioa
G units	Ligninaren guaiazilo unitateak
GAE	Azido galikoaren baliokideak
GI	Hazkundearen inhibizioa
H units	Ligninaren 4-hidroxi fenilo unitateak
H/M/LM$_w$	Pisu molekular altua/ertaina/baxua
HPLC	Bereizmen handiko kromatografia likidoa
HPSEC	Tamainaren araberako bereizmen handiko kromatografia
LSR	Disolbatzaile-solido ratioa
MAE	Mikrouhin bidezko erauzketa
MB	Metileno-urdina
M_n	Batez besteko pisu molekularra kopuruan
M_w	Batez besteko pisu molekularra pisuan
M_w/M_n	Polidispertsitate indizea
PBS	Gatz fosfatozko disoluzio indargetzailea
^{31}P NMR	Fosforozko Erresonantzia Magnetiko Nuklearra
PDA	Patata eta dextrosazko agarra
PVA	Polibinil alkohola
Py-GC/MS	Pirolisia-Gasen kromatografia/Masen Espektrometria
QAH	Hidrolisi azido kuantitatiboa
QE	Kertzetina estraktua
RSM	Erantzun-gainazalen metodologia
S units	Ligninaren siringilo unitateak
S/G ratio	Siringilo-guaiazilo ratioa
SEM	Ekorketazko mikroskopia elektronikoa
TFC	Flavonoideen eduki totala
T_g	Beira trantsizio tenperatura

TGA	Analisi termograbimetrikoa
TPC	Konposatu fenolikoen eduki totala
UV-Vis	Argi ultramore-ikusgarrirako espektroskopia
WNS	Intxaur azalak
XL	Gurutzatzea
XRD	X-izpien difrakzioa

Aurkibidea



1 Sarrera

1.1 Ingurumen-krisi globala

Antzinatik, gizakiak bere energia-beharrak asetzeko lehen mailako baliabideak etengabe aldatu behar izan ditu. Industria-iraultzak ikatza lehen mailako baliabide gisa erabiltzea bultzatu zuen bezala, XX. mendeak gizarteak petrolioarekiko mendekotasun handia izatea ekarri zuen [1]. Hala ere, baliabide fosilak mugagabeak ez direnez, hauen agortzea, prezioen gorabeherarekin batera, kezka nagusi bihurtu da egungo gizartearentzat. Baliabide horien amaierari buruzko iragarpenak ugariak izan arren, euren kontsumo globala oso handia da oraindik (98.272 mila upel egunean) [2], eta 2030. urterako eskaera horrek gora egiten jarraituko duela uste da [1]. Horrez gain, baliabide fosilen ustiapenak eta kontsumoak ingurumenean eragiten duen kaltea izugarria da, batez ere berotegi-efektuko gasen isurketei dagokienez [1]. 2019an, petrolioa, gasa eta ikatza erretzeko jarduerekin lotutako 34.169 milioi tona (Mt) karbono dioxido isuri ziren [3].

Energiaren ekoizpenaz gain, XX. mendearen erdialdetik polimeroen industria ere petroliotik eratorritako kimika, findegi eta ingeniaritza prozesuen mende egon da erabat [4]. Produktu polimerikoek gure eguneroko bizitza astindu dute eta ia sektore guztietan ezinbesteko material bihurtu dira, urtean 350 milioi tona inguruko mundu mailako ekoizpena izatera iritsiz [5]. Abantaila ugari erakutsi arren, plastikoak edo material polimerikoak ez dira biodegradagarriak izaten. Hori dela eta, hauen kudeaketa desegokiaren ondorioz, hondakin plastiko ugari topa daiteke ingurumenean, batez ere estuario eta itsaso inguruneetan [6,7]. Izan ere, hondakin plastikoek itsasoko zaborraren ia %90a osatzen dute, eta hauen artean elikagaien eta edarien ontzi, zigarro-punta eta poltsen gisako materialak dira ohikoenak [8]. Honek esan nahi du urtean 8 Mt plastiko isurtzen direla ozeanoetan, minuturo betetako kamioi baten karga isurtzearen parekoa izango litzatekeena [8]. Gainera, arrisku hau areagotu

egiten da material hauek partikula txikiagoetan deskonposatzen direnean, "mikro eta nanoplastikoak" deitutakoak sortuz. Izan ere, arrain edo animaliek elikagai moduan irentsi ditzakete partikula hauek, horrela kate trofikoetan eta, ondorioz, giza gorputzean sartuz [5]. Horrez gain, partikula iraunkor hauek haizeak garraia ditzake eta arnastearen ondorioz gizakien biriketaraino hel daitezke [9].

Honela, aipatutako energia-eskari aseezinak eta plastikoen kutsadurak eragindako ondorio larriek ingurumenarekiko errespetu handiagoa duten eta jasangarriagoak diren ordezko baliabideak bilatzeko premia bultzatu dute. Jasangarritasuna egungo eta etorkizuneko gizakien ongizatearen orekarako beharrezkoa da [1]. Horrez gain, ekonomia zirkularra jasangarritasun kontzeptu bezala uler daiteke, ohiko “hartu, egin eta bota” ekonomia modeloa “baliabide, berreskurapen eta birziklapen” ekonomiaz ordezkatzeko helburua duena [10], 1.1 Irudian adierazten den bezala.

1.1 Irudia. Ekonomia lineal eta zirkularraren deskribapen grafikoa.

Testuinguru honetan, baliabide berriztagarriak energia, kimiko eta materialak sortzeko etorkizun handiko ordezko gisa nabarmendu dira azkenaldian, baliabide fosiletan oinarritutako ekonomia baztertu eta bio-baliabideetan oinarrituko den batera bideratzeko [11]. Energia iturri berriztagarriak eolikoa, eguzki-energia, hidraulikoa, geotermikoa, mareomotrizea eta biomasa izan daitezke, esate baterako [1,12]. Horien artean, biomasak arreta handia erakarri du azken urteotan, bere jasangarritasuna dela eta bereziki [4]. Biomasa mineralizazio-prozesurik jasan ez duen edozein material biologiko gisa defini daiteke [1]. Honen barnean landare-jatorriko materia organikoa eta bere eraldaketa natural edo artifizialaren ondoriozko materialak (hondakinak eta azpiproduktuak) sartzen dira [1]. Antzinatik zuzeneko errekuntzarako erabilia izanagatik energia-iturririk zaharrena izan arren, gaur egun ez da ohikoa biomasa produktu kimikoak edota erregaiak lortzeko erabiltzea [4].

Bio-findegiak biomasaren erabilera maximizatu eta hondakinak eta emisioak minimizatzeko garatu dira, biomasa modu jasangarrian produktu espektro zabal bat eta energia bihurtuz [10,13]. Bio-findegiek, beraz, gizateriaren egungo eta etorkizuneko behar energetiko eta materialak ase ahal izateko ikuspuntu iraultzaile bat eskaintzen dute.

1.2 Bio-findegiak eta biomasa

Energiaren Nazioarteko Agentziaren (IEA) arabera, bio-findegia honela defini daiteke: "Merkaturatu daitezkeen oinarri biologikoko produktuak (elikagai eta pentsuetarako osagaiak, produktu kimikoak, materialak, erregaiak, energia, mineralak eta CO_2) eta bioenergia (erregaiak, energia eta beroa) lortzea baimentzen duen biomasaren prozesamendu jasangarria" [14]. Bestela esanda, bio-findegiak hainbat bihurketa-prozesu konbinatzen dituzten industria-instalazioak dira, non oinarri biologiko produktu jasangarriak eskuratzen diren prozesu termokimiko, biologiko, fisiko eta kimikoen bidez [10,15]. Biomasa, beraz, bio-findegien lehengaia da, petrolioa findegiena den bezala.

1.2.1 Bio-findegi motak

Bio-findegiak biomasa mota desberdin ugari eraldatzeko gai direnez, kasu bakoitzean erabili nahi diren lehengaiek eta lortu nahi diren produktuek mugatzen dituzte aplikatu beharreko prozesuak [16]. Ondorioz, lehengai eta produktuen konbinaketen aukera zabala dela eta, zaila da bio-findegiak era bakar batean sailkatzea. IEA-k, esaterako, teknologia-mailaren, biomasa motaren eta gailentzen den eraldaketa prozesuaren arabera sailkatzen ditu [16]. Edonola ere, sortutako produktuen arabera ere sailka daitezke. Hauek energia edo produktuek bultzatutako bio-findegiak izan daitezke, lehenen helburua erregai, gas, bero edota elektrizitatea sortzea izanik eta bigarrenena produktu kimiko edo materialak lortzea [14].

Teknologia-mailaren arabera, lau bio-findegi belaunaldi daudela esan ohi da (1.2 Irudia) [17].



1.2 Irudia. Teknologia-mailaren araberako bio-findegi motak [17].

1.2 Irudian erakusten den bezala, lehen belaunaldiko bio-findegiek lehengai bakarra erabiltzen dute, eta teknologia mugatua dutenez, produktu mugatuak lortzeko gai dira. Bio-findegi hauetan azukre edo olio eduki altua duten lehengaiak, artaburuak edota ekilorea erabili ohi dira, eta bio-erregaien ekoizpenerako erabilgarriak izan arren, erabili beharreko lehengai kopurua oso handia da. Ondorioz, honek elikagaien prezioarekiko lehia sor dezake, eta

hau saihestu beharreko zerbait da. Bigarren belaunaldiko bio-findegiek ere lehengai bakarra erabiltzen dute, baina kasu honetan biomasa lignozelulosikoa erabiltzen dutenez, produktu ugari ekoizteko gai dira, elikagaiekiko lehia ekidinez. Hirugarren belaunaldiko bio-findegiek, aurretik azaldutako biekin alderatuz, abantaila nagusi bat dute: erabilitako teknologia aurreratuari esker, lehengai ugari erabiliz produktu anitz sor ditzakete. Belaunaldi honen helburua, gainera, biomasaren osagai guztien erabilera maximizatzea da, ekoizpen errendimendua hobetuz eta ingurumenaren gaineko eragina gutxituz. Horrez gain, bio-findegi hauek balio erantsiko produktuak ekoizten saiatzen dira. Hirugarren belaunaldikoetan oinarrituz, laugarren belaunaldiko bio-findegiak eskala handiko mikroalgen hazkuntzan zentratzen dira, horretarako prozesuaren kostu ekonomikoa gutxitzen eta ingurumen-onura handitzen saiatuz.

1.2.2 **Biomasa motak**

Aipatu bezala, bio-findegietan lehengai moduan biomasa mota desberdin asko erabil daiteke, likido, solido nahiz gasa izan. Hauen artean, labore eta nekazaritzako hondakinak, industria-hondakinak, udal-hondakinak, uretako organismoak, zurezko hondakinak eta belarrak aipa daitezke, adibidez [17].

- Labore eta nekazaritzako hondakinak: belar- edo egur-espezieak, nekazaritza-lurretan hazteko, uzta biltzeko eta uztatutako lehengaiak prozesatzeko jardueren bidez sortuak [16]. Biomasa honen adibide dira te, tabako eta tomate haziak, laboreen hondakinak, arroz-lastoa, egur-ezpalak eta fruta-hondakinak [16]. Algak ere talde honetan sar daitezke.
- Industria-hondakinak: nekazaritza, basogintza eta elikagaigintza industrietan sortutako azpiproduktuak eta hondakinak. Horien artean daude oliba-olioaren ekoizpenean, zitrikoen prozesatzean, ardogintzan eta garagardogintzan sortutako hondakinak, baita baso-industrien

hondakinak ere (enbor azalak, zerrategi eta arotzeri hondakinak, etab.), zelulosaren industriako azpiproduktuak (likore beltzak) eta material lignozelulosikoak (paletak, eraikuntza-materialak, altzari zaharrak, etab.) berreskuratzearen hondakinak [16].

- ♣ Udal-hondakinak: eguneroko bizitzan sortutako hiri-hondakinen frakzio biodegradagarria. Kategoria honetan sartzen dira araztegiko lokatzak, hondakin-urak eta elikagai hondakinak [16].
- ♣ Uretako organismoak: batez ere makro eta mikroalgak hartzen dituzte, balio-erantsiko elikagai eta produktu bihur daitezkeen bio-konposatuen iturri jasangarriak direnak [10].
- ♣ Zurezko hondakinak eta belarrak: baso-jardueretan sortzen dira. Biomasarik ugariena dira, honen guztizko kopuruaren %89,3 inguru eta mundu osoan urtero ekoizten den biomasaren %42,9 hartzen baitute [15].



1.3 Irudia. 2017an Europan zeuden bio-findegien mapa, erabilitako lehengaien arabera sailkatuta: bio-hondakinetan oinarrituak (berdea), biomasa lignozelulosikoan oinarrituak (marroi argia), olio/gantzetan oinarrituak biodieselaren ekoizpenerako (horia), olio/gantzetan oinarrituak oleokimikarako (laranja), azukre/almidoian oinarrituak (urdina) eta egurrean oinarrituak (marroi iluna) ([18]-tik moldatua).

1.3 Irudiak 2017an Europan zeuden bio-findegi mota desberdinak erakusten ditu, erabilitako biomasaren arabera sailkatuta. Guztira 234 instalazio zenbatu ziren urte hartan, eta ziurrenik kopuru horrek gora egin du ordutik.

1.3 Biomasa lignozelulosikoa

Biomasa lignozelulosikoa edo begetala bioenergia eta konposatu biokimikoen iturri erakargarri bihurtu da azkenaldian [19]. Planetako biomasa berriztagarririk ugariena da, urtean 200.000 milioi tona ekoizten baitira [20]. Honen barnean zurezko landareak (hau da, egur bigunak eta gogorrak), zerrautsa (zurezko itsasontzi, obra-leku eta zerrategietatik eratorriak) eta azalen bakantze-hondakinak, eta egurrezkoak ez diren landareak, hala nola belar-landaredia, nekazaritza-hondakinak eta elikadurarako nahiz elikadurarako ez diren laboreak [21]. Biomasa lignozelulosikoa oso ugaria izateaz gain, oso erabilgarri dagoen, kabonoan neutroa den eta jangarria ez den bio-baliabide bat da, landareen horma zelularretatik datorrena [21,22].

Material lignozelulosikoa material konposatu natural konplexua da, hiru egitura-osagai nagusi izateaz gain (zelulosa, hemizelulosak eta lignina) egituraren parte ez diren beste batzuez ere (pektina, proteina, estraktu eta errautsez, adibidez) osatzen dena. 1.1 Taulan adierazten den bezala, biomasa mota honen konposizioa lehengaiaren iturri nahiz hazte baldintzen araberakoa da [23].

1.1 Taula. Biomasa lignozelulosikoaren osaera argigarria ([24]-tik moldatua).

Lehengaia	Zelulosa (%)	Hemizelulosak (%)	Lignina (%)
Zur biguna	45–50	25–35	25–35
Zur gogorra	45–55	24–40	18–25
Belarra	25–40	25–50	10–30

Lehengai lignozelulosikoen artean, fruitu lehorren azalak munduan urtero kopuru izugarrian ekoizten dira. 1.4 Irudian 2019 urtean eman zen fruitu lehor batzuen munduko ekoizpena aurkezten da.



1.4 Irudia. 2019ko fruitu lehor batzuen ekoizpen globala (milioi tonatan, Mt) [25].

Datu hauen arabera, urte horretan 3,5 eta 4,5 miloi tona almendra eta intxaur inguru ekoiztu ziren munduan. Hala ere, fruitu lehor horietan jangarria den ehuneko txikia dela eta, balio-erantsi baxuko industria- edo merkataritza-aplikazioetarako erabiltzen diren azal kopuru handia ekoizten da. Baina oskol horiek biomasa lignozelulosikoari dagozkionez, bio-findegi estrategia baten bidez, balio-erantsi altuko materialak ekoizteko lehengai gisa erabili litezke.

1.3.1 Elementu ez-estrukturalak

Elementu ez-estrukturalak pisu molekular baxuko konposatuak izan ohi dira eta biomasa lignozelulosikoaren %5-10 osatzen dute gehienez. Landareen horma zelularraren egituraren parte ez izan arren, elementu hauek beharrezko propietate fisiologikoak ematen dizkiote landareari, elastikotasuna, iragazkortasuna edota onddo nahiz intsektuen erasoen aurkako babesa, esate baterako. Konposatu hauen artean konposatu fenolikoak, gantz-azidoak, terpenoak, lignanoak, flabonoideak, taninoak eta argizariak topa daitezke. Horietako batzuk bio-aktiboak dira, hau da, osasunarekin loturiko aplikazioetarako balio izateaz gain, elikagaien babeserako ere erabil daitezke, adibidez [23].

1.3.2 Zelulosa

Zelulosa landareen horma zelularraren osagai nagusia da eta erresistentzia mekanikoa eta egonkortasun kimikoa ematen dio [22,26]. Lurreko biopolimerorik ugariena da eta landare, bakteria, alga eta beste biomasa batzuetan ere aurki daiteke [26]. Zelulosa polisakarido lineala da, β–1,4 loturez konektatutako D-glukosazko unitatez osatua [27]. Hidrogeno eta Van der Waals lotura sendoei esker, zelulosazko zuntzak osatzen dira, euren orientazioaren arabera kristalinitate maila desberdinak eragiten dituztenak [21]. Zelulosazko mikrozuntzak beste egitura-elementuekin elkartu eta makrozuntzak osatzen dituzte, era berean horma zelularrak eraikiz (1.5 Irudia). Biopolimero honen ezaugarri fisiko-kimikoak, biodegradagarritasuna, biobateragarritasuna eta berriztagarritasuna direla eta, hainbat aplikaziotarako erabili da, eta gero eta interes handiagoa du tratamendu eta gainazaleko eraldaketa egokien ondoren erakutsitako propietateengatik [21].

1.3.3 Hemizelulosak

Zelulosaren kasuan ez bezala, hemizelulosak kate motzeko heteropolimero adarkatuagoak, amorfoak eta ausazkoak dira [21]. β–1,4 lotura glikosidikoz konektatutako bost eta sei karbonoko azukrez daude osatuta (pentosa eta hexosaz, hurrenez hurren) [20]. Xilosa eta arabinosa bezalako pentosak, glukosa, galaktosa eta manosa bezalako hexosak eta beste sakarido batzuk (ramnosa eta fruktosa, adibidez) konbinatu ohi dira hemizelulosak osatzeko, nahiz eta batzuetan azido uronikoak eta azetil taldeak ere aurkitzea posible izan [21]. Hemizelulosei esker zelulosa zuntzak mikrozuntzetan pilatzen dira, hidrogeno eta Van der Waals loturak osatuz eta ligninarekin ere gurutzatuz [21]. Ondorioz, heteropolimero honek zurruntasuna ematen dio biomasa lignozelulosikoaren matrizeari [20].



1.5 Irudia. Landare-horma zelularra osatzen duten osagai nagusiak eta horien unitateen egitura kimikoak.

1.3.4 **Lignina**

Lignina Lurreko biopolimero fenolikorik ugariena da. Zur biomasaren %40ra arte osa dezake [26,28,29] eta landareen egiturari zurruntasuna eta hidrofobotasuna ematen dio. Elementu honek mikrobio eta onddoen erasoen, izpi ultramoreen eta suaren aurkako babesa ematen die landareei [24,28]. Urtero 100.000 milioi tona inguru lignina birsortzen direla estimatzen da, horietatik 1,5-1,8 mila milioik industria-ekoizpenarekin zerikusia izanik [30]. Kopuru honetatik 70 milioi tonak egur eta paper industrian dute jatorria, instalazio beraren energia-berreskurapenerako erabili ohi direnak [30]. Edonola ere, biopolimero hau gutxi ustiatuta dagoela uste da, karbonoan oinarritutako hainbat produkturen (kimikoak eta materialak) ekoizpenean baliabide fosilak ordezkatzeko hautagai garrantzitsua izan baitaiteke [30].

Ligninak egitura oso adarkatua du, fenilpropanozko hiru unitateren konbinaketaz osatzen dena: alkohol sinapilikoa (siringilo, S unitatea), alkohol koniferilikoa (guaiazilo, G unitatea) eta alkohol *p*-kumarilikoa (4-hidroxi fenil, H-unitatea) [26,28,29]. Unitate hauek talde funtzional polar ugari dituzte eta ausaz lotzen dira eter loturen bidez, hiru dimentsioko egitura amorfo bat sortuz. Karbono–karbono (C–C) eta karbono–oxigeno (C–O) loturak dira lignina monomeroen arteko lotura ohikoenak [28]. Hala ere, β–O–4 lotura, H unitate baten eta propenil talde baten β-amaieraren arteko C–O lotura, da errepikakorrena [28]. Era berean lotura hau guztietan hauskorrena da eta ligninaren erauzketa prozesuetan erraz hautsi ohi da [31]. 1.6 Irudian ligninarentzat proposatutako egitura kimikoa bat erakusten da.



1.6 Irudia. Ligninarentzat proposatutako egitura kimikoa ([32]-tik moldatua).

Ligninaren konposizioa G, S eta H unitateen kopuruaren arabera aldatzen da landaretik landarera [24]. Horrez gain, literaturan 1.000 eta 20.000 g/mol

arteko pisu molekularrak topa daitezkeen arren, ligninaren berezko polimerizazio-maila ezagutzea oso zaila da, izan ere, erauzketa prozesuan zatikatu egiten baita [28]. Zur bigunetan G unitateak dira nagusi, zur gogorretan, ordea, S eta G unitateak nagusitzen dira. Belarren kasuan, H unitateak izan ohi dira ugariagoak [28]. Unitate hauek, beste talde funtzionalen presentzia eta euren arteko β–O–4 loturekin batera, ligninaren despolimerizazio kimiko eta biokimikoen aurkako izaera egonkorraren erantzule dira [33]. Ligninaren portaera honek, bere egitura konplexuak eta degradatutako lignina zatiek jasa ditzaketen kondentsazio-erreakzioek biopolimero hau balioztatzea erronka bat bihurtzen dute. Edonola ere, lignina balio-erantsiko produktu bilakatzea bio-findegien lehiakortasun ekonomikoa bermatzeko erabat beharrezkoa dela uste da [34].

1.3.4.1 Ligninaren erauzketarako metodoak

Aurretik aipatu bezala, erabilitako erauzketa prozesuaren arabera, ligninaren zenbait ezaugarrik aldaketak paira ditzakete. Izan ere, prozesu hauek ligninaren konposizioan, egitura molekularrean, pisu molekularrean eta disolbagarritasuna edota hidrofobotasuna bezalako propietate fisikoengan eragin dezakete [35], ondorengo balio-erantsiko produktuen ekoizpena mugatuz [36].

Ligninaren erauzketa eraginkor batek errendimendu eta purutasun handiko ligninaren isolamendua baimendu beharko luke, ahalik eta β-O-4 lotura gehien mantenduz ondorengo balioztatze prozesuetan mesedegarri izateko [34]. Gaur egun, deslignifikazio metodo ugari aurki daitezke, 1.7 Irudian ikus daitekeen bezala. Euren arteko desberdintasun nagusienak inplikatutako erreaktiboetan, aplikatutako tenperaturetan eta erabilitako denboretan aurki daitezke besteak beste. Hemizelulosekin osatzen dituen lotura kobalenteen eraginez, lignina-karbohidrato konplexuak sortzen dira [30,34]. Deslignifikazio prozesuetan

lotura hauek hautsi egin behar dira [30], eta ligninaren despolimerizazio partziala ere saihestezina izan ohi da biomasatik isolatu ahal izateko [34].



1.7 Irudia. Ligninaren erauzketarako prozesu ezagunenen laburpena.

1.7 Irudian aurkezten diren metodoetatik batzuk aspalditik erabiltzen diren prozesuak dira, besteak beste, Kraft eta sulfito prozesuak XIX. mende amaieratik aurrera mundu osoan erabili izan dira egur eta papergintza industrian. Edonola ere, prozesu hauetan zelulosaren lorpena izan da helburu, lignina azpiproduktu gisa lortu den bitartean. Hala ere, azken urteetan, lignina produktu gisa duten bio-findegi prozesu alternatiboek arreta handia bereganatu dute. Hala eta guztiz ere, metodo horiek guztiek zenbait arazo dakartzate: konplexutasuna, disolbatzaileen eta produktu kimikoen kontsumo handia, prozesatze-denbora luzeak, etab. Horrez gain, energia-eskariari dagokionez, baldintza gogorrak eskatzen direnez, eskari handikoak izan daitezke. Testuinguru horretan, metodo berriak sortu dira erauzketa-eraginkortasun handiagoa lortzeko eta eskala handiagotzea sustatzeko [37].

1.3.4.2 Ligninaren eraldaketarako metodoak

Nahiz eta ligninaren egitura oso adarkatua izan eta bere erreaktibotasunean zuzenean eragiten duten talde funtzional ugari izan [30,38], aplikazio batzuetarako, ligninaren erreaktibotasuna ez da behar bezain altua izaten. Hau bere pisu molekular altuari, oztopo esterikoari eta bere egiturako toki

erreaktibo urriei egotz dakieke [13,39]. Beraz, batzuetan bere erreaktibotasuna hobetuko duen egituraren aldaketa kimiko bat egitea beharrezkoa izaten da [40]. Horretarako, lau bide nagusi daude (1.8 Irudia): lehenak despolimerizazioa edo zatikatzea dakar, bigarrenak kimikoki aktiboak diren leku berrien sintesia du ardatz, hirugarrenak egiturako hidroxilo taldeen funtzionalizazioarekin du zerikusia, eta azkena txertaketazko edo *grafting* kopolimeroen bidez izango litzateke [41]. Eraldaketa horiek, neurri handi batean, erabiltzen ari den ligninaren talde funtzionalen erreaktibotasunaren eta egituraren araberakoak izan ohi dira.



1.8 Irudia. Ligninaren eraldaketa kimiko nagusiak ([41]-tik moldatua).

1.4 Hidrogelak

1.4.1 Definizioa eta propietate orokorrak

Hidrogelak ura xurgatzeko ahalmen handia duten hiru dimentsioko egitura polimerikoak dira. Propietate hau bere sare egiturarekin lotuta dago, non fisikoki edo kimikoki gurutzatutako kate polimerikoen arteko hutsuneek fluido urtsuak edota beste fluido biologiko batzuk bereganatzea ahalbidetzen duten [42,43]. Euren ur edukia %90etik gorakoa izatera hel daiteke, eta horri eta

euren propietate elastikoei esker, hidrogelek giza ehunen antz handia hartzen dute. Propietate hauek zaurien zainketa eta beste hainbat aplikazio biomedikoetarako egokiak bihurtzen dituzte [44,45], hala nola, zelulen kapsularatzean [44], bio-sentsoreetan, hezur-ehunen ingeniaritzan [43], muskulu artifizialen diseinuan, ukipen-lenteetan, eta abar. Aplikazio hauez gain, elikagaien industrian, farmazian, botiken askapen kontrolatuan eta material super-xurgatzaileetan ere erabili izan dira [46]. Funtzio horietako asko material horiek kanpoko estimuluei erantzuteko duten gaitasunari esker lortzen dira, hala nola tenperatura, pH-a, kontzentrazio ionikoa eta eremu magnetiko eta elektrikoen aurkako estimuluei. Hidrogel hauek *smart* edo sistema adimendun bezala ezagutzen dira eta aplikazio teknologiko aurreratuetarako material interesgarri bihurtu dira [47].

1.4.2 Sintesia eta sailkapena

Hidrogelen sintesirako, oro har, hiru elementu nagusi behar izaten dira: monomero bat, abiarazle bat eta erretikulatzaile edo *crosslinker* bat. Ura edo ur-soluzioak erreakzioaren beroa eta ondoriozko materialen propietateak kontrolatzeko ere baliagarriak izan daitezke [48]. Hala ere, materialen ezaugarriak prestatzeko tekniken mende daude erabat.



1.9 Irudia. Gurutzaketa fisikoa, kimikoa eta duala duten hidrogelen adierazpen eskematikoa.

Hidrogelak hainbat irizpideren arabera sailka daitezkeen arren, ohikoena saretze motan oinarritzen da. Saretzea kate polimerikoen arteko interakzioen bitartez lortzen da. Lotura hauek fisiko edota kimikoak izan daitezke, eta hidrogelen prestaketa-metodo desberdinak aplikatuz lor daitezke. Gurutzaketa fisikoa lortzeko, adibidez, izozte-desizoztea, irradiazioa, *solvent-casting* edota faseen bereizketa erabil daitezke, eta horrela, interakzio ionikoak, hidrogeno-loturak, hidrofobikoak edota *host-guest* interakzioak eragiten dira. Gurutzaketa kimikoaren kasuan, aldiz, beste metodo batzuk erabil daitezke, adibidez, disoluzio bidezko polimerizazioa edo irradiazioa, erradikal askeen polimerizazioa, kondentsazio eta gehitze erreakzioak [46]. Batzuetan, hidrogelek bi gurutzaketa motak izan ditzakete aldi berean, gurutzaketa edo saretze dual bezala ezagutzen dena (1.9 irudia), eta gurutzaketa kimiko edo fisiko soilak dituzten hidrogelekin alderatuz, propietate desberdinak dituzte [49].

1.4.3 **Hidrogel sintetikoetatik biopolimeroetan oinarritutakoetara**

1960. urtean, Wichterle eta Lim aitzindariak izan ziren giza ehunekin bateragarriak ziren hidrogelen sintesian, eta, ordutik, hidrogelen gaineko arreta esponentzialki handitu da, aurretik aipaturiko "hidrogel adimendunak" deiturikoen garapenerako interesagatik, batez ere [47].

Hidrogelen historia hiru aldi nagusitan banatzen da [47]. Lehen belaunaldian, gurutzaketa-metodo ugari sortu ziren, ur xurgapen gaitasun handiko, propietate mekaniko oneko eta oinarri teoriko errazeko materialak ekoiztuz [47]. Bigarren belaunaldia, 70eko hamarkadan hasi zena, kanpoko estimulu espezifikoei (adibidez, tenperatura, pH-a, etab.) erantzuteko gai ziren materialak lortzean oinarritu zen. Hirugarren belaunaldian, berriz, material estereo konplexuak eta beste interakzio fisiko batzuen bidez sareztatutako hidrogelak ikertu eta garatu ziren [47].

1980ko hamarkadaren amaieran, polimero naturalak, kolagenoa eta marrazo kartilagoak kasu, hidrogeletan erabiltzen hasi ziren [47]. Ordutik, biopolimeroetan oinarritutako hidrogelak oso ezagunak egin dira elikaduraren, kosmetikoen, produktu farmazeutikoen eta inplante biomedikoen arloetan duten aplikagarritasunagatik, besteak beste [50]. Petrolio-erreserba mugatuek, material mota horren degradazioan sortutako konposatu toxikoek eragindako ingurumen-arazoek eta hidrogelen merkatuaren hedapenak ingurumena errespetatu eta seguruak diren material berriztagarrietan oinarritutako hidrogel alternatiboak garatzeko premia eragin dute. Era berean, horien garapenak biomasaren berrerabilpena eta birziklapena bultzatu eta bio-ekonomia zirkularra sustatuko lukete (1.10 Irudia) [11].



1.10 Irudia. Hidrogel jasangarrien definizio grafikoa.

1.4.4 Ligninan oinarrituriko hidrogelak

Erabilgarri eta ugariak diren biopolimeroen artean, lignina da aromatikoa den bakarra, hidrogel funtzionaletan aplikatzeko interesgarri egiten duena [50]. Ikerketa askok berriki frogatu dute ligninatik eratorritako konposatuak

arrakastaz erabil daitezkeela ehunen zainketa eta botiken askapenerako edota UV izpien xurgatzaile gisa erabiliko diren materialen sintesirako [51]. Ondorioz, azken urteotan ligninari eta bere aplikazioei buruzko argitalpenen goranzko joera garbia ikusi da [30,52,53]. Lignina beste polimero biosintetiko edo sintetiko batzuekin konbinatu ohi da bere kabuz saretzeko gai ez delako. Horregatik, hainbat sare polimerikotan gehitu da, hidrogelen eraketa sustatzen duten interakzio fisiko edota erreakzio kimikoen bidez [54].

1.4.5 Ligninan oinarrituriko hidrogelen aplikazioak

Orain arte ligninan oinarrituriko hidrogelen ehuneko handi bat ur disoluzioetan dauden metal astunak eta konposatu kationikoak xurgatzeko erabili da [55]. Hala ere, material hauek biomedikuntzan (botiken askapenerako, adibidez) edota ehunen ingeniaritzan ere erabiliak izan dira [55].

Uraren askapen kontrolatua nekazaritzan erabiltzen den termino bat da. Euria urria den klimetan, zoruak maiz ureztatu behar izaten dira. Hala ere, lurrak hidrogel txiki eta adimendunez hornitzeak, hala nola ligninaz egindako hidrogelez hornitzeak, ur kantitate esanguratsuak xurgatu eta gordetzen dituela frogatu da, laboreek behar duten arte [50]. Hidrogelen ur-edukia aldatu egin daiteke haien saretze-mailaren arabera, eta parametro hau euren sintesian kontrola daiteke.

Ligninaren talde funtzionalek (fenol eta alkoholetako hidroxiloak, metoxi eta karboxiloak) adsortzio-leku gisa jardun dezakete tindagaien molekula eta metal astunentzat [56]. Egitura horiek molekula positiboak erakartzeko gai dira, negatiboki kargatutako talde funtzionalei esker, eta konposatu organiko-aromatikoak erakartzeko gai π-π erreakzioen bidez [50]. Horregatik, ioi inorganikoak eta konposatu organikoak lurzoru eta uretatik ezabatzeko erabili izan dira [50]. 1.2 Taulak aplikazio eremu horretako lan batzuk laburbiltzen ditu.

1.2 Taula. Hidrogelak kutsatzaileen xurgatzaile gisa erabili dituzten lanen berrikuspen bibliografikoa.

Erabilitako lignina mota	Kutsatzailea	Ingurua	Xurgapena	Erreferentzia
Sodio lignosulfonatoa	Kadmio ioiak (Cd^{2+})	Lurra	< 61,77 ± 1,09 mg/g	[57]
Lignina	Metileno-urdina (MB) eta berun ioiak (Pb^{2+})	Ura	201,7 mg/g MB eta 753,5 mg/g Pb^{2+}	[58]
Kraft lignina, organosolv lignina eta alkalinoa	Toluenoa	Ura	164 –170 mg/g	[59]
Lignina alkalino aminatua	Metal astunezko ioiak (Pb^{2+}, Hg^{2+} eta Ni^{2+}) eta tindagaiak (Metileno-urdina, metil-laranja eta anilina berdea)	Ura	2,1–55 mg/g metal astunezko ioientzat eta 2–155 mg/g tindagaientzat	[60]
Kraft lignina, hidrolisi entzimatikotik eratorritakoa eta alkalinoa	6G Rodamina, anilina morea, metileno-urdina eta metil-laranja	Ura	10–196 mg/g	[56]
Kraft lignina, organosolv lignina eta alkalinoa	Metileno-urdina	Ura	69–629 mg/g	[61]
Pinutik isolaturiko Kraft ligninan oinarrituriko AT indulina	Prednisolona botika eta 3,4-dikloroanilina	Ura	1,35 mg/g prednisolona eta 4 mg/g 3,4-dikloroanilina	[62]
Lignina alkalinoa	Kromoa, Cr (VI)	Ura	599,9 mg/g	[63]
Azidoz aurretrataturiko lignina alkalinoa	Pb^{2+}, Cu^{2+} eta Cd^{2+} ioiak	Ura	1,076 mmol/g Pb^{2+}, 0,323 mmol/g Cu^{2+} eta 0,059 mmol/g Cd^{2+}	[64]

Hidrogelak elikagaiak ontziratzeko sistemetan aplikatzeko aukera interesgarri bat ere izan daitezke, hala nola, plaka xurgatzaileetan [65]. Ura xurgatzeko gai izateaz gain, material hauek biltegiratutako elikagaien bizitza erabilgarria handitu behar dute eta elikagaien gainazalean mikrobio-hazkundea saihestu [65]. Beraz, hidrogelen sarea osatzen duten polimeroen mikrobioen aurkako portaera oso garrantzitsua da. Testuinguru horretan, ligninak eta haren deribatuek eta lignina-hidrogelezko estaldurek portaera antimikrobianoa dutela erakutsi dute [66–68]; beraz, elikagaiak ontziratzeko erabil daitezkeela esan daiteke.

Mikrobio nahiz oxidazioaren aurkako ezaugarriak eta zitotoxikotasun baxua izatea ere garrantzitsuak dira material bio-bateragarrien sintesirako. Zentzu horretan, hidrogelek zaurietan desiragarriak ez diren metabolitoak modu eraginkorrean ezabatu ditzakete euren xurgapen gaitasuna dela eta, eta ligninak zauria aurrerago sor daitezkeen arazoetatik babesten lagun dezake, hala nola lesio edo kutsadura berrietatik, bere propietate mekaniko onei esker [53]. Hori dela eta, ligninak zaurien zainketan [69] eta ehunen ingeniaritzan [70] garrantzia hartu du.

Lignina hidrogelak eremu biomedikoaren beste zati garrantzitsu batean ere erabilgarriak dira: botika hidrofobikoak [67] eta hidrofilikoak modu kontrolatuan askatzeko, esaterako. Lignina eta beste (bio)polimero batzuk konbinatuz, estimuluekiko sentikorrak diren hidrogelak sor daitezke. Hidrogel horiek oso interesgarriak dira botikak garraiatu eta askatzeko, haien bolumena alda baitezakete ingurumen-estimuluei erantzunez [71], pH-a, tenperatura edo argiaren eraginez, adibidez [54].

Ligninan oinarritutako materialak energia alorreko gailuetan ere erabilgarri direla ikusi da [72]. Beste aplikazio batzuen artean, material hauek super-kondentsadoreentzako elektrodo bezala erabil daitezke, euren gainazal zabal eta egonkortasun kimikoari esker, baina baita euren eroankortasun elektriko altuarengatik ere [72,73].

Aurreko guztia kontuan hartuta, iraganean gutxi erabili den arren, ligninak abantaila ugari eta erabilera eremu zabala dituela ondoriozta daiteke, bai ekonomiaren ikuspegitik (erabilgarritasun handia eta kostu txikia) eta baita ingurumenaren (berriztagarria eta biodegradagarria) eta teknologia (ezaugarri fisiko-kimiko bikainak) ikuspegietatik ere. Guzti horregatik, aplikazio askotarako erabilgarria izan daitekeen material garrantzitsu bat bilakatzen ari da.

1.5 Hutsune zientifikoa

Azken urteotan lignina hidrogelekiko ikerketa-interesak gora egin duen arren, aztertutako sistema gehienek gurutzaketa kimikodun egiturak dituzte, eta askotan oso toxikoak diren erreaktiboak erabiltzen dira hauek lortzeko. Gainera, polimero matrizeetan gehitutako lignina kopuruak oso txikiak izan ohi dira, eta horrek biopolimero horren balorizazioa mugatu egiten du. Horrez gain, ikerketa askotan lignina mota bakar batek sintetizaturiko hidrogelen propietateetan duen eragina aztertzen da, eta horrek beste lignina-mota batzuk erabili behar direnean estrapolazioa zailtzen du.

Aurrekoa kontuan hartuta, lan honen ardatza ligninan oinarritutako hidrogelen sintesia optimizatu eta karakterizazioa burutzea da, lignina alkalino komertzial eta polibinil alkoholezko matrizearen arteko konbinaziotik abiatuta. Baldintza optimoak nekazaritzako elikagaien hainbat hondakin lignozelulosikoetatik (almendra eta intxaur-oskolak) isolatutako eta eraldatutako ligninetan oinarritutako hidrogelen sintesirako erabiliko dira. Ekoiztutako materialak karakterizatu eta aplikazio aurreratu batzuetarako ebaluatuko dira, hala nola, kutsatutako uren arazketarako, ontziratze aktiborako eta botiken askapenerako, era berean ligninari balio erantsi bat emanez.

2 Helburuak eta erronkak

Tesi honen helburu nagusia lignina mota desberdinei hidrogel aurreratuak lortzeko erabiliz balio-erantsia ematea izan da, hidrogel horiek karakterizatuz euren aplikazio egokienak definitzeko asmoz. Helburu hau lortzeko, lehenik, hidrogelen sintesiko hainbat parametro optimizatu dira eta, jarraian, estimaturiko baldintza optimoak lignina desberdinetan oinarritutako hidrogel gehiago lortzeko erabili dira.

2.1 Helburu espezifikoak

Helburu nagusia betetzeko, eta literatura azterketa sakon baten ondoren **(I. Artikulua)**, ondoko helburu espezifiko hauek proposatu dira:

- **1. Helburua (II. Artikulua):** Ligninan oinarritutako hidrogelen sintesia optimizatzea diseinu esperimentalen bidez, ur xurgatze-ahalmena maximizatuz eta lignina galera minimizatuz.
- **2. Helburua (III. Artikulua):** Matrize polimerikoaren pisu molekularrak lignina-hidrogelen propietateetan duen eragina aztertzea, hidrogelak aurretik ondorioztatutako baldintza optimoetatik abiatuta sintetizatuz.
- **3. Helburua (IV. Artikulua):** Hainbat prozesu eta material lignozelulosikotatik abiatuz ligninak erauztea eta karakterizatzea, eta hauek hidrogelen sintesirako erabiltzea.
- **4. Helburua (V. Artikulua):** Lignina komertzial eta erauzitako ligninen eraldaketa kimikoa eta karakterizazioa burutu ondoren, hobetutako propietateak dituzten hidrogelen sintesirako erabiltzea.
- **5. Helburua (III, IV eta V. Artikuluak):** Sintetizaturiko hidrogelek hainbat aplikaziotarako duten baliagarritasuna ikertzea: kutsatutako uren tratamendurako (kutsatzaileak xurgatzeko), ontzi aktiboetarako (material antifungikoen moduan, esaterako) eta biomedikuntzarako (botiken askapena eta biobateragarritasuna).

2.2 Erronka nagusiak

Tesi honen erronka nagusiak ligninaren egitura ezezagunaren eta bere jatorri eta erauzketa metodoaren araberako aldakortasunaren ondorio dira. Gainera, bere pisu molekular handia eta eragozpen esterikoa direla eta, biopolimero honekin lan egitea neketsua eta erronkaria da. Bestalde, jakina da materialen sintesian kanpoko parametro askoren eragina izan ohi dela, batzuetan kontrolaezinak direnak, baina eragin handia izan dezaketenak produktuen lorpenean eta ezaugarrietan. Beraz, parametro horien eragina identifikatzea eta hautematea ere erronka handia da.

Aurrekoa kontuan hartuta, material berrien sintesia are zailagoa da lignina erabiltzen denean. Beraz, tesi hau zuloz betetako bide bat bezala aurkezten da, arreta eta kontu handiz gurutzatu beharko dena.



3 Metodologia

Argitalpen guztietarako erreaktibo komertzialak hornitu bezala erabili ziren. Informazio zehatzagoa **Atxikitako Argitalpenetan** irakur daiteke.

3.1 Lehengaiak

IV eta V. Artikuluetan erabilitako almendra azalak (AS) (Marcona motakoak) bertako baserritarrek emanak izan ziren eta intxaur azalak (WNS), berriz, Olagi sagardotegiak (Altzaga, Gipuzkoa) emandakoak.

3.2 Lehengaien karakterizazioa

Azalen konposizioa aurrez deskribatutako metodoen bidez aztertu zen [74]. Hezetasun, errauts eta etanol-tolueno erauzgarrien kopurua zehazteko TAPPI arauak erabili ziren (TAPPI T264-om-88, TAPPI T211-om-02 eta TAPPI T204-cm-97, hurrenez hurren). Klason lignina eta karbohidrato edukia National Renewable Energy Laboratory-k (NREL) deskribatutako TP-510-42618 protokoloaren bidez zehaztu ziren. Protokolo hau bi etapako hidrolisi azido kuantitatiboaz (QAH) osatzen da: lehena, solidoa pisuan %72ko purutasuna duen H_2SO_4-arekin ordubetez 30 ºC-ra mantenduz, eta bigarrena, pisuan %4ko purutasuna duen H_2SO_4-arekin ordubetez 121 ºC-ra mantenduz. QAHren ondoren berreskuratu zen fase solidoa grabimetrikoki neurtu zen eta Klason ligninatzat hartu zen, fase likidoa, berriz, azukreak (glukosa, xilosa eta arabinosa), azido galakturonikoa eta azido azetikoa kuantifikatzeko, bereizmen handiko kromatografia likidoaren bidez (HPLC) aztertu zen. Azidotan disolbagarria den lignina (ASL) espektrofotometrikoki zehaztu zen (TAPPI UM250-um-83). Analisi guztiak hiru aldiz errepikatu ziren.

3.3 Ligninaren erauzketa eta eraldaketarako prozedurak

Tesi honetako **Atxikitako Argitalpen** bakoitzean erabilitako ligninak eskema honetan deskribatzen dira:



3.1 Irudia. Tesi honetan erabilitako lignina lagin guztien laburpen eskematikoa.

3.3.1 Almendra eta intxaur azaletatik eratorritako ligninen erauzketa

IV eta V. Artikuluetan ikus daitekeen bezala, almendra eta intxaur azalak ehotu eta bahetu egin ziren 2 eta 1 mm arteko partikula tamaina lortu arte. Ondoren, 3.2 Irudian ikus daitekeen bezala, azal mota bakoitzak bi prozesu ezberdin jasan zituzten: batetik, deslignifikazio hutsez osatutako prozesua, eta, bestetik, aurretratamendu etapa batek (autohidrolisia) eta ondorengo deslignifikazio etapa batek osatutakoa.

Bi lehengaien autohidrolisia aurrez egindako ikerketen arabera egin zen [74,75]. Almendra azalak 8 g H_2O/g AS lehorreko disolbatzaile-solido ratioa (LSR) mantenduz 179 ºC-ra berotu ziren 4848 Parr kontrolatzailedun 1,5 L-ko altzairu herdoilgaitzeko erreaktore batean, 23 minutuz aipaturiko tenperaturan mantenduz. Intxaur azalak, berriz, LSR berdina mantenduz, 200 ºC-ra berotu ziren erregimen ez-isotermoan, hau da, tenperatura honetara

iritsi bezain laster hoztuz. Tratamenduen ondoren, solidoak urarekin garbitu ziren eta 50 ºC-ra lehortu ziren.



3.2 Irudia. Fruitu lehorren azaletatik eratorritako ligninak erauzteko prozeduraren eskema.

Lehengaien deslignifikazioa ere aurrez egindako ikerketen arabera egin zen. Almendra eta intxaur azalei tratamendu alkalino nahiz organosolv tratamenduak aplikatu zitzaizkien. Tratamendu alkalinoa aurrez tratatutako nahiz tratatu gabeko azalak pisuan %7,5 NaOH disoluzio batekin nahasi ziren 6 g/g LSR ratioa mantenduz. Ondoren, 121 ºC-ra berotu ziren autoklabe batean 90 minutuz. Organosolv tratamenduak LSR eta denbora berdina mantenduz egin ziren, baina kasu honetan azalak bolumenean %70eko etanol/H_2O disoluzio bat erabiliz eta aurretik deskribatutako erreaktorean 200 ºC-ra berotuz.

Deslignifikazio prozesuen ondoren, nahasketak iragazi egin ziren eta likore beltzeko ligninak hauspeatu egin ziren. Tratamendu alkalinoen kasuan, %96ko purutasuna duen H_2SO_4-a gehitu zitzaion likoreari honek pH=2 izan arte, eta organosolv tratamenduaren kasuan, aldiz, azidifikaturiko uraren (pH=2)

bolumen bikoitza erabiliz (likorearen bolumena kontuan izanik). Hauspeakina iragazi eta ur distilatuaz garbitu zen pH neutrora arte. Azkenik, ligninak 50 ºC-ra lehortu ziren 24-48 orduz.

3.3.2 Isolaturiko ligninen eraldaketa

V. Artikulurako, IV. Artikuluan lortutako ligninak eta lignina komertzialak erabili ziren. Konkretuki bi etapaz osaturiko prozesuetatik erauzitako lignina organosolv eta alkalinoak erabili ziren. Lignina alkalinoek mikrouhinen (flexiWAVE, Milestone Srl) bidezko peroxidazio prozesu bat jasan zuten hidrogeno peroxidoa erabiliz (H_2O_2), Infante *et al.* (2007)-ek deskribatu bezala [76]. Labur esanda, lignina eta H_2O_2-a presio altuko ontzi batean sartu ziren 10 ml H_2O_2/lignina g-ko LSR-a mantenduz. Ontzia ongi itxi ondoren, 1100 W-ko 10 segundoko iraupeneko hiru irradiazio zikloren eraginpean jarri zen, irradiazioen artean 30 segundoko tartea utziz. Azkenik, ontzia ur destilatuaz garbitu zen eta berreskuratutako nahasketa lehortzen utzi zen berogailu baten gainean.

Organosolv ligninei hidroximetilazio erreakzioa aplikatu zitzaien formaldehidoa erabiliz Chen *et al.* (2020)-ek aipatu bezala [39]. Laburbilduz, 0,6 g lignina NaOH-zko disoluzio baten 140 mL-tan disolbatu ziren. Gero, formaldehidozko 0,495 mL gehitu zitzaizkion disoluzioari eta hau 80 ºC-ra berotu eta 3,5 orduz erreakzionatzen utzi zen irabiaketa magnetikoa eta kondentsadorea erabiliz. Ondoren, eraldatutako lignina %2ko azido klorhidrikozko disoluzio bat erabiliz hauspeatu, iragazi, neutralizatu eta lehortu egin zen.

3.4 Hidrogelen sintesia

Hidrogel guztien sintesiko lehen pausua berdina izan zen (3.3 Irudia). Lehenik, pisuan %2 NaOH duen disoluzio batean kasu bakoitzari zegokion polibinil alkohola (PVA) gehitu zitzaion, 80–90 ºC-ra berotu eta magnetikoki irabiatuz

polimeroa guztiz disolbatu arte. Ondoren, kasu bakoitzari zegokion lignina kopurua gehitu zitzaion aurreko disoluzioari, hau ere magnetikoki irabiatuz lignina guztiz disolbatu arte. Nahasketa hauek silikonazko moldeetara isuri ziren kopuru jakinetan, disoluzioan harrapatutako burbuilak moldeak ultrasoinuen bainu batean sartuz eta, azalean gelditutakoak, berriz, eskuz orratz batekin zulatuz.



3.3 Irudia. Hidrogelen sintesiko 1. urratsaren adierazpen grafikoa.

Sintesiaren bigarren zatia (3.4 Irudia) **II. Artikuluan** adierazi bezala optimizatu zen, eta baldintza optimoak hurrengo argitalpenetan erabili ziren. Gurutzaketa fasearen ondoren, hidrogel lagin bakoitza ur destilatuzko 50 mL-tan garbitu zen 27–48 orduz, ur hau denbora tarte jakin batzuen ondoren berrituz, erreakzionatu gabeko lignina eta NaOH hondakinak kanporatzeko asmoz.



3.4 Irudia. Hidrogelen sintesiko 2. urratsaren adierazpen grafikoa.

III. Artikuluan, **II. Artikulutik** ondorioztatutako gurutzaketa optimoa jarraitu zen, izozte eta desizozte zikloen konbinaketaz osatutakoa. Edonola ere, kasu honetan zikloen denbora murriztea erabaki zen, eta prozedura hau hurrengo argitalpenetan (**IV.** eta **V. Artikuluak**) ere erabili zen.

IV. Artikuluan, hidrogelen sintesirako erabilitako ligninak fruitu lehorren azaletatik erauzi ziren 3.3.1 Atalean eta 3.5 Irudian azaldu bezala. Kasu honetan, aurreko paragrafoan azaldutako zikloen iraupenaren murrizketa aplikatzeaz gain, azken desizozte prozesuaren eragina aztertu zen, honen iraupena 24 ordura luzatuz.



3.5 Irudia. IV. Artikuluko prozedura esperimentalaren azalpen eskematikoa.

V. Artikuluan, erabilitako ligninak 3.3.2 atalean deskribatu bezala eraldatutakoak izan ziren. Horrez gain, sintesiaren bigarren zatia gurutzaketa ziklo motzen bidezkoa izan zen, **III.** eta **IV. Artikuluetan** egindakoaren antzera.

3.5 Karakterizazio metodoak

3.1 Taula. Artikulu bakoitzean erabilitako karakterizazio metodoak.

Analisia	Argitalpena			
	II	III	IV	V
Purutasuna	-	-	L	L
Azidotan disolbagarria den lignina (ASL)	-	-	L	L
Konposizioa (Py-GC/MS)	-	-	L	-
Batez besteko pisu molekularra (HPSEC)	-	-	L	L
Konposatu fenolikoen eduki totala (TPC)	-	-	L	L
Degradazio termikoa (TGA)	HG, L	HG	L	L
Kristalinitatea (XRD)	HG, L	HG	L	L
Egitura kimikoa (ATR-FTIR)	HG, L	HG	L	L
Lignina galera	HG	HG	HG	HG
Ur-xurgatze gaitasuna	HG	HG	HG	HG
Morfologia (SEM)	HG	HG	HG	HG
Propietate termikoak (DSC)	HG, L	HG	HG	HG
Konpresio saiakuntzak	HG	HG	HG	HG

L: Lignina; HG: Hidrogelak

3.5.1 Ligninaren karakterizaziorako metodo orokorrak

3.5.1.1 Purutasuna

Erauzitako ligninen purutasuna Dávila *et al.* (2017)-ek deskribatu bezala zehaztu zen [77], Klason lignina eta azidotan disolbagarria den lignina aintzat hartuz. Ligninei bi urratseko hidrolisi azido kuantitatibo (QAH) bat aplikatu zitzaien, lehenik pisuan %72ko purutasuna duen H_2SO_4-arekin ordubetez 30 ºC-ra mantenduz, eta ondoren, pisuan %12ko purutasuna duen H_2SO_4-arekin ordubetez 121 ºC-ra mantenduz. Jarraian, laginak iragazi ziren eta berreskuraturiko fase solidoa Klason ligninatzat hartu zen. Fase likidoak HPLC teknikaren bidez aztertu ziren monosakarido (glukosa, xilosa eta arabinosa), azido galakturoniko, azido azetiko eta degradazio produktuen (hidroximetil furfurala eta furfurala) zehaztapenerako.

ASL edukia, aurretik aipatu bezala, espektrofotometriaren bidez zehaztu zen, Jasco UV-Vis 730 espektrofotometro bat erabiliz. QAH-an bereizitako fase likidoak 1 M H_2SO_4-rekin diluitu ziren, 205 nm-tan neurtutako absorbantzia 0,1 eta 0,8 artean kokatu arte (TAPPI UM250 um-83). Kalkuluak egiteko, 3.1 Ekuazioa erabili zen, non Abs_{250nm} laginaren absorbantzia den 205 nm-tan (1 M H_2SO_4-aren absorbantzia 205 nm-tan erreferentziatzat hartuz), DF diluzio faktorea den, VF iragazitakoaren bolumena den, ε ligninaren extintzio koefizientea den 205 nm-tan (110 L·cm/g) eta DM_i laginaren pisua den QAH-a baino lehen (g lehorretan).

$$ASL\ (\%) = \frac{Abs_{250nm} \cdot DF \cdot VF}{\varepsilon \cdot DM_i} \cdot 100 \qquad \text{(3.1 Ekuazioa)}$$

3.5.1.2 Pisu molekularra

Ligninen batez besteko pisu molekularra pisuan (M_w) eta kopuruan (M_n), eta polidispertsitate indizeak tamainaren araberako bereizmen handiko kromatografiaren (HPSEC) bidez zehaztu ziren. Horretarako, Jasco LC Net

II/ADC kromatografo bat erabili zen, errefrakzio-indizearen detektagailuduna eta Varian Polymer Laboratories-en bi PolarGel-M zutabe seriean dituena (300 mm × 7,5 mm). Ligninak litio bromurodun (%0,1) dimetilformamidazko fase mugikorrean disolbatu ziren analisietarako. Funtzionamendu-baldintzak hauek izan ziren: 20 µL-ko injekzio bolumena, 0,7 mL/min-ko fluxua eta 40 °C. Kalibraketa zuzena pisu molekular ezberdineko poliestirenozko patroiak (62.500–266 g/mol, Sigma Aldrich) erabiliz eraiki zen.

3.5.1.3 Konposizio analisiak

Pirolisi-Gasen kromatografia/Masen Espektrometria (Py-GC/MS) teknika erabili zen ligninen konposizio analisietarako. Honetarako, Pyroprobe 5150 (CDS Analytical Inc.) pirolizatzaile bat erabili zen, Agilent 6890 gas kromatografo batekin eta aldi berean Agilent 5973 (Agilent Technologies Inc.) masa espektrometro batekin konektatuta zegoena, Dávila *et al.* (2017)-ek adierazi bezala [77]. Gas kromatografoak 30 m × 0.25 mm × 0.25 µm-ko lodieradun HP-5MS ((%5 fenil)-metilpolisiloxano)-zko zutabe bat zuen eta helioa erabili zen gas garraiatzaile moduan. Pirolisia 600 °C-tan (15 s) egin zen 20 °C/ms-ko abiadurarekin eta interfazea 260 ºC-ra mantenduz. Gas kromatografoaren berogailua 50 ºC-tik (2 min) 120 ºC-ra (5 min), gero 280 ºC-ra (8 min) eta azkenik 300 ºC-ra (10 min) 10 ºC/min-ko abiaduraz berotzeko programatu zen. Konposatuak euren masa espektroak National Institute of Standards Library-ren (NIST) eta literaturan aurkitutako konposatuenekin alderatuz identifikatu ziren.

3.5.1.4 Konposatu fenolikoen eduki totala (TPC)

Lignina laginak dimetil sulfoxidoan (DMSO) disolbatu ziren TPC analisietarako. Hauek Folin-Ciocalteau metodo espektrofotometrikoaren bidez zehaztu ziren [75]. Labur esanda, lehenik, kalibraketa zuzen bat eraiki zen, absorbantzia neurriak eta konposatu fenolikoen edukiaren arteko erlazionatzeko balio duena. Edukia azido galikoaren baliokideetan eman ohi da (C_{GAE}, mg/L). Beraz,

kalibraketa zuzena azido galikozko kontzentrazio jakinezko (0-200 ppm) disoluzioak erabiliz eraiki zen. Neurketetarako, saio-hodi batean lagin edo azido galikozko disoluzioen 300 µL sartu ziren eta ondoren, bolumenean 1/10-eko Folin-Ciocalteau disoluzio baten 2,5 mL gehitu ziren. Ondo nahasi ondoren, pisuan %7,5eko sodio karbonatozko (Na_2CO_3) disoluzio baten 2 mL gehitu ziren, berriro ere ondo nahasiz 50 ºC-ra 5 minutuz inkubatu aurretik. Azkenik, saio-hodiak giro tenperaturaraino epeltzen utzi ziren eta euren absorbantzia neurtu zen 760 nm-ra Jasco UV-Vis 730 espektrofotometro bat erabiliz.

3.5.1.5 Fosforozko Erresonantzia Magnetiko Nuklearra (^{31}P NMR)

V. Artikuluan burututako organosolv ligninen hidroximetilazio erreakzioa egiaztatzeko, ^{31}P NMR teknika erabili zen, Chen *et al.* (2020) eta Meng *et al.* (2020)-ek aipatutakoaren arabera [38,39]. Horretarako, kloroformo deuteratu ($CDCl_3$) eta piridina anhidridozko disoluzio bat prestatu zen bolumenean 1:1,6-ko erlazioa mantenduz. Ondoren, patroia prestatu zen kromo (III) azetilazetonatoa ($Cr(acac)_3$) 5 mg/mL-ko kontzentrazioan aurreko disoluzioari gehituz. Gero, N-hidroxi-5-norborneno-2, 3-azido dikarboxiliko imida (NHND) gehitu zitzaion $Cr(acac)_3$ disoluzioari 18 mg/mL-ko kontzentrazioan.

Laginen 30 mg inguru disolbatu ziren 0,5 mL $CDCl_3$/piridina disoluziotan. Honi 0,1 mL patroi disoluzio gehitu zitzaizkion, eta azkenik, 2-kloro-4,4,5,5-tetrametil-1,3,2-dioxafosfolanozko (TMDP) 0,1 mL gehitu zitzaizkion hidroxilo taldeekin erreakzionatzeko. Laginak nahastu egin ziren eta NMR hodietan sartu ziren analisietarako.

3.5.2 **Hidrogelen karakterizazioa**

3.5.2.1 Lignina galera

Hidrogelen garbiketa prozesuan galdutako lignina kuantifikatzeko asmoz, periodikoki aldatutako uraren laginak gorde ziren. Lagin hauetako lignina kontzentrazioa zehazteko, kalibraketa kurba bat eraiki zen lehenik, pisuan

NaOH %2ko disoluzioa erabiliz, kontzentrazio jakineko lignina disoluzioak prestatuz. Ondoren, disoluzio hauen absorbantzia neurtu zen Jasco UV-Vis 730 espektrofotometro baten bidez, kasu bakoitzean aurretik zehaztutako absorbantzia maximodun uhin luzeran. Honela, absorbantzia balio bakoitza zegokion disoluzioaren kontzentrazioarekin erlazionatu zen, kalibraketa zuzena osatuz. Gero, laginen absorbantzia neurtu zen, kasu bakoitzean erabili beharreko diluzioak eginez. Neurketen emaitzak eta kalibraketa zuzena erabiliz, laginen lignina kontzentrazioa kalkulatu zen, eta garbiketa uraren bolumena kontuan hartuz (50 mL), lignina galera kalkulatu zen.

3.5.2.2 Ur-xurgatze gaitasuna

Hasteko, hidrogelak egoera lehorrean pisatu ziren eta 40 mL ur distilatutan sartu ziren 48 orduz. Ur-xurgatze zinetikarako, hidrogelak denbora tarte jakin batzuen ondoren pisatu ziren, aurretik gainazaleko ura lehortuz. Ur-xurgapena edo *swelling*-a 3.2 Ekuazioaren bitartez kalkulatu zen:

$$Swelling\ (\%) = \frac{m_{swollen} - m_{dry}}{m_{dry}} \cdot 100 \qquad \text{(3.2 Ekuazioa)}$$

non $m_{swollen}$ eta m_{dry} hidrogelen pisua den ura xurgatu ostean eta aurretik, hurrenez hurren.

3.5.2.3 Ekorketazko mikroskopia elektronikoa (SEM)

SEM analisiak hidrogelen morfologia aztertzeko egin ziren. Laginak ur distilatutan 48 orduz murgilduta egon ondoren, -20 ºC-tan izoztu ziren. Jarraian Alpha 1–4 LD gailu batean liofilizatu ziren. Bigarren mailako elektroien irudiak MEB JEOL 7000-F batekin hartu ziren, eta lan baldintzak 5 kV eta 0,1 nA-ko intentsitatea izan ziren. Laginak kobrez estali ziren analisia egin ahal izateko.

3.5.2.4 Konpresio saiakuntzak

Hidrogelei norabide bakarreko konpresio-saiakuntzak egin zitzaizkien euren erresistentzia mekanikoa ebaluatzeko. Horretarako, Instron 5967 makina batean konpresio-osagarri bat ezarri zen, 500 N-ko karga-zelula bat erabiliz eta 2 mm/min-ko zapaltze-abiadurarekin. Ur distilatutan 48 orduz murgildutako hidrogelak 5 x 5 mm-ko lagin karratuetan moztu ziren eta hauek euren hasierako lodieraren %80raino konprimitu ziren. Deformazio ehuneko hau beste lan batzuetan oinarrituz eta konpresio-saiakuntzako aparailuaren mugen arabera hautatu zen. Lagin bakoitzaren konpresio-modulua, G_e, automatikoki kalkulatu zen 3.3 Ekuazioa erabiliz.

$$\sigma = \frac{F}{A} = G_e \cdot \left(\lambda - \frac{1}{\lambda^2}\right) \qquad \text{(3.3 Ekuazioa)}$$

non F aplikatutako indarra den, A laginaren hasierako zeharkako azalera den eta $\lambda = L/L_0$ non L_0 eta L laginaren lodierak diren konpresio saiakuntzaren aurretik eta ondoren, hurrenez hurren.

3.5.3 Metodo orokorrak

3.5.3.1 Islapen total indargetua - Fourierren transformatuaren bidezko espektroskopia infragorria (ATR-FTIR)

Laginen egitura kimikoa ikertzeko, diamantezko leiardun Islapen total indargetua neurtzeko Universal Attenuated Total Reflectance (ATR) osagaidun PerkinElmer Spectrum Two FTIR espektrometro bat erabili zen. Neurketak 600 eta 4000 cm^{-1} artean egin ziren, lagin bakoitzerako guztira 20 ekorketa eginez 8 cm^{-1}-ko bereizmenarekin [78].

3.5.3.2 X izpien difrakzioa (XRD)

X izpien hauts difrakzio-saiakuntzak Phillips X'Pert PRO difraktometro automatiko batekin egin ziren, 40 kV eta 40 mA-tan theta-theta konfigurazioarekin lan eginez. Cu-Kα erradiazio monokromatikoa erabili zen

(λ = 1,5418 Å), baita PIXcel egoera solidoko detektagailu bat ere (luzera aktiboa 2θ 3,347 º-tan). Bildutako datuak giro-tenperaturan 5 eta 80 º arteko 2θ balioetatik hartu ziren, θ laginarekiko X-izpiaren elektroi-sortaren eraso-angelua izanik. Laginak egoera lehor eta birrinduan aztertu ziren. Kristalen gutxi gorabeherako tamaina (*D*) Scherrer ekuazioa (3.4 Ekuazioa) erabiliz kalkulatu zen:

$$D = \frac{k \cdot \lambda}{\beta \cdot cos\ \theta} \qquad \text{(3.4 Ekuazioa)}$$

non *D* eremu ordenatuen tamaina den (nm), *k* Scherrer-en konstantea den (0,9), λ X izpien uhin luzera den (0,154 nm) eta β dagokion Bragg-en angelutik islapenaren erdian dagoen gehieneko zabalera den (ingelesez FWHM), 2θ-n neurtuta [78].

3.5.3.3 Ekorketa diferentzialeko kalorimetria (DSC)

DSC analisiak Mettler Toledo DSC 822 ekipamendu batean egin ziren. Aurrez aluminio kapsuletan pisatutako 3 eta 5 mg arteko laginak -25 ºC-tik 225 ºC-ra berotu ziren 10 ºC/min-eko abiaduraz nitrogenozko ingurune batean oxidazio erreakzioak ekiditeko. Lehenengo beroketa prozesu baten ondoren, hozte prozesu bat eta bigarren berotze prozesu bat ere burutu ziren. Bigarren berotze kurbako bero espezifikoaren aldaketaren inflexio puntua beira trantsizio tenperaturatzat hartu zen (T_g). Gailuaren kalibraketa indiozko patroiaz egin zen.

Hidrogelen kasuan, kristalinitate gradua (χ_c) kristalizazio prozesuko entalpia eta 3.5 ekuazioaren bitartez kalkulatu zen:

$$\chi_c = \frac{\Delta H}{\Delta H_0 \cdot (1 - m_{filler})} \cdot 100 \qquad \text{(3.5 Ekuazioa)}$$

non ΔH kristalizazio edo fusio entalpia den, ΔH_0 %100 kristalinoa den PVA-ren fusio entalpia den (bataz besteko balioa: 161.6 J/g) eta $(1 - m_{filler})$ hidrogelen PVA-zko masaren ehunekoa den [78].

3.5.3.4 Analisi termograbimetrikoa (TGA)

TGA analisietarako TGA/SDTA RSI analyzer 851 Mettler Toledo ekipamendu bat erabili zen. Aluminiozko kapsuletan 3 eta 5 mg arteko laginak pisatu ziren eta 25 °C-tik 800 °C-ra berotu ziren nitrogenozko ingurune batean 10 °C/min-ko abiaduran.

3.6 Hidrogelen aplikazioak aztertzeko metodo espezifikoak

3.6.1 Metileno-urdina xurgatzeko ahalmena

III eta **IV. Artikuluetan** hidrogelek metileno-urdina (MB) xurgatzeko duten ahalmena ikertu zen [79]. Horretarako, 1 mg/L-ko MB disoluzio bat prestatu zen eta hydrogel lehor zatiak (0.5 g inguru) disoluzio honen 15 mL-tan murgildu ziren. Esperimentu hauek era estatikoan burutu ziren giro-tenperaturan 24-48 orduz. Ondoren, kalibraketa zuzen bat diseinatu zen kontzentrazio jakineko zenbait MB disoluzio erabiliz (0.25–5 mg/L) eta euren absorbantzia Jasco UV-Vis 630/730 espektrofotometro baten bitartez neurtuz 665 nm-tan. Honela, absorbantzien emaitzak disoluzioen kontzentrazioekin erlazionatuz kalibraketa zuzena eraiki zen. Laginen MB xurgatze saiakuntzen ostean, hasierako eta amaierako disoluzioen absorbantziak neurtu ziren, eta kalibraketa zuzenaren bitartez euren kontzentrazioak ere bai. Azkenik, xurgatze-errendimendua kalkulatu zen 3.6 Ekuazioa erabiliz:

$$Q_e \left(\frac{mg_{MB}}{g_{HG}}\right) = \frac{C_0 - C_{eq}}{m \cdot V} \qquad \text{(3.6 Ekuazioa)}$$

non C_0 hasierako MB disoluzioaren kontzentrazioa den, C_{eq} MB disoluzioaren amaierako kontzentrazioa den, V lagin bakoitza murgiltzeko erabili den disoluzioaren bolumena den eta m hidrogel lehorraren pisua den.

Xurgatutako MB-aren ehunekoa 3.7 Ekuazioaren bidez kalkulatu zen:

$$P(\%) = \frac{C_0 - C_{eq}}{C_0} \cdot 100 \qquad \text{(3.7 Ekuazioa)}$$

non P xurgatutako MB disoluzioaren ehunekoa den eta gainontzeko aldagaiak 3.6 Ekuazioarentzat definitutakoen berdinak diren.

3.6.2 Gaitasun antifungikoa neurtzeko saiakuntza

IV. Artikuluan, laginen gaitasun antifungikoa aztertu zen Salaberria *et al.* (2017) eta da Silva *et al.* (2018)-ek adierazitako protokoloetan oinarrituz [80,81]. Labur esanda, *Aspergillus niger* (CBS 554.65) onddoa 7 egunez patata eta dextrosazko agarrez (PDA) estalitako Petri ontzietan hazi ondoren (25 ºC ± 1,5 ºC-tan), espora batzuk gatz fosfatozko disoluzio indargetzaile (PBS) batean diluitu ziren eta espora kopurua 1,21x10^6 espora/ml-ko kontzentraziora doitu zen, zelulen kontaketarako Cellometer® Mini aparailua erabiliz. Ondoren, prozedura laginaren arabera moldatu zen.

Lignina laginen kasuan, laginak DMSO-n disolbatu ziren (75–100 mg/mL-ko kontzentrazioan) eta ondoren, lagin bakoitzeko 40 µL igaro zen PDA-z estalitako Petri ontzi batera, tantaren ingurua, spray baten bidez, onddoaren disoluzioaz inokulatuz. *Kontrola* edo *zuria* deritzoguna, DMSO purua erabiliz egin zen [81]. Hidrogel laginen kasuan, berriz, 1 cm x 1 cm inguruko laukitxoak ezarri ziren Petri ontzien PDA-ren gainean, behin PDA onddoaren disoluzioaz inokulatu ostean. *Kontrola* edo *zuria* PVA hutsezko hydrogel bat erabiliz egin zen. Analisi bakoitza bitan errepikatu zen.

7 egunez 25 ºC ± 1,5 ºC-ra inkubatu ondoren, lignina laginen kasuan onddoaren hazkundearen inhibizioa (GI) bisualki ebaluatu zen ISO 846-ko eskala numerikoaren arabera (3.2 Taula) [81]. Hidrogelen kasuan aldiz, laginak agar gainetik kendu eta 1 mL PBS-rekin garbitu ziren, honekin bildutako esporak Eppendorf batean jasoz.

3.2 Taula. Onddoaren GI-aren ebaluaketa bisualerako eskala ISO 846-aren arabera.

GI	Ebaluaketa
0	Ez dago ageriko nahiz handipeneko hazkunderik
1	Ez dago ageriko hazkunderik baina handipenaren bidez ikus daiteke
2	Azaleraren %25erainoko hazkunde ikusgarria
3	Azaleraren %50erainoko hazkunde ikusgarria
4	Azaleraren %75erainoko hazkunde ikusgarria
5	Azaleraren %75a baino gehiago hartzen duen hazkunde bizia

Ondoren, Eppendorfetan jasotako disoluzioak tripano urdinaren 5 µL erabiliz urdinez tindatu eta ongi nahastu ondoren, espora kontzentrazioa neurtu zen aurretik aipatutako gailuaz [80]. Laginen hazkunde fungikoaren inhibizioa (FGI) 3.8 Ekuazioaren bidez kalkulatu zen [80]:

$$FGI(\%) = \frac{C_g - T_g}{C_g} \cdot 100 \qquad \text{(3.8 Ekuazioa)}$$

non C_g *kontrol* laginen bataz besteko espora kontzentrazioa den eta T_g aztertutako laginen bataz besteko espora kontzentrazioa den, biak espora/mL-tan adierazita.

3.6.3 Kertzetinaren erauzketa eta karakterizazioa

3.6 Irudia. Tipula gorrien azalak.

V. Artikuluan adierazitako kertzetinaren erauzketarako George *et al.* (2019) eta Jin *et al.* (2011)-ek aipatutako metodoak konbinatu ziren [82,83]. Lehenik eta behin, etxe-hondakinetatik ateratako tipula gorrien azalak uretan garbitu, 50 ºC-tan lehortu eta xehatu egin ziren. Gero,

kertzetina eta beste konposatu batzuk erauzi ziren mikrouhinen bidez (flexiWAVE, Milestone Srl) aurretik egindako esperimentu batzuen emaitzetan oinarrituta (azaldu gabeko datuak), Jin *et al.* (2011)-ek adierazitako mikrouhinen potentzia aldatuz. Erauzketa bolumenean %70eko etanol disoluzio bat erabiliz eta 40:1-eko LSR-a mantenduz egin zen. Erradiazio-denbora 10 segundokoa izan zen eta potentzia 375 W-etan finkatu zen. Erreakzioaren iraupena 2 minutukoa izan zen, erradiazio eta erradiazio artean 20 segundoko tartea utziz. Erreakzioaren ostean, fase solidoa iragazi egin zen eta fase likidoa kontzentratu egin zen, etanola biraketa-lurrungailuaz kenduz. Matrazean gelditutako disoluzio akuosoa kertzetina estraktu bezala izendatu zen (QE).

Kertzetina estraktuaren kontzentrazioa Jasco UV-Vis espektrofotometro baten bidez zehaztu zen. Horretarako, kalibraketa zuzen bat eraiki zen kertzetina komertzialezko (CQE) kontzentrazio jakineko zenbait disoluzio erabiliz eta hauen absorbantzia 375 nm-ra neurtuz [83]. QE liofilizatu egin zen eta ATR-FTIR teknikaren bidez lortutako espektroa CQE-aren espektroarekin alderatu zen. Erauzketa-errendimendua QE-aren solido edukiaren (konposatu ez-hegazkorrak) bidez kalkulatu zen. Honetarako, estraktuaren 2 mL pisatu ziren ontzi lehorretan eta 24 orduz lehortu ziren 105 ºC-tan. Ondoren, ontziak epeldu eta berriro ere pisatu ziren, solido edukia 3.9 Ekuazioaren bidez kalkulatuz:

$$Yield(\%) = \frac{m_f - m_r}{m_i - m_r} \cdot 100 \qquad \text{(3.9 Ekuazioa)}$$

non m_r ontzi lehorraren masa den, m_i ontziaren masa den estraktuaren 2 mL gehitu ondoren eta m_f ontziaren pisua den 24 orduz estraktua lehortzen utzi ondoren, aldagai guztiak gramotan adieraziz.

QE-aren karakterizazio sakonago bat egin zen honen flabonoide eta konposatu fenolikoen eduki totala neurtuz (TFC eta TPC, hurrenez hurren). TPC-a 3.5.1.4

Atalean ligninarentzat deskribatu bezala egin zen, baina kasu honetan DMSO-a metanolez ordezkatu zen Sillero *et al.* (2019)-ek azaldu bezala [23]. TFC-aren kasuan aluminio kloruroaren ($AlCl_3$) kolorimetria saiakuntza burutu zen, kertzetina komertziala patroitzat erabiliz [82,84] eta Sillero *et al.* (2019)-ek deskribatutako metodoa jarraituz [23]. Laburbilduz, aurrez diluitutako estraktuaren 2 mL pisuan $NaNO_2$ %5eko disoluzio baten 0,3 mL-rekin nahastu zen. 5 minuturen ostean, pisuan $AlCl_3$ %10eko disoluzio baten 0,3 mL gehitu zitzaizkion eta beste 6 minuturen ondoren, NaOH 1N disoluzio baten 2 mL gehitu zitzaizkion nahasketa neutralizatzeko. 5 minuturen ostean, nahasketaren absorbantzia neurtu zen Jasco UV-Vis espektrofotometro batean 415 nm-ko uhin luzeran. Emaitzak estraktu lehorraren gramo bakoitzeko dauden kertzetina baliokideen miligramotan eman ziren (kertzetina baliokideen mg/estraktu lehor g).

3.6.4 Kertzetinaren xurgapen eta askapen saiakuntzak

V. Artikulurako, hidrogelak kertzetinaz hornitu ziren gero honen askapenaren zinetika aztertzeko. Horretarako, hidrogel lagin lehorrak (≈ 0,5 g) QE diluituzko (1 mL QE/250 mL ur distilatu) disoluzioan murgildu ziren 24 orduz. Denbora honetan xurgatutako QE kopurua hasiera eta amaierako disoluzioen kontzentrazioak konparatuz kalkulatu zen [82]. Hidrogelak lehortu ondoren, pisatu egin ziren eta PBS-zko disoluzio batean murgildu ziren ondoren 37 ºC-tan (*in vitro* baldintzak simulatuz) 24 orduz. QE askapen zinetikarako denbora tarte jakin batzuen ondoren disoluzioaren absorbantzia (eta ondorioz, QE kontzentrazioa) neurtuz estimatu zen. Esperimentu guztiak hirutan errepikatu ziren. Emaitzak zerogarren maila, lehen maila, Korsmeyer–Peppas eta Higuchi (3.10-3.13 Ekuazioak) eredu zinetikoetan aplikatu ziren, hidrogelek QE-a askatzeko jarraitzen duten mekanismoa ulertzeko asmoz [82,85,86].

$$F = k_0 \cdot t \qquad \text{(3.10 Ekuazioa)}$$

$$\ln(1 - F) = -k_1 \cdot t \qquad \text{(3.11 Ekuazioa)}$$

$$\frac{M_t}{M_\infty} = k_{kp} \cdot t^n \qquad \text{(3.12 Ekuazioa)}$$

$$F = k_h \cdot t^{1/2} \qquad \text{(3.13 Ekuazioa)}$$

non *F,* t denbora jakin batera askatutako QE den, k_0, k_1, k_{kp} and k_h zerogarren maila, lehen maila, Korsmeyer-Peppas eta Higuchi ereduetako erreakzio abiadura-konstanteak diren, hurrenez hurren, eta *n* difusio berretzailea den.

3.6.5 *In-Vitro* Biobateragarritasun saiakuntzak

Hidrogelen *in vitro* biobateragarritasun probak Marmarako Unibertsitateko Industria Bioteknologiaren eta Sistemen Biologiaren Ikerketa Taldeko Laborategian egin ziren, Bioingeniaritza Sailean. Esperimentuen etapa guztiak ahalik eta esterilitate baldintza handienetan egin ziren bitarteko eta ekipo esterilekin, onddo, bakterio edo legamiek eragindako edozein kutsadura saihesteko.

3.6.5.1 Laginen esterilizazioa

Hidrogelak PBS-zko disoluziotan utzi ziren 48 orduz (hau xurgatuz), eta ondoren, bolumenean %70 den etanola eta UV izpiekin ordu batez, eta %2an Penizilina-Estreptomizina zuen PBS disoluzio batez 2 orduz esterilizatu ziren. Gero, PBS soilezko disoluzioaz garbitu ziren eta DMEM-z (Dulbecco's Modified Eagle Medium) saturatu ziren esperimentuak hasi aurretik.

3.6.5.2 Zelulen ereite eta ugaltze saiakuntza

Zelula-ugalketaren probetarako giza fibroblasto dermikoen zelulak erabili ziren (PCS-201-012). Labur esanda, izoztutako zelulak berehala desizoztu ziren, eta DMEM inguruarekin batera (%10eko behi-fetu-seruma (FBS) eta %1eko penizilina-estreptomizina zuena) zentrifugatu zen. Sedimentu zelularra

hazkuntza zelularreko T25 matraze batean erein zen, inkubagailu batean zelulen finkapena eta hazkundea ahalbidetzeko, %5eko CO_2 baldintzetan eta 37 ºC-tan. Zelulen bateratzea gertatu ostean, azpi-kultiboko protokolo bat aplikatu zen. Horretarako, hazkuntza-ingurunea xurgatu eta zelulak PBS-z bi aldiz garbitu ziren. Tripsina-EDTA erreaktiboaren 1 mL gehitu zitzaien zelulei eta inkubagailu batean pare bat minutuz inkubatu ziren. Atxikimendu zelularra hautsi ondoren, matrazeetan DMEM ingurua gehitu zen, eta zelulen suspentsioa 2000 rpm-ra zentrifugatu zen 5 minutuz. Ondoren, sedimentu zelularra berreseki zen eta T75 (TPP) kultibo zelularreko matrazeetara igaro zen hazkunde zelularrerako. Zelula kopuru egokia lortu zenean, lehen deskribatu bezala askatu ziren, eta zelula horiek zelula zenbaketarako tripan urdinez tindatu ondoren mikroskopio baten laguntzaz zenbatu ziren.



3.7 Irudia. Zelulen ereite eta ugaltze saiakuntzaren azalpen eskematikoa.

Ondoren, 3.7 Irudian adierazten den bezala, aurretik esterilizatu eta zelulen hazkuntza-inguruz asetako hidrogeletan erein ziren 96 putzuko plakan, $15x10^4$ zelula/putzuko dentsitatean, eta 24, 48 eta 72 orduz inkubatu ziren. Inkubazio denboraren amaieran, zelulei WST-1 disoluzioa gehitu zitzaien ((4-[3-(4-iodofenil)-2-(4-nitrofenil)-2H-5-tetrazolio]-1,3-benzenedisulfonatoa) (1:10 v/v), eta beste 2 orduz inkubatu zen, ondoren, absorbantzia Biotek Cytation 3 mikroplaka-irakurgailu baten bidez neurtu zen 450 nm-tan.

3.6.5.3 Zelulen bideragarritasunen kalkuluak

Laginen bideragarritasunak ondorengo prozedura jarraituz kalkulatu ziren:

a. Lagin guztien absorbantziak irakurri ondoren, bideragarritasun-ehuneko bihurtu ziren, kontrol-zelulen putzuaren xurgapena erreferentziatzat hartuta (%100eko bideragarritasuna).
b. Balio atipikoak Grubbs-en probaren bidez detektatu ziren (3.14 Ekuazioa), datu-serie bakoitzaren batez besteko balioa eta desbiderapen estandarra kontuan hartuz.

$$Z = \frac{|x_{mean} - x|}{SD} \qquad \text{(3.14 Ekuazioa)}$$

non x_{mean} datu-seriearen batezbesteko balioa den, x balio susmagarria den eta SD datu-seriearen desbideratze estandarra den. Kalkulatutako Z-ren balioa aztertutako datu kopuruarentzako taulatutako balio kritikoa baino handiagoa bada, aukeratutako balioa atipikoa dela kontsideratzen da. Handiagoa ez bada, aldiz, balio hori kalkuluetarako aintzat hartu beharko da.

c. 48 eta 72 ordu ondoren egindako esperimentuetarako ere bideragarritasunak 24 ordu ondorengo kontrol-laginaren absorbantzia erreferentziatzat hartuta kalkulatu ziren.
d. Esperimentuak 24 orduz baino gehiagoz egin ziren kasuetan, laginen bideragarritasunen bigarren hurbilketa bat egin zen, lagin zurien absorbantziak (PVA hutsezko hidrogelenak, B1 eta B2 laginak) kontrol gisa hartuz.

Emaitzak eta eztabaida

4

4 Emaitzak eta eztabaida

Tesi honetan, ligninan oinarrituriko hidrogelak sintetizatu dira material eta formulazio desberdinak konbinatuz. Lehenik eta behin, sintesi-prozedura optimizatu zen sei sintesi-ibilbide desberdinetarako diseinu esperimental bat eta erantzun-gainazalaren metodologia (RSM) erabiliz. Hemendik ondorioztaturiko baldintza optimoak hidrogel berrien sintesirako erabili ziren. Kasu honetan pisu molekular desberdineko matrize polimerikoak (PVA) erabili ziren, hidrogelen propietateengan parametro honek zuen eragina aztertzeko. Gero, baldintza berberak aplikatu ziren fruitu lehorren azaletatik erauzitako ligninan oinarrituriko hidrogelen garapenerako, eta baita kimikoki eraldatutako ligninetan oinarriturikoenak ere. Emaitza horiek guztiak artikulu desberdinetan argitaratu badira ere, aurkikuntza nagusien laburpena atal hauetan antolatu da:

4.1 Ligninen karakterizazioa

4.2 Ligninan oinarrituriko hidrogelen sintesiaren optimizazioa

4.3 Formulazio parametro desberdinek hidrogelen propietateengan duten eragina

- 4.3.1 Lehortze mota
- 4.3.2 PVA-ren pisu molekularra eta izozte-desizozte ziklo kopurua
- 4.3.3 Lignina mota
- 4.3.4 Izozte-desizozte zikloen iraupena
- 4.3.5 Ligninaren eraldaketa mota

4.4 Sintetizaturiko lignina-hidrogelen aplikazioak

- 4.4.1 Tindagaien xurgapena
- 4.4.2. Propietate antifungikoak
- 4.4.3 Botiken askapena
- 4.4.4 Biobateragarritasuna



4.1 Irudia. Artikulu desberdinetan egindako esperimentuen laburpen eskematikoa.

4.1 Ligninen karakterizazioa

4.1.1 Lignina komertzialak eta erauzitako ligninak

4.1.1.1 Purutasuna

4.1 Taulan ikusten den bezala, purutasun-emaitzak, oro har, handiagoak izan ziren organosolv ligninen kasuan alkalinoen kasuan baino; izan ere, organosolv erauzketen selektibitatea handiagoa izan ohi da [87]. Lignina komertzialek %92 inguruko purutasunak izan zituzten. Autohidrolisirik gabeko organosolv ligninek (AOL eta WOL laginek) ere %90etik gorako purutasuna izan zuten, eta alkalinoek, berriz, %59 baino gutxiagokoa. Hala ere, lehengaiaren autohidrolisia egin ondoren, lignina alkalinoen purutasunak %88-95era igo ziren; organosolv-en kasuan, berriz, igoera hori %3-5ekoa baino ez zen izan. Beraz, esan daiteke autohidrolisiak lignina alkalinoen purutasuna hobetzen duela bereziki [77].

4.1.1.2 Pisu molekularra

HPSEC azterketetatik lignina alkalino komertziala organosolv-a baino askoz homogeneoagoa zela ikusi zen, azken horrek oso pisu molekular (M_w) altua baitzuen, ez ohikoa organosolv ligninetan (4.1 Taula). Autohidrolisirik gabeko fruitu lehor azaletako organosolv ligninek ere alkalinoek baino M_w altuagoa izan zuten. Etapa bikoitzeko prozesutik zetozen ligninen kasuan (autohidrolisidunak), aldiz, aurkako portaera ikusi zen. Antzeko joera hauteman zen polidispertsitate indizeetan. Gainera, autohidrolisi tratamenduak batez besteko pisu molekularrak areagotzen zituela ikusi zen, bai kopuruan eta baita pisuan ere. Aipatzekoa da organosolv lignina guztien M_W-a oso antzekoa izan zela, eta lignina alkalinoen kasuan, berriz, izugarrizko aldea zegoela. Hala ere, purutasun-ehunekoak eta aurreko lanak kontuan hartuta [88], baliteke emaitza horiek, AAL eta WAL laginetan aztertutako lignina-frakzioetarako, lignina-lagin guztiaren adierazgarri ez izatea.

4.1 Taula. Ligninen purutasun, HPSEC, TPC eta TGA azterketen emaitzen laburpena.

Lagina	Deskribapena	Purutasuna (%)	M_w [a] (g/mol)	M_n [b] (g/mol)	M_w/M_n [c]	TPC (% GAE[d])	T_{max} [e] (ºC)
CAL	Lignina alkalino komertziala	91,5	9333	1365	6,8	20,3	379
COL	Organosolv lignina komertziala	92,5	32933	1123	29,3	19,3	343
AAL	AS lignina alkalinoa	58,2	4770	1109	4,3	13,8	307
AOL	AS organosolv lignina	90,4	8301	1072	7,8	15,6	389
WAL	WNS lignina alkalinoa	49,4	4761	1054	4,5	10,6	295
WOL	WNS organosolv lignina	92,7	6371	1246	5,1	16,5	388
AAAL	Autohidrolizaturiko AS lignina alkalinoa	88,2	12793	1528	8,4	33,1	355
AAOL	Autohidrolizaturiko AS organosolv lignina	95,2	9020	1520	5,9	26,2	357
AWAL	Autohidrolizaturiko WNS lignina alkalinoa	95,7	16670	1604	10,4	33,8	354
AWOL	Autohidrolizaturiko WNS organosolv lignina	95,2	7644	1359	5,6	27,2	365
MCAL	Eraldatutako CAL	91,9	12141	1718	7,1	25,8	396
MCOL	Eraldatutako COL	96,5	32997	968	34,07	21,5	390
MAAAL	Eraldatutako MAAAL	85,2	17675	1348	13,1	25,3	384
MAAOL	Eraldatutako MAAOL	92,3	9557	1636	5,8	20,4	383
MAWAL	Eraldatutako AWAL	84,0	19939	1369	14,6	27,6	384
MAWOL	Eraldatutako AWOL	83,6	8187	1420	5,8	23,6	383

[a] M_w: batez besteko pisu molekularra pisuan; [b] M_n: batez besteko pisu molekularra kopuruan; [c] M_w/M_n: polidispertsitate indizea; [d] % GAE: azido galikoaren baliokideen ehunekoa; [e] T_{max}: TG/DTGA kurbetatik lorturiko gehieneko degradazio-tenperatura.

4.1.1.3 Konposatu fenolikoen eduki totala (TPC)

Konposatu fenolikoen eduki totalaren emaitzei dagokienez (4.1 Taula), fruitu lehorren azalak zuzenean deslignifikatzearen ondorioz lortutako lignina (AAL, AOL, WAL eta WOL) laginen balioak bi urratseko prozesutik eratorritakoenak (AAAL, AAOL, AWAL eta AWOL) edota lignina komertzialenak baino askoz baxuagoak izan zirela ikusi zen. Fenomeno hau euren purutasunarekin lotuta egon daiteke [89]. Dávila *et al.* (2019)-ek iradoki bezala, aurretratamendu hidrotermiko bat erabakigarria izan daiteke ligninan eduki fenoliko handiak lortzeko [89].

4.1.1.4 Analisi termograbimetrikoa (TGA)

Ligninen degradazio termikoko kurbetatik (4.2 Irudia) 4.1 Taulan azaltzen diren gehieneko degradazio-tenperaturak detektatu ahal izan ziren. Lagin guztiek 100 ºC-tik beherako degradazio etapa bat zuten hasieran, hezetasuna lurruntzeari zegokiona. Honen ondoren, lignina alkalino komertzialak bigarren degradazio-urrats jasan zuen, degradazio handieneko etapa izan zena, 379 ºC inguruan. Degradazio hori erauzitako laginetan ere ikusi zen, baina etapa bakarreko prozesuen bidez lortutako lignina alkalinoek (AAL eta WAL) gehieneko degradazio-tenperatura 300 ºC ingurukoa izan zuten bitartean, organosolv ligninena nabarmen handiagoa izan zen (390 ºC). Hala ere, organosolv lignina komertzialak degradazio-fase bat izan zuen degradazio handieneko etapa baino lehen, eta azken hau 343 ºC inguruan detektatu zen, erauzitako organosolv laginek erakutsitakoa baino txikiagoa. Egonkortasun termikoaren murrizketa ezpurutasun kopuru handiari egotzi ohi zaio, baita pisu molekular txikiko frakzioei ere [77,90]. Etapa bikoitzeko prozesuetatik eratorritako ligninek antzeko degradazio-tenperatura maximoak izan zituzten (354-365 ºC), etapa bakarreko prozesuko ligninenen artean zeudenak eta aurreko emaitzekin bat zetozenak [75]. Tenperatura tarte honetan, β–O–4 eter loturen zatiketa gertatzen da, eta ondoren, C-C loturen eta eraztun aromatikoen zatiketa eman ohi da [90]. Hirugarren degradazio-etapa bat ikusi

zen, 420 ºC inguruan, baina tenperatura hori berriz ere txikiagoa izan zen AAL eta WAL laginentzat (390 ºC) eta handiagoa AOL eta WOL laginentzat (470 ºC). Azken hauek pisu galera konstantea izan zuten gero, hasierako pisuaren %37ra iristeraino. Gainerako laginek laugarren degradazio-etapa bat izan zuten, 700 ºC inguruan, eta hasierako pisuaren %20 eta %29 arteko hondakin bat sortu zen, *biochar* deiturikoa. Azken etapa hau ligninaren produktu lurrunkorren demetoxilazio edo kondentsazio erreakzioekin lotuta egon liteke [90], eta utzitako *biochar* kopuruak aurretik aipatutakoen antzekoak izan ziren [75].



4.2 Irudia. Tesi honetan erabilitako jatorrizko a) lignina alkalinoen eta b)organosolv ligninen TGA kurbak.

4.1.1.5 Islapen total indargetua - Fourierren transformatuaren bidezko espektroskopia infragorria (ATR-FTIR)

Erabilitako ligninen talde funtzional nagusiak ATR-FTIR teknikaren bidez zehaztu ziren (4.3 eta 4.4 Irudiak). Erregistratutako espektro guztiek ligninen ohiko bandak aurkeztu zituzten arren (4.2 Taula) [74,89,91–94], horietako batzuen intentsitateak lagin batetik bestera aldatu ziren.

4.2 Taula. Ligninaren ATR-FTIR espektroaren banda bereizgarrienak.

Uhin zenbakia (cm^{-1})	Esleipena
3460-3215	-OH taldeen luzatze-bibrazioa
2998-2947	Alkilo taldeen bibrazio asimetrikoa
2913-2827	C-H aromatikoen luzatze-bibrazioa
1710	Konjugatu gabeko C=O taldeen luzatze-bibrazioa
1679-1650	C=O ester lotura
1597	C=C taldeen luzatze-bibrazioa
1513	C=C aromatikoen bibrazioa
1456	Metilo taldeen C-H lotura
1429	Egitura aromatikoen bibrazioa
1325-1269	G and S unitateen arnasketa + ez-purutasunak
1215	Metil eter aromatikoak
1100	C–C loturak
1157-1030	C-O loturen luzatze-bibrazioa + ez-purutasunak
975	Planoz kanpoko –HC=CH bibrazioa
910-896	C–H loturen deformazio-bibrazioa
865	C-C loturen luzatze-bibrazioa
832-317	-CH aromatikoen planoz kanpoko bibrazioa + β-glukosidiko loturak

Lignina komertzialen artean, desberdintasun nagusienak 1330, 1265 eta 840 cm^{-1} inguruko bandetan aurkitu ziren, S eta G unitateen aldakuntzari eta ezpurutasunei egotz dakiekeena. Erauzitako ligninen artean, 2827-2998 cm^{-1} tartean aldaketa nabarmenak ikusi ziren, ligninaren eta polisakaridoen C-H luzatze-bibrazioari dagozkionak [91], eta nabarmenagoak izan ziren lignina alkalinozko laginentzat, ziur asko azukre-unitate gehiago zutelako. 1650 cm^{-1}-ean, etapa bakarreko ligninentzat C=O konjugatuen luzatze-bibrazioari dagokion banda bat detektatu zen [91], baina autohidrolisidun laginetan desagertu egin zen. Nahiz eta autore batzuek aurretik banda hau prozesu

alkalinoekin lotu [95], AAL, WAL, AOL eta WOL ligninetan ezpurutasunak egoteari egotz dakiokeela uste da.



4.3 Irudia. Tesi honetan erabilitako jatorrizko lignina alkalinoen ATR-FTIR espektroak.



4.4 Irudia. Tesi honetan erabilitako jatorrizko organosolv ligninen ATR-FTIR espektroak.

Fingerprint edo hatz-marka eremuan (1500-600 cm^{-1}) banden intentsitatearen aldaketa nagusiak ikusi ziren. AAL eta WAL laginetan, adibidez, kondentsaturiko siringilo edo guaiazilo unitateen arnasketari esleitutako banden intentsitatea nabarmen murriztu zen (1325 cm^{-1}) [92,96] eta baita ligninaren metil eter aromatikoena ere (1215 cm^{-1}) [91]. 1157, 1080, 975 eta 896 cm^{-1}-ra kokatutako banden intentsitatea, aldiz, areagotu egin zen. Seinale hauek, ester taldeen C–O luzatze-bibrazioari [92,96], bigarren mailako alkoholen eta eter alifatikoen C–O deformazioari, planoz kanpoko –HC=CH eta C – H deformazio bibrazioei dagozkie, hurrenez hurren [92].

4.1.1.6 Konposizio analisiak (Py-GC/MS)

Py-GC/MS analisietatik abiatuta zehaztu ziren konposatuak 4.3 Taulan azaltzen dira. Erauzitako ligninen pirogramek hasierako minutuetan (3-7 min) erakutsitako seinaleak ezpurutasunetatik eratorritako degradazio-konposatuei zegozkien (furfurala, adibidez) [75], purutasun baxuko lignina-laginetan (AAL eta WAL) bereziki ikus zitezkeenak. Hala, 7-23 minutuko tartean identifikatutako konposatuak egitura aromatikoaren jatorriaren arabera (*p*-hidroxifenilo (H), guaiakol (G) eta siringol (S)) multzokatu ziren [74,75,92,94].

Identifikatutako konposatuen artean, guaiakola, 4-metilguaiakola, siringola eta 4-metilsiringola izan ziren ugarienak lignina lagin guztietan, bereziki CAL laginean, non guaiakola izan zen konposatu nagusia. 4-etilguaiakola eta 4-binilguaiakola lagin guztietan topatu ziren kopuru handitan. *p*-hidroxifenilo unitatetik zetozen konposatuak, fenola, *p*-cresola eta *p*-etilfenola kasu, intxaur azaletatik (WNS) isolaturiko ligninetan ugariagoak zirela antzeman zen. Beste konposatu batzuk, banillina esaterako, organosolv ligninetan baino ez ziren topatu, eta 4-propilguaiakola lignina hauetan eta CAL laginean agertu zen. S unitatetik eratorritako konposatu batzuk, 4-metilsiringola, 4-etilsiringola eta 4-binilsiringola barne, erauzitako ligninetan bakarrik detektatu ziren, erauzketa prozesuarekin nolabaiteko lotura izan dezakeela iradokiz.

4.3 Taula. Jatorrizko ligninentzat Py-GC/MS bidez hautemandako konposatuen identifikazioa eta ugaritasuna (azalera erlatiboa, %).

Denbora (min)	Konposatua	Jatorria	Lignina Lagina									
			CAL	COL	AAL	AOL	WAL	WOL	AAAL	AAOL	AWAL	AWOL
7,5-7,7	Fenola	H	1,80	3,85	1,62	0,98	6,56	3,29	1,16	-	4,26	2,95
8,7-8,9	*o*-Kresola	H	1,60	0,79	1,53	1,04	2,42	1,22	1,80	1,14	1,66	1,21
9,0-9,2	*p*-Kresol	H	1,55	1,71	1,82	1,62	5,22	5,31	1,39	0,92	4,58	4,12
9,3-9,5	Guaiakola	G	38,40	9,65	13,62	11,80	9,30	8,91	17,14	7,40	11,72	7,56
10,4	2,6-Dimetil fenola	H	-	-	1,68	1,38	1,45	1,53	1,95	1,77	1,44	1,52
10,7-10,8	*p*-Etilfenola	H	-	-	0,74	-	2,40	1,66	0,54	-	1,71	1,43
11,0-11,1	3-Metilguaiakola	G	1,85	0,63	2,08	1,35	0,94	1,29	3,90	1,17	2,28	1,24
11,7-11,9	Katekola	S	2,70	1,27	0,64	-	0,35	-	-	-	0,40	-
11,4-11,6	4-Metilguaiakola	G	5,07	3,87	9,75	12,74	5,23	10,86	15,19	8,08	10,07	7,73
13,3-13,5	3-Metoxikatekola	S	-	3,06	0,19	3,29	0,95	4,22	2,56	3,67	4,39	4,33
13,8-14,0	4-Etilguaiakola	G	4,02	4,58	7,78	5,67	3,80	5,15	8,82	3,63	7,09	3,79
15,0-15,2	4-Binilguaiakola	G	8,15	18,74	6,94	7,16	3,76	5,77	4,52	3,00	3,51	3,10
16,1-16,2	Siringola	S	1,98	8,07	7,45	9,69	3,96	10,57	8,13	5,42	16,52	7,18
16,3	3,4-Dimetoxifenola	S	-	0,90	1,69	1,87	0,64	2,55	1,82	0,88		2,13
16,3-16,4	4-Propilguaiakola	G	0,86	0,52	-	1,48	-	1,34	-	0,88	-	0,94
17,1-17,3	Banillina	G	-	0,86	-	0,82	-	0,80	-	0,71	-	0,63
17,4	cis-Isoeugenola	G	4,83	1,18	1,12	1,70	0,34	1,60	1,19	0,85	1,35	0,84
18,3	4-Metilsiringola	S	-	-	4,75	12,03	2,69	13,66	5,94	6,80	9,23	7,54
18,8-19,0	Azetobanillona	G	4,22	-	-	0,85	-	1,23	0,26	0,97	0,49	-
19,6	4-Etilsiringola	S	-	-	1,02	1,28	0,78	1,95	1,16	0,82	2,47	0,90
20,2-20,8	4-Binilsiringola	S	-	-	0,23	1,92	0,24	1,72	0,62	0,73	0,87	0,96
21,6	Siringaldehidoa	S	0,70	-	-	1,20	0,47	0,62	0,40	1,65	0,16	2,56
22,1	4-Allilsiringola	S	0,93	2,27	0,51	2,09	0,83	2,11	0,50	0,40	0,51	1,56
22,5	Acetosiringona	S	1,82	-	0,13	2,03	0,87	0,86	0,34	1,45	0,17	2,44
23	Azido homosiringikoa	S	0,89	-	-	1,07	-	0,42	0,15	0,64	-	1,30
	S totala		9,03	15,57	16,60	36,48	11,78	38,67	21,62	22,47	34,72	30,90
	G totala		67,40	40,02	41,29	43,59	23,37	36,96	51,04	26,70	36,51	25,83
	S/G ratioa		0,13	0,39	0,40	0,84	0,50	1,05	0,42	0,84	0,95	1,20

Zenbatetsitako S/G erlazioei dagokienez, lagin guztiek G unitate gehiago izan zituztela esan daiteke, WOL eta AWOL laginek izan ezik. Horrela, S/G erlazio ia guztiak 1 baino txikiagokoak izan ziren. Lignina komertzialek erakutsi zituzten S/G baliorik txikienak, eta ondoren, almendra azaletatik (AS) eratorritako lignina alkalinoek. Hala ere, erlazio hori areagotu egin zen etapa bakarreko prozesuko ligninetatik bi etapako prozesukoetara pasatzerakoan, eta gertaera hau sakonago aztertuko da azalpen zentzudun bat aurkitzeko. Edonola ere, balio horiek aurretik lortutakoekin alderatuz [74,75], nahiko desberdinak direla esan daiteke, lehengaien osaerarekin edota erauzketa-prozesuko edozein aldaketarekin zuzenki lotuta egon litekeena.

4.1.2 Eraldatutako ligninak

4.1.2.1 Purutasuna

4.1 Taulan ikus daitekeen bezala, eraldatutako ligninen purutasunak (komertzial nahiz erauzitakoena), eraldaketa-metodoa edozein izanik, behera egin zuen, erauzitako ligninetan bereziki. Gertaera hau erabilitako erreaktiboen ondorio izan liteke.

4.1.2.2 Pisu molekularra

Jatorrizko ligninekin alderatuta, eraldatutako ligninen batez besteko pisu molekularrek gora egin zuten kasu guztietan, batez ere lignina alkalinoetan. Eraldatutako lignina alkalino erauzien eta organosolv lignina komertzialaren kasuan, kopuruan batez besteko pisu molekularrak (M_n) murriztu egin ziren eta horrek polidispertsitate indizea handitzea ekarri zuen. Organosolv lignina komertzialari dagokionez, bere bertsio eraldatua (MCOL) lignina eraldaturik heterogeneoena izan zen berriro ere, erauzitako jatorrizko eta eraldatutako organosolv ligninak (AAOL, AWOL, MAAOL eta MAWOL) homogeneoenak izan ziren bitartean.

Peroxidazio erreakzioak lignina zatikatzen duela suposatzen den arren, kateen ehuneko handi batek, dirudienez, birkondentsazio erreakzioak jasan zituen,

honen ondorioz, eraldatutako lignina alkalinoen batez besteko pisu molekular totalak handitu zirelarik.

Bestalde, hidroximetilaturiko ligninen pisu molekularren banaketek (**V. Artikuluko** datu osagarriak) eta estimatutako batez besteko pisu molekularrek eraldaketa arrakastaz gertatu zela iradoki zuten [97]. Nahiz eta ligninen polidispertsitate indizeen aldaketak ez izan lignina homogeneoagoak lortu izanaren adierazgarri, pisu molekularren banaketek pisu molekular handieneko frakzioak pisu molekular txikiagokoetara homogeneizatzeko joera erakutsi zuten. Portaera hau beste autore batzuek ere ikusi zuten [98]. Horrez gain, MAAOL eta MAWOL laginetan pisu eta kopuruan batez besteko pisu molekularraren igoera ikusi zen, eta hori ere autore berek aurretik antzemandakoa da belar ligninentzat [98].

4.1.2.3 Konposatu fenolikoen eduki totala (TPC)

Lignina alkalino peroxidatuen kasuan, eduki fenoliko totalaren aldaketak ligninaren eraztun aromatikoen degradazioa iradoki zuen [76,99]. Hala ere, MCAL laginak kontrako joera aurkeztu zuen, eta horrek hasierako pH desberdintasunekin izan lezake zerikusia. Xinping *et al.* (2010)-en emaitzen arabera [99], erreakzioak baldintza alkalinoetan degradazio-konposatu gehiago sor litzake [41], baina Infante *et al.* (2007)-ek katalizatzailerik gabe ere efektu berdina ere lor zitekeela erakutsi zuten, eta erreakzio hau azken autore hauen arabera burutu zen [76].

Lignina hidroximetilatuen kasuan, lignina komertzialean izan ezik, TPC-an jaitsiera txiki bat ikusi zen, eraztun aromatikoen oxidazioari egotz dakiokeena.

4.1.2.4 Analisi termograbimetrikoa (TGA)

Eraldatutako lagin guztien egonkortasun termikoa aldatu egin zen eraldaketa-erreakzioen ondorioz (4.5 Irudia). Izan ere, gehieneko degradazio-tenperatura handiagotu egin zen kasu guztietan. Hala ere, lignina alkalinoen kasuan, beste degradazio-fase bat agertu zen hezetasunaren lurrunketari dagokion etaparen

(< 100 ºC) eta degradazio handieneko etaparen artean. Etapa hori 300 ºC inguruan detektatu zen, eta eraldaketa-erreakzioren ondorioz sortutako ligninaren pisu molekular txikieneko frakzioei egotzi zitzaien [77,90].



4.5. Irudia. Eraldatutako a) lignina alkalinoen eta b) organosolv ligninen TGA kurbak.

Gainera, organosolv ligninak termikoki egonkorragoak zirela ikusi zen, hau da, lignina alkalinoak baino tenperatura altuagoetara hasi zirela pisua galtzen, nahiz eta euren degradazio-tenperatura maximoak apur bat baxuagoak izan. Jatorrizko ligninekin alderatuta, eraldatutako organosolv ligninek

egonkortasun termiko handiagoa eta amaierako hondakin handiagoa izan zuten, beste egile batzuek ere ikusi bezala [39]. Gainera, sortutako *biochar* guztiak laginaren hasierako pisuaren %40 inguru izan arren, eraldatutako organosolv ligninek alkalinoek baino hondakin handiagoak utzi zituzten, jatorrizko ligninekin gertatu ez bezala, eta hori ligninaren eraldaketa- eta prezipitazio-etapei egotz dakieke.

4.1.2.5 *Islapen total indargetua - Fourierren transformatuaren bidezko espektroskopia infragorria (ATR-FTIR)*



4.6 Irudia. Eraldatutako lignina alkalinoen ATR-FTIR espektroak.

Eraldatutako ligninen ATR-FTIR espektroetan, euren egituran aldaketaren bat iradokitzen zuten seinale batzuk agertu ziren. Lignina peroxidatuen kasuan, espektroen 1600-1730 cm^{-1} arteko diferentziek erreakzioa baieztatu zuten (4.6 Irudia). Izan ere, 1710 cm^{-1} inguruko banda uhin zenbaki altuagoetara mugitu zen kasu guztietan, alboko kateen -OH oxidazioari egotzi zitzaiona, 1599 cm^{-1}-ko seinalea ahultzearekin batera, C=C aromatikoaren luzatze-bibrazioari dagokiona. Gainera, Infante *et al.* (2010)-ek aipatu bezala, 1640 cm^{-1} inguruko

bandaren agerpena eraztun aromatikoen degradazioaren adierazgarri izan zen [76].



4.7 Irudia. Eraldatutako organosolv ligninen ATR-FTIR espektroak.

Bestalde, 4.7 Irudian ikusten den bezala, lignina hidroximetilatuen kasuan, -OH bandaren areagotzeak (3400 cm^{-1}), C-H loturari dagokionak (2930 cm^{-1} inguruan), metoxilo eta hidroximetilo taldeei dagokienak (2850 cm^{-1} inguruan) eta C-OH alifatikoen C-O eta C-OH alifatikoen C-O loturaren luzatze-bibrazioarekin lotutakoak (1030 cm^{-1} inguruan) erreakzioari esker hidroximetilo taldeak gehitu izanaren seinale garbiak izan ziren [39,97]. Horrez gain, 3660 cm^{-1}-eko banda leunaren agerpenak lignina eraldatuen egituraren barruan -OH talde askeak egotea iradoki zuen [100]. Ondorioz, espektroek erreakzioaren arrakasta baieztatu zuten. Emaitza horiek bat datoz ^{31}P RMN analisietan lortutakoekin. Analisi horietan, erreakzioaren ostean, lagin guztietan hidroxilo alifatikoen 150 eta 145,4 ppm arteko seinalea handitu zela ikusi zen [39] (**V. Argitalpeneko** datu osagarriak).

4.1.3 Ondorioak

Atal honetan tesi guztian zehar erabilitako organosolv nahiz alkalinoak diren lignina komertzialak, erauziak eta eraldatuak karakterizatu dira. Erauzitako ligninak almendra eta intxaur oskoletatik isolatu ziren bi bio-findegi-estrategia desberdinen bidez: deslignifikazio-prozesu bakar baten bidez eta urrats bikoitzeko prozesu baten bidez, autohidrolisi-etapa batek eta deslignifikazio-etapa baten konbinaketaz osatua. Ligninen karakterizazioak desberdintasun nabarmenak erakutsi zituen laginen artean, batez ere konposizioan, batezbesteko pisu molekularretan eta eduki fenoliko totaletan. Espero bezala, autohidrolisiak ligninen purutasuna hobetu zuen, bereziki alkalinoen kasuan, eta pisu molekular altuagoak zituzten ligninak ateratzea ere sustatu zuen. Ligninen eraldaketak erabilitako karakterizazio tekniken bidez berretsi ziren. Hauek batez besteko pisu molekular altuagoak eragin zituzten, eta, beraz, baita termikoki egonkorragoak ziren ligninak ere.

4.2 Ligninan oinarrituriko hidrogelen sintesiaren optimizazioa

II. Artikuluan erakusten den bezala, ligninan oinarritutako hidrogelen sintesia optimizatzeko, lignina alkalino komertziala (CAL) eta polibinil alkohola (PVA, M_w = 83000- 124000 g/mol, %99+ hidrolizatua) nahastu ziren hiru mailatako eta bi faktoreko diseinu esperimental batek adierazitako kontzentrazioetan, erdiguneko puntuaren hiru errepikapenarekin. Ondoren, erantzun-gainazalaren metodologia (RSM) erabili zen lignina-hidrogelen sintesiaren baldintzak modelizatzeko eta optimizatzeko.

Hidrogel guztiak 3.4 Atalean deskribatu bezala prestatu ziren, eta nahasketei hiru gurutzaketa-metodo (XL) desberdin aplikatu zitzaizkien: 3 eta 5 izozte-desizozte ziklo (16 h 20 ºC-tan eta 8 h 28 ºC-tan) eta 37 ºC-ko huts-kanpai baten barruan (60 cm Hg) astebetez. Gurutzaketa-etaparen ondoren, hidrogelak bereizita garbitu ziren, eta, ondoren, erdiak giro-tenperaturan lehortzen utzi ziren, eta beste erdiak hutsean lehortu ziren (60 cm Hg) 27 ºC-tan. Konposizio optimoak zituzten hidrogelak aurrekoen antzera prestatu ziren, zegozkien lignina eta PVA kantitate optimoak erabiliz. 4.8 Irudian ondorengo sei sintesi-ibilbideak irudikatzen dira:

(1) Hutseko XL + Giro-lehorketa (Vac–Air)
(2) Hutseko XL + Hutseko lehorketa (Vac–Vac)
(3) 5 Izozte-desizozte ziklozko XL + Giro-lehorketa (F–T x5–Air)
(4) 5 Izozte-desizozte ziklozko XL + Hutseko lehorketa (F–T x5–Vac)
(5) 3 Izozte-desizozte ziklozko XL + Giro-lehorketa (F–T x3–Air)
(6) 3 Izozte-desizozte ziklozko XL + Hutseko lehorketa (F–T x3–Vac)

Aipatu den bezala, hautatutako aldagai askeak lignina alkalinoa (x_1) eta PVA-ren kontzentrazioak (x_2) izan ziren, %5-25 (p/p) eta %5-11 (p/p) artekoak, hurrenez hurren. Aitzitik, erantzun-aldagaiak hidrogelen ur-xurgatze ahalmena (%, y_1) eta garbiketa-etapako lignina-galera (%, y_2) izan ziren. Hamaika esperimentu diseinatu ziren bide bakoitzerako, hautatutako

parametroen balioak eta erdiko puntua hirukoiztuta kontuan hartuta; beraz, guztira hirurogeita sei esperimentu egin ziren. Optimizazioaren helburua lignina galera minimoa eta ur-xurgatze ahalmen handiena zuten hidrogelak lortzea zen. Ereduak baliozkotzeko, esperimentuak baldintza optimoak erabiliz egin ziren, eta esperimentuetan lortutako emaitzak teorikoki aurreikusitako datuekin alderatu ziren.



4.8 Irudia. Hidrogelak sintetizatzeko sei bideen eskema.

4.2.1 Hidrogelen konposizioa modelizatzea eta optimizatzea

Hidrogel sintetizatuen ur-xurgatze gaitasuna eta lignina-galera neurtu ondoren, Statgraphics Centurion XV softwarearen bidez sei kontzentrazio optimoak kalkulatu ziren. Horiek 4.4 Taulan erakusten dira, erantzun-aldagaien aurreikusitako balioekin batera. Sei bideetarako kalkulatutako baldintza optimoak hidrogelak hirukoiztuta sintetizatuz balioztatu ziren. 4.5 Taulak eredu bakoitzerako lortutako erregresio-koefizienteak erakusten ditu, bigarren mailako ekuazio polinomiko baten arabera, bere esangura estatistikoa (Student-en *t* proban oinarritua), ereduen korrelazioa (R^2) eta esangura estatistikoa (Fisher-en *F* proba) neurtzen dituzten parametroak.

4.5 Taulan erakusten den bezala, aldagai gehienetarako zehaztutako R^2-a 0,86 baino handiagoa izan zen, eta horrek eredua hautatutako aldagaien arteko erlazio errealak irudikatzeko egokia izan zela adierazten du [101], baina beste kasu batzuetan balio hori 0,82 baino txikiagoa izan zen. Gainera, zenbatetsitako esanahi-mailek datuen doikuntza berresten dute. Ekuazioaren termino bakoitzaren balioak beren interakzio linealaren ekarpena eta aldagai independenteen efektu koadratikoak ebaluatzeko kalkulatu ziren. %90eko konfiantza-mailan kalkulatutako erregresio-koefiziente esanguratsuak erabiliz, erregresio koadratikoko bi ekuazio ezarri ziren, bat irteera-aldagai bakoitzarentzat (y_1-Ur-xurgatze gaitasuna eta y_2-Lignina galera), sei modeloentzat. Horrela, hamabi ekuazio lortu ziren guztira, **II. Artikuluan** deskribatzen direnak.

4.2.2 Aldagai askeek ur-xurgatze gaitasunarekiko duten eragina

Ur-xurgatze gaitasunak %314 eta %1647 artekoak ziren, (1) eta (2) ibilbideetako 4. esperimentuei zegokienak, hurrenez hurren. Erregresio-koefizienteen arabera (4.5 Taula), bi sarrera-aldagaiek ur-xurgatze ahalmenean eragina izan zutela ikusi zen. Zehazki, x_2-k eragin esanguratsua izan zuen irteera-aldagai horretan, baita x_1-ren efektu koadratikoak ere (x_1^2). Sarrerako bi aldagaien arteko elkarrekintza ere garrantzitsua izan zen (5) eta (6) ibilbideen kasuan. x_2-ren efektu koadratikoak (x_2^2) eragin handia izan zuen (4) ibilbidean. Ciolacu *et al.* (2018) eta Yang *et al.* (2018)-ek ere ur-xurgatze ahalmena hidrogelen konposizioaren araberakoa dela jakinarazi zuten [68,102].

(1), (2) eta (3) sintesi-ibilbideetarako gainazalen grafikoen arabera (4.9-a, b eta c Irudiak) (4.2), PVA-ren kontzentrazio finko baterako, lignina-edukia handitu ahala hidrogelen ur-xurgatze ahalmena handitu egiten zela erakusten da. Hala ere, lignina kontzentrazio jakin batetik aurrera (> %15), ur-xurgatze ahalmena murriztu egin zen, muturreko lignina kontzentrazioen artean puntu gorena finkatuz.

4.4 Taula. Erantzun-aldagaietarako baldintza optimo eta balio teorikoak eta esperimentalak.

Sintesi Ibilbidea	Lignina Alkalinoa (%, p/p)	PVA (%, p/p)	Aurreikusitako Balioa		Batez besteko balio esperimentala		Errorea (%)	
			Ur-xurgatze gaitasuna (%)	Lignina Galera (%)	Ur-xurgatze gaitasuna (%)	Lignina Galera (%)	Ur-xurgatze gaitasuna (%)	Lignina Galera (%)
(1)	23,02	5	710,29	69,17	345,30	81,16	51,39	-17,34
(2)	22,26	5	1083,59	70,88	199,26	82,75	81,61	-16,74
(3)	9,12	9,87	770,14	58,11	789,89	51,94	-2,57	10,63
(4)	5	10,39	587,82	49,09	567,06	41,06	3,53	16,35
(5)	25	11	719,77	46,71	659,67	45,77	8,35	2,02
(6)	25	11	729,51	46,71	547,93	44,12	24,90	5,55

4.5 Taula. Erregresio-koefizienteak eta ereduen korrelazioa eta esanahia neurtzen dituzten parametro estatistikoak.

	(1) Vac-Air		(2) Vac-Vac		(3) F-T x5-Air		(4) F-T x5-Vac		(5) F-T x3-Air		(6) F-T x3-Vac	
	y_1	y_2	y_1	y_2	y_1	y_2	y_1	y_2	y_1	y_2	y_1	y_2
β_0	778,78	80,99	1144,76	80,99	902,17	69,08	468,74	69,08	552,83	68,70	557,40	68,70
β_1	40,67[b]	-0,93	46,89	-0,93	-56,45	-1,83	-47,17	-1,83	-37,92	-0,87	-66,98	-0,87
β_2	-64,45[a]	-3,34	-146,12	-3,34	-98,37[b]	-10,58[a]	60,89[c]	-10,58[a]	-112,85[b]	-7,15[c]	-0,96	-7,15[c]
β_{11}	-344,30[a]	-10,18[a]	-686,08[a]	-10,18[a]	-241,29[a]	-14,26[a]	95,02[c]	-14,26[a]	55,44	-18,08[b]	105,88	-18,08[b]
β_{22}	42,65	-2,91	100,40	-2,91	-49,67	0,03	-105,90[c]	0,03	43,03	1,91	-52,12	1,91
β_{12}	-16,27	6,19[b]	-26,17	6,19[b]	4,41	1,49	5,72	1,49	219,24[a]	2,20	186,30[b]	2,20
R^2	0,98	0,92	0,86	0,92	0,93	0,90	0,76	0,90	0,89	0,82	0,77	0,82
F-exp	50,93	11,12	5,96	11,12	13,53	9,22	3,24	9,22	8,467	4,44	3,32	4,44
S.L.* (%)	99,97	99,03	96,39	99,03	99,37	98,54	88,87	98,54	98,24	93,61	89,29	93,61

[a] **%99ko konfiantza-mailarako koefiziente esanguratsuak.**
[b] **%95eko konfiantza-mailarako koefiziente esanguratsuak.**
[c] **%90eko konfiantza-mailarako koefiziente esanguratsuak.**
*** Esangura maila (ingelesetik, *Significance Level*)**

Aipatzekoa da, halaber, ur-xurgatze ahalmena handiagoa izan zela PVA-ren kontzentrazio txikiagoetarako, baina lignina-edukiak PVA-renak baino eragin nabarmen handiagoa izan zuen erantzun-aldagai honekiko. Portaera hau ligninaren gai koadratikoak ur-xurgatze-ekuazioetan duen eragin handiaren ondorio bezala azal daiteke [101].

(4), (5) eta (6) sintesi-ibilbideetarako gainazal-grafikoek, PVA-ren kontzentrazio finko baterako, hidrogelen ur-xurgatze ahalmena lignina-edukia handitu ahala murriztu egiten zela erakutsi zuten (4.9-d, e eta f Irudiak). Hala ere, lignina kontzentrazio jakin batetik aurrera (> %15), ur-xurgapen ahalmena berriz ere handitzen hasi zen. Beraz, azalerek minimo bat izan zuten ligninaren muturreko edukien artean, eta puzteko gaitasun handienak goiko eta beheko kontzentrazio-mugetan aurkitu ziren. Edonola ere, hiru azalera horietan ez zen aldagai nagusi argirik ikusi, gai koadratikoek ez baitzuten hain esangura-maila handirik.

Sintesi-ibilbide bakoitzerako balio optimoak 4.4 Taulan ageri dira. Argi ikusi zen lignina gehitzeak, kasu guztietan, ur-xurgatzean efektu positiboa izan zuela. Fenomeno hau, hidrogel zurien sintesi eta karakterizazioari esker baieztatu zen, hau da, %5, 8 eta 11ko PVA kontzentrazioak dituzten PVA puruko hidrogelak aurretik aipatutako sintesi-bide berdinak jarraituz. Material horien ur-xurgapena ez zen %350etik gorakoa izan. Beraz, lignina-hidrogelen ur-xurgatze gaitasun handiak lignina-molekulen tamainari egotz dakioke, pisu molekular handiko kateak baitira eta poro handiagoak sor baitaitezke, ur-molekulak errazago sartzea eta mugitzea ahalbidetuz [102,103]. Ciolacu *et al.* (2018)-ek kimikoki gurutzatutako PVA-lignina hidrogelek ere jokabide bera izan zutela jakinarazi zuten [102]. Yang *et al.* (2018)-ek ere baieztatu zuten ligninak kitosano eta PVA-zko hidrogelen ur-xurgapen ahalmena hobetzen zuela [68].



4.9 Irudia. 1 – 6 sintesi ibilbideetako hidrogelen ur-xurgapenerako lorturiko erantzun-gainazalak (a – f, hurrenez hurren).



4.10 Irudia. a) 1eta 2, b) 3 eta 4, c) 5 eta 6 sintesi ibilbideetako hidrogelen lignina-galeretarako lorturiko erantzun-gainazalak.

4.2.3 Aldagai askeek lignina-galerarekiko duten eragina

Sei ibilbideetatik sintetizatutako hidrogelen lignina-galera %44,5 eta %85 artekoa zen, (5) eta (6) ibilbideetako 3. Esperimentuari eta (1) eta (2) ibilbideetako 5. esperimentuari zegokiena, hurrenez hurren. Ikusi zenez, hutseko gurutzaketarekin alderatuz, izozte-desizozteko metodoari esker, lignina gehiago atxiki ahal izan zen matrizearen barruan.

(1) eta (2) ibilbideetan, lignina-galeran eragin handiena izan zuten erregresio-koefizienteak x_1-ren efektu koadratikoa (x_1^2) eta bi sarrera-aldagaien arteko x_1x_2 interakzioa izan ziren. Beste lau sintesi-bideetan, erregresio-koefiziente esanguratsuenak x_1-ren efektu koadratikoa (x_1^2) eta x_2 bera izan ziren. Beraz, ondoriozta daiteke PVA-ren edukiak eragin zuzena duela lignina-galerarengan. Dakigunez, bibliografian ez da garbiketa-etapako lignina-galerari buruzko daturik jaso hidrogelak karakterizatzeko garaian. Beraz, baieztapen hori ezin da beste lanekin alderatu.

Sintesi-ibilbide guztietako gainazal-grafikoek (4.10 Irudia), PVA-ren kontzentrazio finko baterako, lignina-edukia handitu ahala lignina-galerak gora egiteko joera zutela erakutsi zuten. Portaera hori gune erreaktiboak gehitzearekin eta bi osagaien arteko gurutzaketa-maila handiagoarekin lotuta egon liteke. Lignina kontzentrazio jakin batetik aurrera, ordea, lignina-galera gutxitu egin zen. Sei ibilbideetarako, gutxieneko lignina-galerarako kontzentrazio optimoak 4.4 Taulan adierazten dira.

4.2.4 Sintesirako baldintzen optimizatzea eta ereduaren baliozkotzea

Optimizazioaren helburua sintesi-ibilbide bakoitzerako aldi berean ur-xurgatze gaitasun handiena eta lignina-galera baxuena emango luketen formulazioak zehaztea izan zen. Horretarako, erantzun-aldagaien balioak desiragarritasun-funtzio baten bidez bihurtu ziren. Funtzio honek, ur-xurgatze ahalmena maximizatu eta aldi berean lignina-galera minimizatzen zituzten sintesi-aldagaien konbinazioa baimendu zuen. Baldintza optimoekin sintetizaturiko hidrogelen erantzun-aldagaietarako aurreikusitako emaitzak

eta emaitza esperimentalak 4.4 Taulan azaltzen dira. RSM ereduek iragarpen kuantitatiboetarako zuten egokitasuna sei sintesi-ibilbideetako aurreikusitako balioak eta balio esperimentalak bat etortzearekin egiaztatu zen. Ur-xurgatze gaitasun aldagaiaren erroreak %4tik gorakoak izan ziren kasu guztietan, (3) eta (4) ibilbideetan izan ezik. Bestalde, lignina-galeraren errore txikienak (5) eta (6) ibilbideetan ikusi ziren. Hala ere, ur-xurgapen gaitasunaren zehaztasuna lignina-galerarena baino garrantzitsuagotzat jo zenez, eta optimizazioaren helburuetako bat sintesi-ibilbiderik onena lortzea zenez, (3) eta (4) ibilbideak hautatu ziren bide optimo gisa.

4.2.5 Ondorioak

Atal honetan, ligninan oinarrituriko PVA-zko hidrogelen sintesi-baldintzak arrakastaz optimizatu ziren, hiru maila eta bi faktoreko diseinua erabiliz. Analisi estatistikoak PVA eta lignina kontzentrazioek hidrogelen garbiketa-etapako lignina-galeran eta hauen ur-xurgatze ahalmenean eragin handia zutela frogatu zuen. Hautatutako sintesi-ibilbide optimoak 5 izozte-desizozte ziklotan oinarritutakoak izan ziren eta hauek fisikoki gurutzatutako hidrogelak lortzea ahalbidetu zuten, %800era arteko ur-xurgapen gaitasuna eta %40-50 arteko lignina-galera erakutsi zutenak.

4.3 Formulazio parametro desberdinek hidrogelen propietateengan duten eragina

Atal honetan, zenbait formulazio-parametrok sintetizaturiko hidrogelen propietateengan duten eragina aztertu da. Horretarako, hainbat artikulutan lortutako emaitzak konbinatu dira. Aztertutako parametroak eta atal bakoitzean eztabaidatutako argitalpenak ondorengo taulan laburtzen dira:

4.6 Taula. Aztertutako parametroen eta eztabaida-atal bakoitzean inplikatutako argitalpenen laburpena.

Parametroa	Artikulua			
	II	III	IV	V
Lehortze mota	✓			
PVA-ren M_w/Izozte-desizozte ziklo kopurua		✓		
Lignina mota		✓	✓	
Izozte-desizozte zikloen iraupena	✓	✓	✓	
Ligninaren eraldaketa mota			✓	✓

4.3.1 Lehortze mota

II. Artikuluan ibilbide optimoetatik (4.2 Atala) lortutako laginak (hots, 3 eta 4 laginak) sakonki karakterizatu ziren, PVA soilezko euren lagin bikiekin batera (3.0 eta 4.0 laginak, hurrenez hurren), lehortze motak izandako eragina ikertzeko asmoz.



4.11 Irudia. Hidrogelen ur-xurgapena lehen 48 orduetan.

Lau lagin hauen ur-xurgatze zinetika 4.11 Irudian ikus daiteke. Gainontzeko laginekin alderatuz, 3. Ibilbidea jarraituz lortutako hidrogelak ur-xurgatze gaitasun nabarmen handiagoa izan zuela ikusi zen. Izan ere, 4. Ibilbidea jarraituz lortutako laginak 3 izeneko laginaren xurgatze gaitasunaren ia erdia erakutsi zuen.



4.12 Irudia. 3.0, 4.0 eta 4 laginen SEM mikrografiak 250x (a, c eta e) eta 2500x (b, d eta f) handipenetara.

4.12 Irudian, PVA puruzko eta PVA eta ligninazko hidrogel liofilizatuen SEM mikrografiak erakusten dira, bi handipenetan (250x eta 2500x). Aztertutako lagin guztietan poro handiko egiturak eta poroen tamainaren banaketa desberdinak ikusi ziren. Hala ere, PVA hutseko hidrogelentzat (4.12- a-d

Irudiak) lignina-hidrogelarentzat baino (4.12- e eta f Irudiak) morfologia homogeneoagoa ikusi zen. Gainera, poro handi samar batzuk ere agertu ziren hutsean lehorturiko lignina gabeko laginean (4.0 lagina, 4.12-c eta d Irudiak), eta horrek gurutzaketa-metodoaz gain, lehortze-metodoak morfologiari ere eragin ziola adierazten du [104]. Makroporoek sare polimerikoan ura erraz sartzeko aukera ematen duten arren, hasieran azkar puzteko ahalmena eraginez [103], hemen ez zen hori gertatu; izan ere, lignina-hidrogelek ura puzteko gaitasun handiagoa izan zuten kasu guztietan. Gainera, PVA soilezko hidrogelek aurkeztutako poro gehienak 1 μm-tik beherakoak ziren, eta lignina-hidrogelek aurkeztutakoak, berriz, handiagoak. Gertaera horrek ligninaren pisu molekular handiagatik sortutako poroen tamaina eta honek ur-xurgatze ahalmenean duen eraginari buruzko aurreko baieztapena berretsiko luke [102]. Horrez gain, SEM irudietan ez zen lignina aglomeraturik topatu, eta horrek osagaien arteko nahaskortasun ona berretsi zuen [105].

Laginen TG eta DTG kurbetatik lortutako hasierako eta degradazioko handieneko tenperaturak eta proba-amaierako hondakina 4.7 Taulan laburbiltzen dira. PVA hutseko hidrogelentzako (3.0 eta 4.0), lau pisu-galera etapa ikusi ziren: 150, 250, 375 eta 440 ºC inguruan, barneko uraren lurruntzeari, polimeroaren hasierako degradazioari, polimeroaren unitate azetilatuen eta desazetilatuen despolimerizazioari eta PVA-ren azpiproduktu batzuen degradazio termikoari zegozkienak, hurrenez hurren [68], 375 ºC-koa gehieneko degradazioari zegokiona izanik. Lignina alkalino komertzialak pisu galera konstantea izan zuen; hala ere, degradazio maximoaren tenperatura 380 ºC-an erregistratu zen, eta azken hondakina ia %40an geratu zen. Hidrogelei lignina gehitzean, laginek hiru pisu-galera etapa nagusi izan zituzten (120, 280 eta 430 ºC-tan), baina bigarrenean bi etapa gainjarri zirela ondorioztatu zen. Degradazio-etapa nagusia 330 ºC inguruan agertu zen, baina 280 ºC-koarekin gainjarri zen. Galera hori, PVA puruarenarekin alderatuta, tenperatura altuagoetara mugitu zen, egonkortasun termikoa hobetu baitzen, PVA kateetan ligninaren egitura aromatikoak sartzearen ondorioz [106]. PVA

puruaren hidrogeletarako gehieneko degradazio-tenperaturan aldaketa nabarmenik egon ez zen arren, lignina-hidrogelen kasuan 15 ºC inguruko aldaketa egon zen lehortze-metodoa aldatzean.

4.7 Taula. Laginen hasierako eta degradazioko handieneko tenperaturak, TGA-ren amaierako hondakina eta konpresio modulua.

Lagina	T_{onset} (ºC)	T_{max} (ºC)	Hondakina (%)	Konpresio-modulua (MPa)
CAL	172,0	380,0	39,0	-
3.0	225,0	372,5	2,7	77,57 ± 8,40
4.0	230,5	374,0	2,6	41,64 ± 3,42
3	217,0	323,0	19,5	18,75 ± 0,53
4	223,0	334,5	14,7	29,21 ± 6,18

Laginen konpresio-saiakuntzen emaitzak 4.7 Taulan adierazten dira. Deformazio maximoa jasan ondoren, lagin guztiek osotasuna eta forma berreskuratzeko gaitasun bikaina erakutsi zuten. Horren arrazoia kate polimerikoen berrantolaketak eragindako tentsioaren egokitzapena eta honen ondorioz garatutako indar elastiko erretraktilak izan litezke [107].

3.0 eta 4.0 hidrogel zurietarako zenbatetsitako konpresio-moduluak 77,6 eta 41,7 MPa ingurukoak izan ziren, hurrenez hurren. Laginei lignina gehitu zitzaienean, moduluak 18,8 eta 29,2 MPa ingurura jaitsi ziren 3 eta 4 laginetarako, hurrenez hurren. Beraz, lignina gehitzean, hidrogelen moduluak murriztu egin ziren, eta horrek laginen poroen tamainarekin zerikusia izan lezake, xurgatze-ahalmenerako ondorioztatutakoa berretsiz; hau da, lignina eta PVA nahastean, poro handiagoak sortu ziren, PVA-ren barruko interakzioak gutxitzearen ondorioz, zeinak, aldi berean, uraren xurgapena areagotu zuen, hidrogelaren trinkotasuna eta zurruntasuna murriztuz [68]. Gainera, lehen aipatu bezala, lehortze-metodoak laginen morfologia aldatu zuen eta, ondorioz, konpresio-moduluak aldatu ziren. Hala ere, PVA-lignina laginetarako lortutako moduluak lurzoru-geruzen pisua jasateko bezain altuak izango lirateke, nekazaritzan aplikatu nahi balira, adibidez.

II. Artikuluan adierazten den bezala, gainontzeko karakterizazio teknikek (FTIR, XRD eta DSC), ez zuten informazio garrantzitsu gehiago lortzeko balio izan.

4.3.2 PVA-ren pisu molekularra eta izozte/desizozte zikloen kopurua

PVA-ren pisu molekularrak hidrogel sintetizatuen propietateetan duen eragina aztertzeko, lignina alkalino komertziala eta 3 polibinil alkohol desberdin nahastu ziren (PVA, M_w = 13000-23000 g/mol, %87-89 hidrolizatua; M_w = 83000-124000 g/mol, +%99 hidrolizatua eta M_w = 130000 g/mol, +%99 hidrolizatua). Hidrogelak **II. Artikuluan** aztertutako bide optimoaren (3. ibilbidea) eta 5. ibilbidearen arabera sintetizatu ziren.

Hautatutako erreaktiboen kontzentrazioei esker, pisu molekular ertaineko (MM_w PVA) eta altuko (HM_w PVA) PVA eta lignina alkalinoaren arteko gurutzaketa era arrakastatsuan egin ahal izan zen, 3 eta 5 izozte-desizozte zikloren bidez. Pisu molekular txikiko PVA (LM_w PVA) zuten laginak, ordea, ez ziren gurutzaketa egokirik eragiteko gai izan. Baliteke pisu molekular horretako PVA-k lignina kantitate horrentzako gune erreaktibo gutxiegi izatea [56] edo, baita PVA-ren hidrolisi-mailarengatik ere. Azken hau PVA-ren molekulako azetato taldeen kopuruarekin lotuta dago, PVA aurrepolimerizatuko polibinilo azetatoaren hidrolisitik abiatuz sintetizatzen baita [68,108]. Horrek hidrolisi maila altuko PVA-n azetato talde gutxiago egongo direla esan nahi du, talde horiek eragina izan baitezakete PVA-ren propietate kimikoetan, disolbagarritasunean eta kristalizatzeko gaitasunean [108]. Gainera, azetato taldeen presentziak hurbileko hidroxilo taldeen arteko molekulen barneko nahiz arteko hidrogeno-loturak ahultzen ditu. Soluzioan, hidrolisi-maila handitu ahala, PVA-kateen arteko banaketa-distantzia murriztu egiten da [108]. Beraz, gurutzaketa ez arrakastatsua LM_w PVA-k (%87-89) MM_w eta HM_w PVA-rekin alderatuta (+%99) zuen hidrolisi maila txikiagoari egotz dakioke. Hori kontuan izanik, LM_w PVA-zko laginak baztertuak izan ziren ondorengo azterketetarako. 4.13 Irudian, hidrogelaren matrizearen barne-interakzioen eskema posible bat proposatzen da.



4.13 Irudia. PVA eta ligninaren arteko gurutzaketa posiblearen eskema.

HM_w PVA zuten laginen lignina galera (%69,5 eta %49,5, 3HL eta 5HL laginetarako, hurrenez hurren), MM_w PVA zuten laginena baino txikiagoa izan zen (%77,8 eta %57, 3ML eta 5ML laginetarako, hurrenez hurren). Hau PVA-ren gune erreaktiboen kopuruarekin lotuta egon liteke, hau da, posible litzateke polimero-kate luzeenek ligninarekin lotura handiagoa izatea. Hennink *et al.* (2012)-ek PVA-ren pisu molekularrak sortutako *gel*aren propietateengan eragiten duela aipatu zuten [109]. Gainera, ziklo kopuruak lignina galerari ere eragin zion; izan ere, 3 izozketa-desizozte zikloren bidez sortutako hidrogelek 5 zikloren ondoren sortutakoek baino lignina galera handiagoa izan zuten. Horrek zikloen kopurua handitzerakoan elementuen arteko loturak areagotu egin zirela esan nahiko luke [46,109].

4.14 Irudian ikus daitekeen bezala, 5 izozte-desizozte zikloren bidez lortutako hidrogeletan (%890 eta %790 HM_w eta MM_w PVA laginetarako, hurrenez hurren) 3 zikloren bidez sintetizatutakoetan baino (%380 eta %360 HM_w eta MM_w PVA laginetarako, hurrenez hurren) ur-xurgatze ahalmen nabarmen handiagoa izan zen. Gainera, pisu molekular handieneko PVA zuten hidrogelen kasuan, puzteko ahalmena ere handiena izan zen (≈ %900). Horrek erabilitako PVA-ren pisu molekularra eta ziklo kopurua bezalako parametroen eraginari buruzko aurreko baieztapena indartuko luke [109]. Ziklo kopurua eta PVA-ren pisu molekularra handitu ahala, ligninarekiko interakzioak gehitu eta poro gehiago eta handiagoak sortzea ahalbidetuko luke, eta, beraz, baita ura

xurgatzeko ahalmen handiagoa ere. Wu *et al.* (2019)-ek aipatu zuten lignina kopuru optimo batek PVA-zko sarea erlaxatuago mantenduko lukeela, eta horrek ur-xurgapen handiagoa eragingo lukeela [56]. Era berean, esan beharra dago PVA puruzko hidrogelek ur-xurgatze ahalmen oso txikia zutela (%200-300ekoa), eta ligninak poroen tamaina handitzen duenez, ura sarearen barruan mantentzea ahalbidetzen duela baieztatuko luke [56,102,103].



4.14 Irudia. M_w desberdineko PVA-zko hidrogelen ur-xurgapena lehen 48 orduetan.

4.15 Irudian, SEM teknikaren bidez lortutako irudiak aurkezten dira, 2500x handipenarekin. Hidrogelen mikroegiturek hiru dimentsiotan elkarri konektatutako sare porotsuak erakutsi zituzten. Izozte- eta desizozte-prozesua da egitura porotsu horien arduradun nagusia; izan ere, desizozte-etapan, izoztean hidrogelen barruan sortutako izotz-kristalak urtu egiten dira, laginetan egitura porotsua eta gurutzaketa-maila altua utziz [110]. PVA puruzko laginek egitura porotsu homogeneoagoa erakutsi zuten, polimeroaren pisu molekularra handiagoa eta ziklo kopurua txikiagoa zen heinean poroak handiagoak izanik. Lignina gehitzean, poroen tamainaren banaketa heterogeneoagoa izan zen, eta makroporo asko sortu ziren, ligninak nukleazio-eragile [68] edota bereizgailu gisa funtzionatzen duela uste baita [111].



4.15 Irudia. 3H, 3HL, 3M, 3ML, 5H, 5HL, 5M and 5ML (a–h) laginen SEM irudiak 2500x handipenarekin.

Bereizgailu gisa txertatutako ligninaren portaerak mikrohutsen artean horma finagoak sortu izana azal lezake. Horiek hidrogelen ura atxikitzeko ahalmenari nabarmen lagundu zioten honekin kontaktuan zegoen azalera handiagoa izanik eta, ondorioz, honen difusioari ere lagunduz [103,111].



4.16 Irudia. M_w desberdineko PVA-zko hidrogelen a) TG and b) DTG kurbak.

II. Artikuluan gertatu bezala, TG eta DTG emaitzek antzeko degradazio-profilak erakutsi zituzten PVA puruaren laginetarako (4.16 Irudia). Aurreko kasuan bezala, pisu-galerako lau etapa nagusi ikusi ziren 150, 250, 375 eta 440 °C-tan, eta %3tik beherako hondakina ikusi zen lagin guztietan. Lignina gehitu zenean ere, lau degradazio-etapa nagusi ikusi ziren. Lehenengoa, 150 ° C ingurukoa, hezetasunaren lurruntzeari egotzi zitzaion, eta, PVA puruaren hidrogelen kasuan bezala, ez zen inolako aldaketarik ikusi matrize

polimerikoaren pisu molekularra aldatzean. Bigarrena 280 °C ingurukoa izan zen MM_w PVA zuten laginentzat, eta 290 °C ingurukoa HM_w PVA zutenentzat, eta hori PVA puruzko laginena baino handiagoa izan zen, ligninaren egonkortasun termikoa dela eta, ziurrenik [112]. Hirugarren urratsa, degradazio-urrats nagusia, 330 °C-ra aurkitu zen, eta laugarrena 425 °C-ra; horietan ez zen aldaketa argirik antzeman PVA-ren pisu molekularra aldatzean. Hala ere, lignina gehitzean, amaieran utzitako hondakina nabarmen handitu zen, eta pisu molekular handieneko eta ziklo kopuru handieneko lagina izan zen (5HL) hondakin handiena utzi zuena (%17) eta pisu molekular txikiena eta ziklo gutxien (3ML) izan zituena hondakin txikiena utzi zuena (%12,5). Beraz, lignina gehitzeak eta erabilitako polimero matrizearen ziklo kopurua eta pisu molekularra handitzeak azken hondakin handiagoa eragin zuten.

4.8 Taula. M_w desberdineko PVA-zko hidrogelen konpresio-saiakuntzetako emaitzak.

Lagina	Konpresio-modulua (MPa)
3M	18,13 ± 4,23
3ML	8,77 ± 2,27
3H	28,13 ± 4,4
5M	19,85 ± 2,53
5ML	9,64 ± 4,56
5H	22,06 ± 3,29
5HL	10,32 ± 3,05

Laginen konpresio-saiakuntzek lagin guztiek berreskuratzeko gaitasun ona zutela erakutsi zuten, horietako bat ere ez baitzen hautsi eta osotasun osoa mantendu baitzuten. Kalkulatutako datuak 4.8 Taulan agertzen dira. Ligninarik gabeko laginetarako, konpresio-moduluak 18 eta 28 MPa artekoak izan ziren, eta horietatik baliorik txikienak MM_w PVA (18,13 eta 19,85 MPa 3 eta 5 ziklotako laginentzako, hurrenez hurren) eta HM_w PVA (28,13 eta 22,06 MPa 3 eta 5 ziklotarako, hurrenez hurren). 3 eta 5 ziklo artean, HM_w PVA-zko hidrogelen moduluak jaitsi zirela ikusi zen, baina MM_w PVA-ren kasuan kontrako portaera ikusi zen.

4.3.1 Atalean aipatu bezala, lignina gehitzean, moduluek nabarmen egin zuten behera kasu guztietan (> %50), eta horrek lotura zuzena izan zuen ura

xurgatzeko gaitasun handiarekin. Gainera, moduluen gorakada txiki bat ikusi zen zikloen kopurua handitu zenean, eta hori bat dator MM_w PVA hutseko hidrogeletarako ikusitako joerarekin. Beste autore batzuek ere antzeko portaerak erregistratu dituzte [56,113].

4.3.3 Lignina mota

Atal honetan **III.** eta **IV. Artikuluetan** sintetizatutako hidrogelak hartu dira kontuan. **IV. Artikuluko** hidrogelak erauzitako ligninen bidez sintetizatu ziren, eta horiek AS eta WNS-tik isolatu ziren, 3.3.1 Atalean deskribatzen den bezala. Ondoren, lignina hidrogelak **III. Artikuluaren** arabera sintetizatu ziren, nahasketen kontzentrazioak eta izozte-desizozte zikloen iraupen bera mantenduz.

4.9 Taula. Fruitu lehorren azaletatik eratorritako ligninadun hidrogelen lignina galera.

Lagina	Lignina galera (%)
AA	66,5 ± 2,9
AO	56,2 ± 2,4
WA	68,5 ± 0,7
WO	60,0 ± 1,8
AAA	59,6 ± 2,8
AAO	71,1 ± 3,0
AWA	44,2 ± 1,6
AWO	59,9 ± 4,0

Lignina-galeraren emaitzak 4.9 Taulan ageri dira. Lignina alkalinoz egindako laginen kasuan, urrats bakarreko prozesuetatik eratorritako ligninak (AA eta WA) zituztenek lignina-galera handiagoak izan zituzten bi urratseko prozesuetatik zetozenak (AAA eta AWA) zituztenek baino. Antzeko joera hauteman zen WNS-tik zetozen organosolv ligninen (WO eta AWO) kasuan; aldiz, AS-tik zetozen (AO eta AAO) ligninadun laginen portaera kontrakoa izan zen. Gainera, urrats bakarreko ligninen kasuan, AS ligninetarako WNS-etakoetarako baino galera txikiagoak ikusi ziren (%56,2-66,5 vs. %60,0-68,5), eta urrats bikoitzeko ligninen kasuan, berriz, kontrakoa (%44,2-59,9 vs. %59,6-71,1). Era berean, azpimarratu behar da urrats bakarreko prozesuko ligninak

zituzten laginen artean lignina alkalinoa zutenek organosolv lignina zutenek baino galera handiagoa izan zutela; aldiz, urrats bikoitzeko ligninak zituzten laginek alderantzizko joera erakutsi zuten.

Sintetizatutako hidrogelen ur-xurgatze ahalmena 4.17 Irudian azaltzen da. Laginek %336 eta %505 arteko puzte-balioak izan zituzten, eta AWO eta WA laginei zegozkien, hurrenez hurren. Gainera, lignina alkalinoa zuten laginek ura xurgatzeko gaitasun handiagoa erakutsi zuten kasu guztietan, aurretik emandako datuekin bat etorriz [79].



4.17 Irudia. Fruitu lehorren azaletatik eratorritako ligninadun hidrogelen ur-xurgatze gaitasuna.

Aipatzekoa da urrats bakarreko prozesuetatik zetozen ligninak zituzten laginek urrats bikoitzeko prozesuetatik zetozenak zituztenek baino ura xurgatzeko gaitasun handiagoa erakutsi zutela, ziurrenik haien ezpurutasun eta matrize polimerikoaren artean sortutako interakzioengatik. Wu *et al.* (2019)-ek ur-xurgatze propietateak talde hidroxilo fenolikoen edukiarekin eta erabilitako ligninen pisu molekularrarekin lotu zituzten arren, haien hipotesiak ez luke hidrogelek kasu honetan izandako portaera azalduko [56]. Izan ere, eduki fenoliko total txikiagoa eta batez besteko pisu molekular txikiagoa zuten ligninadun (AA eta WA) laginek ur-xurgatze gaitasun

handiagoa erakutsi zuten. Hala ere, horrek lignina horietarako zehaztutako batez besteko pisu molekularrei buruzko aurreko baieztapena berretsi lezake, baita ezpurutasunen interakzioei buruzkoa ere, lagin horiek lignina-galera handiak izan baitzituzten.

4.18 Irudian hidrogel sintetizatuen morfologia ikus daiteke, SEM bidez aztertua. Lehen begiratuan, lagin guztiek egitura porotsuak zituzten arren, banaketa, tamaina eta dentsitatea desberdinak zirela ikusi zen. Izan ere, urrats bakarreko prozesuetatik eratorritako ligninak zituzten hidrogelei zegozkien lagin guztiak nahiko antzekoak izan ziren, eta abaraska itxurako egitura oso porotsua zuten, ligninadun PVA hidrogeletarako espero zen bezala [79,114–116]. Poroen tamaina eta banaketek nahiko homogeneoak ziruditen, baina mikro-hutsuneen arteko hormak leunagoak eta hauskorragoak ziruditen AA eta WA laginen kasuan, AO eta WO laginetan baino, azken hauek horma lodiagoak erakutsi baitzituzten. Egitura horiek izan ziren xurgatzeko gaitasun handien arduradunak [78].

Urrats bikoitzeko prozesuetatik eratorritako ligninak erabili zirenean, hidrogelek egitura askoz trinkoagoak eta jarraituagoak erakutsi zituzten, ia antzemanezinak ziren poroekin, eta horrek lignina horiekin gurutzaketa-dentsitate altuagoa lortu izanarekin izan lezake lotura, hidroxilo fenoliko talde gehiago erakutsi baitzituzten [56]. Rachip *et al.* (2013) ere hidrogelen morfologia aldakorrei buruz mintzatu ziren, ligninaren -OH eta -COOH taldeen arabera alda zitekeena [117]. Mikroegitura horiek azalduko lukete lagin hauen ur-xurgatze ahalmenaren beherakada, aurrez aipatutakoekin alderatuta.

Konpresio-saiakuntzetako tentsio-deformazio diagrametatik abiatuta, konpresio-moduluak kalkulatu ziren, 4.10 Taulan ikus daitekeen bezala. Proben amaieran, entseatutako hidrogel gehienak osorik mantendu ziren (urrats bakarreko prozesuetako lignina alkalinoa zutenek izan ezik), eta guztiek berreskuragarritasun bikaina erakutsi zuten.

Lagina	Etapa bakarreko Alk.	Etapa bakarreko Org.	Etapa bikoitzeko Alk.	Etapa bikoitzeko Org.
AS (500x)				
AS (5000x)				
WNS (500x)				
WNS (5000x)				

4.18 Irudia. Etapa bakarreko eta bikoitzeko hidrogelen SEM mikrografiak 500x eta 5000x handipenarekin.

Aipatutako lagin hauek (AA eta WA) izan ziren konpresio-modulu handienak aurkeztu zituztenak (14,8 eta 16,3 MPa, hurrenez hurren), baina baita ur-xurgatze gaitasun handiena izan zutenak ere, eta horrek matrizeak lignina eta haren ez-purutasunekin izandako interakzioengatik sortutako abaraska-egiturekin izan lezake lotura, SEM mikrografietan ikusi bezala. Antzeko morfologia izan arren, urrats bakarreko organosolv ligninak zituzten laginek (AO eta WO) aurrekoek baino konpresio-modulu askoz ere baxuagoak izan zituzten (4,95 eta 6,01 MPa, hurrenez hurren). Antzeko portaera izan zuten urrats bikoitzeko ligninaz osatutako laginek: lignina alkalinoa zutenek konpresio-modulu altuagoak izan zituzten (6,63-13,07 MPa) organosolv ligninak zituztenek baino (2,05-5,4 MPa). Zenbatetsitako modulu guztiak bat zetozen aurreko emaitzekin [79], eta beste autore batzuek lignina-hidrogeletarako emandakoak baino handiagoak izan ziren [113,118].

4.10 Taula. Fruitu lehorren azaletatik eratorritako ligninadun hidrogelen konpresio-moduluak.

Lagina	Konpresio-modulua (MPa)
AA	16,3 ± 1,8
AO	5,0 ± 1,9
WA	14,9 ± 1,9
WO	6,0 ± 1,0
AAA	13,1 ± 0,8
AAO	2,1 ± 1,0
AWA	6,6 ± 2,9
AWO	5,4 ± 2,8

Emaitza horiek **III. Artikulukoekin** konparatzean, alde handiak ikusi ziren, bereziki hidrogelen ur-xurgatze gaitasunean. Hala ere, sintesi-prozedura antzera egin zenez, bazirudien desberdintasun horiek ez zetozela bat espero ziren emaitzekin. Horrela, **III. Artikuluko** 5ML hidrogelak errepikatu ziren, organosolv lignina eta lignina alkalino komertzialetatik abiatuz. Emaitzak, kasu honetan, azken atal honetan aipatutakoenen antzekoagoak izan ziren. Izan ere, lignina alkalinoa zuten hidrogelek %450eko ur-xurgatze ahalmena izan zuten, eta organosolv lignina zutenek, berriz, %360koa. **III. Artikuluan** ere eman zen horren berri, eta lignina motari egotzi zitzaion. Datu horien

ondorioz, aurreko hidrogelen sintesian zerbait arbuiatu zela pentsatu zen. Jarraitutako prozedura sakon aztertzean, azken desizozte-zikloaren iraupenean aurkitu zen erantzuna: hidrogel batzuk 28 ºC-ra utzi ziren ia 24 orduz, logistika-kontuengatik. Horrela, **IV. Artikuluko** hidrogelak desizozteko azken urratsa luzatuz errepikatu ziren, eta emaitzak hurrengo atalean aurkezten dira.

4.3.4 Izozte-desizozte zikloen iraupena

III. eta **IV. Artikuluetan**, 3.4 atalean azaldu bezala, **II. Artikuluan** jasotako sintesi-prozesuko izozte- eta desizozte-zikloen iraupena murriztu zen. Murrizketa horren eragina **III. Artikuluan** antzeman zen, hidrogel horiek ur-xurgatze balio txikiagoak izan baitzituzten (%970 vs. %890-790, II. eta III. Artikuluetako laginentzat, hurrenez hurren). Hala ere, SEM mikrografietan aldaketa esanguratsurik antzeman ez zen arren, konpresio-moduluetan eragin handia ikusi zen, %50eraino jaitsi baitziren. Ur-xurgapenaren egiaztapena egin zenean, askoz ere nabarmenagoa izan zen izozte- eta desizozte-zikloen iraupenaren murrizketaren eragina.

4.11 Taula. 5. Desizozte luzedun (LC) hidrogelen lignina galera.

Lagina	Lignina galera (%)
AA	48,5 ± 3,0
AO	53,9 ± 3,4
WA	26,0 ± 6,4
WO	53,9 ± 2,1
AAA	36,3 ± 2,0
AAO	48,1 ± 3,3
AWA	74,3 ± 3,7
AWO	51,7 ± 2,2

Arestian aipatu bezala, aurreko esperimentuetan oinarrituta, desizoztearen azken etaparen iraupenak sintetizatutako hidrogelen ezaugarriak alda zitzakeela pentsatu zen. Beraz, **IV. Artikuluan** bosgarren desizozte etapa luzeagoa zuten hidrogelak prestatu ziren (24 ordu berogailuaren barruan, 28 ºC-ra). Lagin horiek LC lagin gisa etiketatu ziren (“long cycle” edo ziklo luzea),

eta, oro har, desizozte laburreko bosgarren etapa duten hidrogelak baino lignina-galera baxuagoak aurkeztu zituzten (4.11 Taula). Horrek azken zikloaren luzapenak PVA eta ligninaren arteko interakzioak areagotu zituela iradokitzen du. Gainera, urrats bakarreko WNS lignina alkalinoa (WA) zuten laginetan nabarmen murriztu zen lignina-galera. Aitzitik, urrats bikoitzeko WNS lignina alkalinoa (AWA) zuten laginek lehenago jakinarazitakoak baino askoz ere lignina-galera handiagoak izan zituzten. Era berean, AWA laginak izan ezik, lignina alkalinoa zuten hidrogel guztiek organosolv lignina zutenek baino lignina gutxiago galdu zutela esan daiteke.



4.19 Irudia. 5. Desizozte motz (SC) eta luzedun (LC) laginen ur-xurgatze gaitasuna.

Lagin horiek (LC) desizozte laburreko (SC) azken etapa dutenekin alderatuz gero, argi eta garbi ikus daiteke ur-xurgatze ahalmena izugarri hobetu zela (4.19 Irudia). Hobekuntzarik nabarmenena (aurreko ur-xurgatze ahalmenarekin alderatuta, %80 gehiago) AWO laginean ikusi zen, lagin horrek izan baitzuen aurretik puzteko gaitasun txikiena. Aitzitik, hobekuntzarik txikiena izan zuen lagina AWA izan zen, %22 baino ez baitzen hobetu. Agudelo *et al.* (2018)-en arabera, desizozte zikloen gehiegizko luzapenak izoztean sortutako kristalen disoluzioa dakar, eta honek haien kopurua eta tamaina murrizten ditu, eta, beraz, baita gurutzaketa dentsitatea eta hidrogelaren ur-xurgatze ahalmena ere [119]. Hala ere, atal honetan desizozte luzeko urratsa

Lagina	Etapa bakarreko Alk.	Etapa bakarreko Org.	Etapa bikoitzeko Alk.	Etapa bikoitzeko Org.
AS (500x)				
AS (5000x)				
WNS (500x)				
WNS (5000x)				

4.20 Irudia. 5. Desizozte luzeko etapa bakarreko eta bikoitzeko hidrogelen SEM mikrografiak 500x eta 5000x handipenarekin.

azkena izan zenez, litekeena da urtutako kristalak lurrundu izana eta horrek laginen ura xurgatzeko gaitasuna hobetu izana.

Emaitza horiek bat zetozen, neurri handi batean, 4.20 Irudian erakutsitako SEM irudiekin. Azken desizozte urratsa luzatzean, kasu guztietan makroporoak sortu zirela antzeman zen. Esan bezala, sintesiaren azken urratsean urtutako kristalak lurruntzeari egotzi dakioke hori, egitura horiek sortzea ahalbidetu baitzuen eta hidrogel guztien ur-xurgapen errendimendua hobetu baitzuen, haien ligninen jatorria edo erauzketa-mota edozein izanda ere.

4.12 Taula. 5. Desizozte motz (SC) eta luzedun (LC) laginen konpresio-moduluak.

Lagina	Konpresio-modulua (MPa)	
	SC	LC
AA	16,3 ± 1,8	10,8 ± 3,2
AO	5,0 ± 1,9	2,1 ± 0,7
WA	14,9 ± 1,9	13,6 ± 0,8
WO	6,0 ± 1,0	2,0 ± 0,8
AAA	13,1 ± 0,8	7,5 ± 2,7
AAO	2,1 ± 1,0	2,0 ± 0,8
AWA	6,6 ± 2,9	6,4 ± 1,3
AWO	5,4 ± 2,8	2,88 ± 1,2

4.12 Taulan ikus daitekeen bezala, lagin guztien konpresio-moduluek beherakada txiki bat izan zuten desizoztearen azken urratsaren iraupena luzatzean, ziurrenik makroporoak sortu zirelako, lehen aipatu bezala. Joera hori **IV. Artikuluan** laginen DSC analisietatik ondorioztatutako T_g balioetarako ikusitakoarekin ere bat zetorren, eta horrek lortutako egitura ez zela hain trinkoa izan iradoki zuen. Hala ere, zenbatetsitako modulu guztiak bat zetozen aurreko emaitzekin [79].

4.3.5 Lignina eraldaketa mota

V. Artikuluan eraldatutako lignina alkalino eta organosolv erauzi nahiz komertzialetatik hidrogelak sintetizatu ziren. Lignina horiek 4.1 Atalean zehaztu bezala karakterizatu ziren. Ondoren, hidrogelak egin ziren **IV.**

Artikuluan deskribatutako sintesi-bideari jarraituz, desizozte laburreko bosgarren etapa batekin.

Lignina eraldatua zuten hidrogelek aurreko laginek baino lignina-galera baxuagoa izatea espero zen, aldatutako ligninek erreaktibotasun handiagoa izatea espero zelako. Hala ere, emaitzek hipotesi hau zuzena ez zela frogatu zuten, lagin guztietarako zehaztutako lignina-galerak aurretik jakinarazitakoak baino handiagoak izan baitziren. Emaitza horiek guztiak 4.13 Taulan agertzen dira. Aldaketa hori nabarmen handiagoa izan zen MCAL eta MCOL zuten laginetan, hasierako lignina kopuruaren ia %89 eta %97 galdu baitzuten, hurrenez hurren. MAWA laginek ere gorakada handia erakutsi zuten euren lignina-galeran. Gainerako laginetan lignina-galeraren gehikuntza txikiagoa izan zen, %12 eta %14 artekoa, hain zuzen.

4.13 Taula. Jatorrizko lignina eta lignina eraldatudun hidrogelen lignina-galera.

Lagina	Jatorrizkoa (%)	Eraldatua (%)
AAA	59,6 ± 2,8	73,5 ± 0,5
AAO	71,1 ± 3,0	83,4 ± 4,6
AWA	44,2 ± 1,6	71,6 ± 0,5
AWO	59,9 ± 4,0	74,0 ± 4,8
CA	67,8 ± 2,0	88,7 ± 3,4
CO	77,4 ± 1,7	96,5 ± 0,3

Ikusitako lignina-galerak hain ustekabekoak izan zirenez, lignina hauek hauspeatzea erabaki zen beren pisu molekularrak aztertu ahal izateko. Emaitza horietatik abiatuta, kasu guztietan galdutako ligninek hasierakoek baino batezbesteko pisu molekular txikiagoa zutela ikusi zen, eta, gainera, homogeneoagoak zirela. Horrek matrize polimerikoak pisu molekular handieneko frakzioekin erreakzionatu zezakeela iradoki zuen.

Ligninen eraldaketek sintetizaturiko hidrogelen propietateengan izandako eragina zehazteko asmoz, lagin hauen ur-xurgatze ahalmena aztertu zen. Emaitzak 4.21 Irudian adierazten dira. Aurreko emaitzekin alderatuta, eraldatutako lignina alkalinoa zuten laginen kasuan, ur-xurgatze ahalmena

nabarmen murriztu zela ikusi zen. Emaitza horiek ur-xurgatze gaitasun handiko hidrogelak lortzeko peroxidazio bidezko eraldaketa ez zela egokiena iradokitzen dute. Aitzitik, organosolv lignina eraldatuak erabili zirenean, haien ur-xurgatze gaitasuna handitu egin zen, batez ere MCOL zuten laginen kasuan (%450), baina lignina-galera handiena ere aurkeztu zutenak ere badira. Gainera, MAAO laginak izan ziren bigarren ur-xurgatze gaitasun handiena izan zutenak (%410), eta hori ere bat zetorren bigarren lignina-galera handienarekin. Era berean, MAWO laginek propietate honen hobekuntza txikiena erakutsi zuten, eta lignina-galera txikiena ere erakutsi zuten eraldatutako organosolv ligninak zituzten laginen artean. Beraz, ondoriozta liteke hidroximetilazioa metodo egokia izan litekeela organosolv ligninaz egindako hidrogelen ur-xurgatze ahalmena hobetzeko.



4.21 Irudia. Lignina eraldatudun hidrogelen ur-xurgapena lehen 48 orduetan eta jatorrizko ligninadun hidrogelenarekiko konparaketa.

Emaitza hauei erreparatuz eta aurrekoekin alderatuz, aipatzekoa da hidroximetilazioak lignina-hidrogelen ur-xurgatze ahalmena hobetzeko eraginkorra zela frogatu bazuen ere, sintesi-prozesuan izandako beste aldaketa batzuek (desizoztearen azken urratsaren luzapena, adibidez) hobekuntza

handiagoak ekarri zituztela propietate horrengan, jatorrizko ligninak eraldatzeko beharrik gabe.



4.22 Irudia. Eraldatutako ligninadun hidrogelen SEM irudiak 500x eta 1500x handipenarekin.

SEM teknikaren bidez lortutako irudiek (4.22 Irudia) ez zituzten oso egitura porotsuak erakutsi; izan ere, morfologia nahiko trinkoak eta jarraituak erakutsi zituzten, ia ikusi ezin ziren hutsuneekin. Joera hau nabarmenagoa izan zen lignina alkalinoak zituzten laginetan, eta hori erretikulazio-dentsitate handiagoari egotz dakioke, ur-xurgatze ahalmenaren murriztea ere argituko lukeena. Organosolv ligninak zituzten laginetan, batez ere MAAO laginetan, sortutako hutsuneak nabariagoak ziren, eta horrek eragin zuen, ziurrenik, ura xurgatzeko gaitasunaren handitzea. Edonola ere, xurgapen saiakuntza aurretik erabilitako baldintza beretan egin zenez, posible da sortutako egiturek matrize

barreneko uraren difusioa oztopatu izatea, eta ondorioz, uretan denbora gehiago murgilduta egon ondoren, baliteke euren ur-xurgapena handitzea.

Propietate termikoei dagokienez, zehaztutako T_g balio guztiak 77-103 ºC-ko tartean zeuden. Balio horiek aurretik jakinarazitakoak baino handiagoak izan ziren, eta horrek ligninaren eraldaketek egitura trinkoagoak eragin zituztela iradoki zuen, egitura horietako kate polimeriko amorfoen mugimendua zailduz, eta SEM mikrografiekin ere bat etorriz.

Laginen konpresio-saiakuntzetan entseatutako hidrogel guztiak, euren portaera elastikoari esker, osotasun osoa eta berreskuragarritasun ona izateko gai izan zirela erakutsi zuten beste behin. 4.14 Taulako emaitzetatik lignina alkalinoak zituzten hidrogelek organosolv ligninak zituztenek baino konpresio-modulu handiagoak zituztela ondorioztatu zen. Hau bat zetorren analisi termikoan lortutako emaitzekin. Izan ere, lignina alkalinodun laginen konpresio-moduluaren balio guztiak 10-12 MPa tartean zeuden, organosolv lignina zuten hidrogelenak bikoiztuz (4,5 eta 6 MPa artean). Aurreko emaitzekin alderatuta, lignina alkalinodun laginetarako konpresio-modulua handitu egin zela ikusi zen, batez ere, MCA laginerako, eta organosolv ligninak zituzten laginetarako moduluaren balioa murriztu egin zen, nahiz eta MAAO laginarena pixka bat handiagoa izan.

4.14 Taula. Jatorrizko ligninak eta eraldatudun hidrogelen konpresio-modulua.

Lagina	**Konpresio-modulua (MPa)**	
	Jatorrizkoa	Eraldatua
CA	2,3 ± 0,8	12,0 ± 3,6
AAA	13,1 ± 0,8	11,4 ± 3,7
AWA	6,6 ± 2,9	10,1 ± 2,5
CO	8,1 ± 0,7	5,9 ± 3,9
AAO	2,1 ± 1,0	4,5 ± 1,8
AWO	5,4 ± 2,8	5,0 ± 0,8

4.3.6 **Ondorioak**

Atal honetan sintesi-parametro desberdinek lignina-hidrogelen propietateengan izandako eragina aztertu zen. Aztertutako parametro guztiek eragin handia izan zuten hidrogelen morfologian, eta horrek ur-xurgatze gaitasunak eta propietate mekanikoak aldatzea ekarri zuen. Giro-tenperaturan lehortzeko metodoari esker, puzteko ahalmen handiagoa zuten hidrogelak lortu ahal izan ziren, eta HM_w PVA erabiltzeak eta izozte- eta desizozte-zikloen kopurua eta horien iraupena handitzeak antzeko joerak eragin zituzten. Lignina desberdinak erabili zirenean, lignina mota beraren artean, ikusitako aldeak ez ziren hain esanguratsuak izan. Hala ere, lignina alkalinoak zituzten laginetatik organosolv ligninak zituzten laginetara propietateak asko aldatu ziren, eta ligninen purutasunak ezaugarri hauetan eragin handia zuela ikusi zen. Era berean, aukeratutako ligninaren eraldaketa-erreakzioaren arabera, hidrogelen propietateak asko alda daitezkeela ondorioztatu zen. Izan ere, hidroximetilazio erreakzioak jatorrizko ligninak zituzten hidrogelen ur-xurgatze ahalmena handiagotzea eragin zuen, peroxidazioak propietate honen murrizketa eragin zuen bitartean. Hala ere, portaera hau uraren difusio zailtasunari ere egotz dakioke. Beraz, aurreko guztia kontuan izanik, material horien azken propietateei eragiten dieten parametro ugari daudela ondoriozta daiteke, eta horietako batzuk kontrolaezinak diren arren edo normalean arbuiatzen diren arren, sakonago aztertu beharko liratekeela ikusi da, garrantzitsuak izan baitaitezke.

4.4 Sintetizaturiko lignina-hidrogelen aplikazioak

4.4.1 Tindagaien xurgatzea

Lignina-hidrogelek hainbat karga negatibo dituzte gainazalean azido karboxiliko talde ugarien ondorioz [56], eta hauek sortutako π–π interakzio hidrofobikoei esker, honako hidrogel hauek karga positiboa duten tindagaiak, hau da, koloratzaile kationikoak, erakartzeko gaitasuna dute [56]. Tindagai hauen artean, metileno-urdina (MB) aurki daiteke. Substantzia hau kotoia, zura eta zeta tindatzeko erabiltzen da eta gizaki nahiz animalientzat oso kaltegarria izan daitekeela frogatu da [61]. Horregatik, **III. eta IV. Artikuluetan** sintetizatu ziren hidrogelen MB adsortzioa 24 orduz ebaluatu zen.

Nahiz eta errendimendu-balioak ez izan beste autore batzuek aurrez adierazitakoak bezain handiak [56,61], xurgatze-balioak haiek adierazitakoak baino handiagoak izan ziren. **III. Artikuluko** laginen artean, entseatutako lignina-hidrogelek (5HL eta 3ML) deuseztapen-ehuneko handiak izan zituztela ikusi zen (%71,6 5HL-rako eta %69,1 3ML-rako); hidrogel zuriak (5H), berriz, tindagaiaren %34,8a soilik xurgatzeko gai izan zen.

IV. Artikuluko laginek ere MB-arekiko adsortzio-potentzial handia erakutsi zuten, xurgatze-baliorik txikiena %75ekoa eta handiena kutsatzailearen %93koa izanik (4.23 Irudia), **III. Artikuluan** lortutako emaitzak gaindituz. Oro har, prozesu bikoitzeko ligninak zituzten laginak tindagai kantitate handiagoak erakartzeko gai izan ziren, eta lignina alkalinoa zutenek organosolv lignina zutenek baino MB kantitate txikixeagoak xurgatu zituzten, euren TPC balioen joerarekin ere bat etorriz. Beste autore batzuek ere lignina alkalinodun laginek organosolv ligninadunek baino MB adsortzio-balio baxuagoen berri ere eman zuten [61]. Autore hauek portaera hau ligninetan aurkitutako hidroxilo fenolikoekin taldeen kopuruarekin lotu zuten [61]. Bestalde, desizoztearen azken zikloa luzatu zenean, lignina alkalinoak zituzten

laginen MB-ren adsortzio-ahalmena handitu egin zen, organosolv lignina zuten hidrogelena apur bat murriztu zen bitartean. Horrek, desizoztearen azken zikloak laginen porositatea areagotu zuen arren, gainazalean karga negatiboen eskuragarritasuna aldatu egin zela iradokitzen du; hala ere, baieztapen hau ezin izan da frogatu.



4.23 Irudia. 5. desizozte-urrats laburdun laginen (SC) eta luzedunen (LC) MB-ren xurgatze-ahalmenen arteko konparaketa.

4.4.2 **Propietate antifungikoak**

Elikagaien ontziratze-sektorean, ingurumena errespetatzen duten material berriak bilatzeko beharrak garrantzia handia hartu du azkenaldi honetan. Testuinguru horretan, sistema horientzat oinarri biologikoko hidrogelak balizko xurgatzaile gisa agertu dira [65]. Hala ere, material horiek ontziratutako produktuen iraupena luzatu behar dute, eta horrek mikroorganismoen eta onddoen hazkundea oztopatu behar dutela esan nahi du [65,120]. Horrela, **IV. Artikuluko** ligninen eta lignina-hidrogelen *Aspergillus niger*en (usteldura arrearen onddoa) aurkako propietate antifungikoak aztertu ziren, hau da, elikagaiak hondatzeko onddo ohikoenetako baten aurkako efektua ikertu zen.

Lehenik eta behin, ligninaren gaitasun antifungikoaren ebaluazio bisuala egin zen. Nahiz eta nagusiki usteldura zuriko onddoak lignina despolimerizatzeko gai izan [121], autore batzuek ikusi dute usteldura marroiko onddoak ere lignina degradatzeko gai izan daitezkeela. Hala ere, kasu honetan, entseatutako onddoek ez zuten gaitasun hori izan (4.24 Irudia). Lagin guztien agarraren gainazalean onddoak hazi baziren ere, laginean utzitako lignina-tantak argi eta garbi ikus zitezkeen probaldiaren ondoren. Honek ligninaren gaitasun antifungikoa frogatu zuen, aurretik beste egile batzuek frogatu zuten bezala. Aztertutako laginen artean, lignina alkalinoek hazkuntza fungikoa organosolv ligninek baino eraginkortasun handiagoz inhibitu zuten, eta, ondorioz, 3 indizeko hazkunde-intentsitatea (GI = 3) esleitu zitzaien; gainerako lagin gehienek, berriz, intentsitate handiagoak izan zituzten (GI ≈ 4), ISO 846 arauaren arabera [81].



4.24 Irudia. Ligninen saiakuntza antifungikoen irudiak.

Bestalde, hidrogelei proba berdina egin zitzaien (4.25 Irudia). Kasu guztietan, probaren ondoren, entseatutako hidrogel zatia osorik mantendu zela ikusi zen. Lehen begiratuan, WNS lignina alkalinoak (WA eta AWA) zituzten laginek eta

AS organosolv ligninak (AO eta AWO) zituzten laginek beste ligninak zituzten laginek baino gehiago inhibitu zuten garapen fungikoa. Gainera, laginen goiko gainazaleko hazkuntza fungikoa ia antzemanezina izan zen. Kasu honetan, esleitutako hazkundearen intentsitatea 3 eta 4 artean legoke lagin guztientzat [81].



4.25 Irudia. Hidrogelen saiakuntza antifungikoen irudiak.

Laginak PBSz garbitu ondoren, inguruko esporak 3.6.2 atalean aipatu den bezala kuantifikatu ziren. Estimatutako FGI balioetatik abiatuta (4.26 Irudia), aztertutako laginen artean jarduera fungiko txikiena zutenak WO eta AAO (FGI handienarekin) izan zirela ikusi zen, eta hazkunde handiena izan zuena AWA zela, aurretik suposatutakoaren kontra joan arren. Gainera, urrats bakarreko prozesuko AS ligninak zituzten laginek bi urratseko AS ligninak zituztenek baino FGI balio baxuagoak zituztela ikusi zen. Aldiz, urrats bikoitzeko prozesuko WNS ligninak zituzten laginek jarduera antifungiko okerragoa erakutsi zuten urrats bakarreko WNS ligninak zituztenek baino. Estimatutako balioak gutxi gorabeherakoak izan ziren arren, emaitza hauek laginek zituzten

propietate antifungikoen ideia bat egiten lagundu zuten. Aipatzekoa da, halaber, aztertutako laginetako batek ere ez zuela pisurik galdu saiakuntza antifungikoan, eta horrek *A. niger*-en aurkako eraginkortasuna bermatzen du.



4.26 Irudia. Laginen hazkuntza fungikoaren inhibizioaren (FGI, %) balioak, hidrogel zurienak kontroltzat harturik (y = 0).

Zenbait autorek antzeko FGI balioen berri eman zuten elikagaiak ontziratzeko beste material batzuetarako. Adibidez, Salaberria *et al.* (2017)-ek funtzionalizaturiko kitina nano-kristaldun PLA filmetarako %52 eta 62 arteko inhibizioa topatu zuten [80]. Fernández-Marín *et al.* (2021)-en ikerketan, balio horiek %72 eta %86 artekoak izan ziren haien kitosano/β-kitina nano-zuntz nano-konposatuen kasuan, *Origanum majorana* L. deterpenatuaren olio esentziala gehitzearen ondorioz [122]. Aitzitik, Dey *et al.* (2021)-ek %51 eta %56 arteko balioen berri eman zuten PVA puruko filmen kasuan, zelulosa nano-kristalak eta kitosano nano-partikulak gehitzeak kalte egin baitzien [123]. Beraz, datu horiek kontuan hartuta, ondoriozta daiteke WO eta AAO hidrogeletarako emandako emaitzak guztiz bat datozela beste autore batzuek emandakoekin, eta elikagaiak ontziratzeko erabil litezkeela.

4.4.3 Kertzetina askapena

Kertzetina (QE) fruta eta barazkietan topa daitekeen bioflavonoide bat da, hantura, herdoil, obesitate eta minbiziaren aurkako propietate interesgarriak dituena [82,83,124]. Aipatutako ezaugarriengatik eta sintetizatutako botiken ordez konposatu naturalak hobesteko egungo joeragatik, kertzetinak arreta handia bereganatu du azkenaldian. Horrela, **V. Artikuluan**, konposatu hau mundu osoan hondakin ugaria den tipula gorrien azaletatik prozesu ekologiko baten bidez isolatu zen (mikrouhinen bidezko erauzketaz), hondakin honi balio erantsi bat emanez. Argitalpen berean sintetizatutako hidrogelak QE-rekin kargatu ziren eta botika honen askapen zinetika aztertu zen.



4.27 Irudia. Eraldaturiko ligninadun hidrogelen QE-askapena.

Hidrogelak QE-z hornitu eta lehortu ondoren, **V. Artikuluan** adierazten den bezala, PBS disoluziotan 37 ºC-tan murgildu ziren botika askatzeko, *in vitro* baldintzak simulatuz. Askapen-ingurunearen absorbantzia denbora-tarte jakin batzuen ondoren egin zen entseguaren lehen 6,5 orduetan zehar. Hidrogelek oraindik lignina askea zutenez, eta lignina honek 330 nm-tan xurgatze tontor bat zuenez, kontzentrazio altuetan, tontor honek QE-ri zegokion tontorreko emaitzak 375 nm-tan hondatzen zituen. Horregatik, askapen zinetika lehen 6,5 orduetan egin zen, askatutako lignina antzemanezina zen bitartean.

4.27 Irudian azaldutako askapen-profiletatik abiatuta, lagin guztiak antzeko botika-kopuruekin kargatu ahal izan ziren arren, lagin bakoitzerako askapen-gaitasuna guztiz desberdina izan zela ondorioztatu zen. Izan ere, xurgatutako botika kopuruei dagokienez, askatutako botiken ehunekoak %12 eta %30 artekoak izan ziren. Botikaren askatze-ehuneko handiena MAWA eta MAAA laginek izan zuten. Askatze txikiena, berriz, MCO laginerako ikusi zen, eta horrek, botika xurgatzeko ahalmen handiagoa izan zuen arren, honekin zituen interakzioek botika askatzea zaildu zutela iradokitzen du. Hala ere, kontuan izan behar da profil hauek lehenengo 6,5 orduetarako bakarrik izan zirela, eta ezin direla denbora luzeagotara estrapolatu.



4.28 Irudia. a) Zero maila, b) lehen maila, c) Korsmeyer–Peppas eta d) Higuchi eredu zinetikoetan oinarrituriko QE-askapen profilak.

Askapen-zinetika zehazteko, hainbat eredu aplikatu ziren (hau da, zerogarren maila, lehen maila, Korsmeyer-Peppas eta Higuchi) [82,85,86]. Lau eredu zinetikoen irudikapen grafikoak 4.28 Irudian azaltzen dira, eta horietako bakoitzerako zenbatetsitako parametro zinetikoak 4.15 Taulan. Jatorrizko askatze-profiletik abiatuta, askatze-zinetika zero ordenako eredu batera ez zela behar bezala egokituko ondorioztatu zen, eta hori zehaztapen-koefizienteek (R^2) berretsi zuten. Gainontzeko modeloen artean, Korsmeyer-Peppasena izan zen hoberen doitu zena, MCA laginerako izan ezik, honen doikuntza ere ez baitzen hobetu Higuchiren modeloarekin.

4.15 Taula. QE-askapen eredu zinetikoetatik ondorioztatutako parametro zinetikoak.

	Karga	**Zero maila**	**Lehen maila**	**Korsmeyer–Peppas**			**Higuchi**
Lagina	(%)	R^2	R^2	R^2	n	k_{kp}	R^2
MAAA	29,0	0,8194	0,8438	0,9852	0,37	10,85	0,9764
MAAO	31,8	0,8946	0,9165	0,9947	0,48	9,94	0,9962
MAWA	30,4	0,8134	0,849	0,9809	0,37	15,52	0,9741
MAWO	32,0	0,8781	0,8968	0,9868	0,47	9,01	0,9904
MCA	26,0	0,7248	0,7473	0,9284	0,29	12,63	0,9294
MCO	34,5	0,7725	0,7872	0,9978	0,30	7,07	0,9562

Saidi *et al.* (2020)-ek adierazi bezala [86], datu esperimentalen difusio-berretzaileak (n) eta abiadura-konstanteak (k_{kp}) grafikoen (ln *(QE %)* vs. ln t) maldetatik eta jatorrizko ordenatuetatik zehaztu ziren. 4.15. Taulan ikus daitekeen bezala, n-rako zenbatetsitako balio guztiak 0,5 baino txikiagoak izan ziren. Nahiz eta normalean difusio bat Fickiarra dela esateko n=0,5 izan behar den [82,85], kasu honetan ere esan liteke QE-ren askapenek difusio Fickiar bat jarraitu zutela [82]. Beraz, esan liteke hidrogel sintetizatuak sendagaiak modu kontrolatuan askatzeko sistema gisa erabil litezkeela.

4.4.4 *In-vitro* Biobateragarritasun probak

PCS-201-012 fibroblasto-zelulen bideragarritasun-emaitzak, kontrol-laginetarako, B1 eta B2 lagin zurietarako eta AWA, AAA, AAO eta AWO

laginetarako neurtu ziren 24, 48 eta 72 orduren ondoren. Lehen 24 orduen amaieran, ligninadun laginen bideragarritasun-emaitzak (4.29 Irudian eta 4.16 Taulan ikus daitekeen bezala) %70etik beherakoak izan ziren, PVA puruzko hidrogelen kasuan %80tik gorakoa izan zen bitartean. 48 orduren ondoren, ligninadun laginen bideragarritasunak %66tik beherakoak izan ziren, eta PVAzko lagin bakarrak erakutsi zuen %70etik gorako balioa. Hirugarren egunaren amaieran (72 ordu), lagin guztiek %60tik beherako balioak erakutsi zituzten, PVAzko 2. lagin zuriak izan ezik.



4.29 Irudia. PCS-201-012 zelulekin (giza fibroblasto dermikoen zelulak) kultibaturiko hidrogelen zelula-bideragarritasunen emaitzak 24, 48 eta 72 h ondoren.

4.16 Taula. PCS-201-012 zelulekin kultibaturiko hidrogelen zelula-bideragarritasunen emaitzak 24, 48 eta 72 h ondoren.

Lagina	**Zelula-bideragarritasuna(%)**		
	24 h	48 h	72 h
Kontrola	100±7,7	107,6±5,1	102,8 ± 17,4
Zuria 1	84,7±5,9	62,4±12,2	59,0±9,8
Zuria 2	86,3±13,5	77,5±14,7	70,2±11,9
AWA	64,3±11,0	53,5±7,0	53,5±13,1
AAA	63,2±21,7	39,9±4,7	47,6±10,1
AAO	59,2±11,3	66,1±9,3	54,85±17,6
AWO	67,4±12,2	62,3±12,5	47,3±13,0

Zuria 1 eta Zuria 2 laginak kontrol gisa hartu zirenean (4.30 Irudia), AWA, AAA, AAO eta AWO laginen bideragarritasuna birkalkulatu egin zen, eta emaitza hauek 4.17 eta 4.18 Tauletan agertzen dira. Alde batetik, Zuria 1 lagina kontrol-talde gisa kontuan hartuta bideragarritasun zelularra kalkulatu zenean (4.30-a Irudia), lehen 24 orduen ondoren, laginen bideragarritasuna %70etik gorakoa izan zen kasu guztietan. Inkubazio-denbora 48 ordura luzatu zenean, organosolv lignina zuten laginek soilik erakutsi zuten %70etik gorako bideragarritasuna. 72 orduen amaieran, bideragarritasun-ehunekoak %55 eta %64 artekoak izan ziren ligninadun laginentzat. Aipatzekoa da lagin zuriaren kasuan, bideragarritasunak ere beherakada handia izan zuela lehen 24 orduen ondoren lortutako emaitzarekin alderatuta, %70 baino balio txikiagoa erakutsi baitzuen amaieran.

4.17 Taula. PCS-201-012 zelulekin kultibaturiko hidrogelen zelula-bideragarritasunen emaitzak 24, 48 eta 72 h ondoren, B1 lagina kontroltzat hartuz.

Lagina	**Zelula-bideragarritasuna(%)**		
	24 h	48 h	72 h
Zuria 1	100,0±6,7	72,8±14,2	68,8±11,4
AWA	75,9±13,0	62,4±8,2	62,4±15,3
AAA	74,6±25,6	46,5±5,5	55,5±11,8
AAO	69,9±13,3	77,1±10,9	64,0±20,5
AWO	79,6±14,5	72,7±14,6	55,2±15,2



4.30 Irudia. PCS-201-012 zelulekin (giza fibroblasto dermikoen zelulak) kultibaturiko hidrogelen zelula-bideragarritasunen emaitzak 24, 48 eta 72 h ondoren, B1 eta B2 laginak kontroltzat hartuz.

Bestalde, Zuria 2 lagina kontrol gisa hartu zenean (4.30-b Irudia), lehen 24 orduetan, erregistratutako bideragarritasunak %70 gainetik mantendu ziren. Hurrengo 24 orduetarako, balio horiek aldaketa nabarmena jasan zuten, lignina alkalinodun laginen kasuan. Organosolv ligninadun laginen bideragarritasunek %70tik gorakoak izaten jarraitu zuten. 72 orduko inkubazio-aldiaren amaieran, bideragarritasun-emaitzek jaitsiera nabarmena pairatu zuten organosolv ligninadun laginen kasuan, lignina alkalinodunen kasuan igoera bat erakutsi zuten bitartean. Aipatzekoa da, kasu honetan kontrol-laginak izandako bideragarritasunaren beherakada 1. Lagin zuriak jasandakoa baino txikiagoa izan zela.

4.18 Taula. PCS-201-012 zelulekin kultibaturiko hidrogelen zelula-bideragarritasunen emaitzak 24, 48 eta 72 h ondoren, B2 lagina kontroltzat hartuz.

Lagina	**Zelula-bideragarritasuna(%)**		
	24 h	48 h	72 h
Zuria 2	100,0±15,7	88,8±16,8	80,4±13,6
AWA	74,5±12,8	61,3±8,1	61,3±15,0
AAA	73,2±25,2	45,7±5,4	54,5±11,6
AAO	68,6±13,1	75,7±10,7	62,8±20,1
AWO	78,1±14,2	71,3±14,3	54,1±14,9

Lagin guztiak batera ebaluatu zirenean, lehen 24 orduen ondoren, AWA, AAA eta AWO laginak izan ziren bideragarrienak. Hala ere, saiakuntzaren hurrengo 48 orduetan, balio horiek behera egin zuten eta, probaren amaieran, AAO laginak erakutsi zuen bideragarritasun handiena. Bi hidrogel zuriekin alderatzean, hiru egunen ondoren, zelulen ugaritze handiena ere lagin honek erakutsi zuen. Izan ere, lagin hori izan zen 24 ordutik 48 ordura zelulak ugaltzea ahalbidetu zuen bakarra.

ISO 10993-5 arauaren arabera, material ez-zitotoxikoen bideragarritasuna %70etik gorakoa izan behar denez [125,126], esan liteke kasu honetan entseatutako lignina-hidrogel bakar bat ere ez litzatekeela guztiz biobateragarria izango.



4.31 Irudia. Fluoreszentzia mikroskopiaren bidez lortutako PCS-201-012 zelulen irudiak B1, B2, AWA, AAA, AAO eta AWO laginekin 24, 48 and 72 orduz kultibatu ondoren.

PVA material biobateragarritzat jotzen den arren [125,127], PVA soilezko hidrogelek ere zelulen biobateragarritasuna murriztu zuten proban zehar, eta horrek lignina hidrogelen biobateragarritasunean ere eragin negatiboa izango luke. Aipatutako laginak finkatu egin ziren eta gainazaleko zelulen nukleoak DAPI erreaktiboarekin tindatu ziren, fluoreszentzia-mikroskopioaz aztertu ahal izateko. Laginen gainazalean zelulak aurkitu ziren (4.31 Irudia), baina bideragarritasun balio eskasetatik zelulak gainazalean finkatu bezain laster hil zirela ondorioztatu zen, eta, ondorioz, grafikoetako bideragarritasun-balioak murriztu egin ziren.

Autore batzuek aipatu izan dute entseatutako materialen porotasuna funtsezkoa izan daitekeela zelulen hazkuntzarako [128]. Beraz, aurreko laginen porotasuna kontuan hartuta, bigarren saiakuntza bat egin zen lagin porotsuagoak erabiliz, baita lignina alkalino komertzialetik abiatuta sintetizatu zirenak ere, arazoa erauzitako ligninetan zegoela baztertzeko asmoz. Bigarren saiakuntza horretan, hidrogel laginak PBS bidez garbitu ziren irabiagailu orbital batean 48 orduz, eta, ondoren, lehen aipatutako zelulak esterilizatzeko eta ereiteko prozedura berdina aplikatu zen. Laginen bideragarritasun-emaitzak 24 orduz entseatu ondoren aztertu ziren (4.32 Irudia).

Kontrol-lagin eta CA, AAA, AA, WA eta AWA laginetarako erregistratutako bideragarritasuna %100,0, 16,56, 33,16, 31,46, 44,35 eta 34,58 izan zen, hurrenez hurren. Porotasun handiagoa zuten hidrogeletan (AA eta WA), bideragarritasun zelularraren hobekuntza nabarmenagoa izan zen, bereziki WA laginarena. AA eta AAA laginek antzeko bideragarritasun-emaitzak izan zituzten, baina neurketen desbideratzeak nahiko handiak izan ziren. Lignina alkalino komertziala zuen lagina (CA) izan zen emaitzarik txarrena erakutsi zuena. Gertaera horrek lignina honen FTIR analisien bidez [78] aurrez detektatu zen sufre-edukiarekin lotura izan lezake, zelula bizidunetarako kaltegarria izan baitaiteke.



4.32 Irudia. PCS-201-012 zelulekin (giza fibroblasto dermikoen zelulak) kultibaturiko hidrogelen zelula-bideragarritasunen emaitzak 24 h ondoren.

Laginen porotasuna eragin handiko parametroa dela frogatu den arren, hidrogelen ur-xurgatze ahalmenen arteko desberdintasunek zelulen ugaltzeari ere eragin diezaiokete. Izan ere, hidrogel batzuek aldez aurretik xurgatutako ingurune zelularraren zati bat askatu zuten, eta horrek, lignina kantitatearekin batera, zelulen heriotza ekar lezake, hidrogelen bideragarritasuna murriztuz. Autore batzuen arabera, PVA-zko hidrogelei lignina gehitzeak biobateragarritasuna hobetu lezake [129], baina beste egile batzuek, aldiz, ligninen zitotoxikotasuna erabilitako kontzentrazioaren menpekoa izan daitekeela jakinarazi dute [130,131]. Beraz, egoera honetan bi aukera posible aurreikusten dira: lehenengoa, jatorrizko lignina soilen bideragarritasun zelularra aztertzea; eta bigarrena, hidrogelak sintetizatzeko erabilitako lignina-edukia murriztea, hauen biobateragarritasuna hobetzeko asmoz.

4.4.5 **Ondorioak**

Atal honetan tesi honetan sintetizatutako hidrogelen aplikagarritasuna ebaluatu da. Lortutako emaitzetatik material horiek ur-arazketa sistema gisa erabilgarriak izan daitezkeela ondoriozta daiteke, batez ere tindagai

kationikoak xurgatzeko. Gainera, sintetizatutako hidrogeletako batzuk ontzi aktiboetan erabiltzeko aproposak direla frogatu da, portaera antifungikoa baitute. Gainera, material horiek botika natural batekin kargatuak izan eta Fickiar difusio eredu bati jarraituz hau askatzeko gaitasuna erakutsi zuten. Material hauen biobateragarritasuna hobetzeko lanean jarraitu behar bada ere, ekoitzitako hidrogelek diziplina anitzeko aplikazioetarako material potentzialak eta moldakorrak direla erakutsi dute.

5 Ondorioak eta etorkizuneko lanak

5.1 Ondorio orokor eta espezifikoak

Tesi honen ondorio orokor gisa, esan daiteke fisikoki gurutzaturiko lignina-hidrogelak arrakastaz lor daitezkeela lignina ingurumena errespetatzen duen matrize polimeriko batekin nahastuz, polibinil alkoholarekin (PVA), hain zuzen ere. Gainera, frogatu da material horien propietateak hainbat sintesi- eta formulazio-parametro aldatuz egokitu daitezkeela. Horrez gain, lignina-hidrogelak aplikazio-eremu askotan aplikatzeko material potentzialak direla frogatu da, hala nola uraren arazketan, ontziratzean edo botiken askapenean. Material hauen biobateragarritasuna hobetu badaiteke ere, lorturiko emaitzek bio-medikuntza arloan ere etorkizuna izan dezaketela erakutsi dute. Tesi honetatik ateratako ondorio espezifikoak honako hauek dira:

- ✓ Lignina alkalino komertzialaren eta MM_w PVA-ren nahasketaren bidezko hidrogelen sintesia optimizatzearen ondorioz, ur-xurgatze gaitasun handiko materialak lortu ziren, gurutzaketa eta lehortze metodoaren arabera molda zitezkeenak.
- ✓ PVA-ren pisu molekularrak eragin handia izan zuen sintetizatutako hidrogelen gurutzaketan eta lortutako materialen amaierako propietateetan, ur-xurgatze ahalmena handituz matrize polimeroaren pisu molekularra handitu ahala.
- ✓ Fruitu lehorren azaletatik erauzitako ligninen propietateek sintetizatutako hidrogelen ezaugarriengan eragin zuzena dutela erakutsi zuten, eta ligninen purutasuna eragin handiko faktorea dela.
- ✓ Izozte- eta desizozte-zikloen iraupena murrizteak hidrogelen ur-xurgatze ahalmena murriztea ekarri zuen. Aitzitik, desizoztearen azken etaparen iraupena luzatu izanak nabarmen hobetu zuen propietate hori.

- ✓ Erabilitako ligninen eraldaketa kimikoa hidrogelen ezaugarriak aplikazio bakoitzak eskatzen dituen beharretara egokitzeko baliagarria izan daiteke.
- ✓ Sintetizaturiko hidrogelek emaitza oparoak erakutsi zituzten frogatutako aplikazioetarak: ur-inguruneko tindagaien adsortzioan, elikagaiak ontziratzeko material antifungiko moduan eta botiken askapenean.
- ✓ Biobateragarritasun saiakuntzetako emaitzak espero bezain egokiak ez izan arren, material hauek arlo honetan ere etorkizuna izan dezaten jarraitu beharreko bidearen ateak zabaldu dituzte.

5.2 Etorkizuneko lanak

Tesi honetan parametro askoren eragina eta zenbait aplikazio posible aztertu badira ere, oraindik ere lignina-hidrogelei buruzko asko dago ikasteko. Hori dela eta, ondoko alderdi hauek sakonago ikertu beharko lirateke etorkizunean:

- Proposatutako hidrogelen sintesi-prozedura eskala handiago batera eramateko aukera.
- Tesi honetako hidrogelen bizi-zikloaren azterketa (LCA).
- Sintetizatutako hidrogelen biobateragarritasunaren hobekuntza bio-medikuntza eremuan erabili ahal izateko.
- Ingurumena errespetatzen duten beste matrize polimeriko batzuk erabiltzea fisikoki gurutzatutako lignina-hidrogelen garapenerako.
- Jatorri desberdinetako ligninak erabiltzea, hala nola belarra, zur gogorra eta zur biguna.
- Ligninaren eraldaketarako erreakzio desberdinak erabiltzea eta horiek hidrogelen propietateengan duten eragina aztertzea.



Erreferentziak

[1] D. Londoño-Pulgarin, G. Cardona-montoya, J.C. Restrepo, F. Muñoz-Leiva, Fossil or bioenergy? Global fuel market trends, 143 (2021). doi:10.1016/j.rser.2021.110905.

[2] BP, Statistical Review of World Energy (Oil), (2020).

[3] BP, Statistical Review of World Energy (CO_2), (2020).

[4] H. Nakajima, P. Dijkstra, K. Loos, The recent developments in biobased polymers toward general and engineering applications: Polymers that are upgraded from biodegradable polymers, analogous to petroleum-derived polymers, and newly developed, Polymers (Basel). 9 (2017) 1–26. doi:10.3390/polym9100523.

[5] S. Walker, R. Rothman, Life cycle assessment of bio-based and fossil-based plastic: A review, J. Clean. Prod. 261 (2020) 121158. doi:10.1016/j.jclepro.2020.121158.

[6] J. Soares, I. Miguel, C. Venâncio, I. Lopes, M. Oliveira, Public views on plastic pollution: Knowledge, perceived impacts, and pro-environmental behaviours, 412 (2021) 125227. doi:10.1016/j.jhazmat.2021.125227.

[7] J.R. Jambeck, R. Geyer, C. Wilcox, T.R. Siegler, M. Perryman, A. Andrady, R. Narayan, K.L. Law, Plastic waste inputs from land into the ocean, Science, 347 (2015) 768–771. doi:10.1126/science.1260352.

[8] A. Pellis, M. Malinconico, A. Guarneri, L. Gardossi, Renewable polymers and plastics: Performance beyond the green, N. Biotechnol. 60 (2021) 146–158. doi:10.1016/j.nbt.2020.10.003.

[9] S.N. Akanyange, X. Lyu, X. Zhao, X. Li, Y. Zhang, J.C. Crittenden, C. Anning, T. Chen, T. Jiang, H. Zhao, Does microplastic really represent a threat? A review of the atmospheric contamination sources and potential impacts, Sci. Total Environ. 777 (2021) 146020. doi:10.1016/j.scitotenv.2021.146020.

[10] A.T. Ubando, C.B. Felix, W.H. Chen, Biorefineries in circular bioeconomy: A comprehensive review, Bioresour. Technol. 299 (2020)

122585. doi:10.1016/j.biortech.2019.122585.

[11] A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, G. Astray, Synthesis of advanced biobased green materials from renewable biopolymers, Curr. Opin. Green Sustain. Chem. 29 (2021) 100436. doi:10.1016/j.cogsc.2020.100436.

[12] S. Bilgen, Structure and environmental impact of global energy consumption, Renew. Sustain. Energy Rev. 38 (2014) 890–902. doi:10.1016/j.rser.2014.07.004.

[13] G. Dragone, A.A.J. Kerssemakers, J.L.S.P. Driessen, C.K. Yamakawa, L.P. Brumano, S.I. Mussatto, Innovation and strategic orientations for the development of advanced biorefineries, Bioresour. Technol. 302 (2020) 122847. doi:10.1016/j.biortech.2020.122847.

[14] R. van Ree, The Role of Biorefining and Bioenergy in the Circular Economy, (2017).

[15] A.S. Nizami, M. Rehan, M. Waqas, M. Naqvi, O.K.M. Ouda, K. Shahzad, R. Miandad, M.Z. Khan, M. Syamsiro, I.M.I. Ismail, D. Pant, Waste biorefineries: Enabling circular economies in developing countries, Bioresour. Technol. 241 (2017) 1101–1117. doi:10.1016/j.biortech.2017.05.097.

[16] BioPlat., SusChem., Ministerio de Economía., I. y Competitividad, Manual sobre Biorrefinerías en España, Minist. Econ. Ind. Y Compet. (2017) 1–92.

[17] Y. Liu, Y. Lyu, J. Tian, J. Zhao, N. Ye, Y. Zhang, L. Chen, Review of waste biorefinery development towards a circular economy: From the perspective of a life cycle assessment, Renew. Sustain. Energy Rev. 139 (2021) 110716. doi:10.1016/j.rser.2021.110716.

[18] Bio-based Industries Consortium, Nova Institute, Biorefineries in Europe 2017, (2017).

[19] L.A. Zevallos Torres, A. Lorenci Woiciechowski, V.O. de Andrade Tanobe, S.G. Karp, L.C. Guimarães Lorenci, C. Faulds, C.R. Soccol, Lignin as a potential source of high-added value compounds: A review, J. Clean. Prod. 263 (2020) 121499. doi:10.1016/j.jclepro.2020.121499.

[20] A.R. Mankar, A. Pandey, A. Modak, K.K. Pant, Pretreatment of lignocellulosic biomass: A review on recent advances, Bioresour. Technol. 334 (2021) 125235. doi:10.1016/j.biortech.2021.125235.

[21] J.J. Liao, N.H.A. Latif, D. Trache, N. Brosse, M.H. Hussin, Current advancement on the isolation, characterization and application of lignin, Int. J. Biol. Macromol. 162 (2020) 985–1024. doi:10.1016/j.ijbiomac.2020.06.168.

[22] R. Singh, A. Shukla, S. Tiwari, M. Srivastava, A review on delignification of lignocellulosic biomass for enhancement of ethanol production potential, Renew. Sustain. Energy Rev. 32 (2014) 713–728. doi:10.1016/j.rser.2014.01.051.

[23] L. Sillero, R. Prado, M.A. Andrés, J. Labidi, Characterisation of bark of six species from mixed Atlantic forest, Ind. Crops Prod. 137 (2019) 276–284. doi:10.1016/j.indcrop.2019.05.033.

[24] S.L. Mathews, J. Pawlak, A.M. Grunden, Bacterial biodegradation and bioconversion of industrial lignocellulosic streams, Appl. Microbiol. Biotechnol. 99 (2015) 2939–2954. doi:10.1007/s00253-015-6471-y.

[25] FAOSTAT, Crops and livestock products, (2019). https://www.fao.org/faostat/en/#data/QCL (accessed June 30, 2021).

[26] H. Chen, Chemical Composition and Structure of Natural Lignocellulose, in: Biotechnology of Lignocellulose, Springer, 2014: pp. 25–71. doi:10.1007/978-94-007-6898-7.

[27] A. Satlewal, R. Agrawal, S. Bhagia, P. Das, A.J. Ragauskas, Rice straw as a feedstock for biofuels: Availability, recalcitrance, and chemical properties, Biofuels, Bioprod. Biorefining. 12 (2018) 83–107. doi:10.1002/bbb.1818.

[28] W.O.S. Doherty, P. Mousavioun, C.M. Fellows, Value-adding to cellulosic ethanol: Lignin polymers, Ind. Crops Prod. 33 (2011) 259–276. doi:10.1016/j.indcrop.2010.10.022.

[29] C.G. Yoo, X. Meng, Y. Pu, A.J. Ragauskas, The critical role of lignin in lignocellulosic biomass conversion and recent pretreatment strategies: A comprehensive review, Bioresour. Technol. 301 (2020) 122784. doi:10.1016/j.biortech.2020.122784.

[30] A. Tribot, G. Amer, M. Abdou Alio, H. de Baynast, C. Delattre, A. Pons, J.D. Mathias, J.M. Callois, C. Vial, P. Michaud, C.G. Dussap, Wood-lignin: Supply, extraction processes and use as bio-based material, Eur. Polym. J. 112 (2019) 228–240. doi:10.1016/j.eurpolymj.2019.01.007.

[31] S. Constant, H.L.J. Wienk, A.E. Frissen, P. de Peinder, R. Boelens, D.S. van Es, R.J.H. Grisel, B.M. Weckhuysen, W.J.J. Huijgen, R.J.A. Gosselink, P.C.A. Bruijnincx, New insights into the structure and composition of technical lignins: a comparative characterisation study, Green Chem. 18 (2016) 2651–2665. doi:10.1039/C5GC03043A.

[32] V. Hemmilä, S. Adamopoulos, O. Karlsson, A. Kumar, Development of sustainable bio-adhesives for engineered wood panels-A Review, RSC Adv. 7 (2017) 38604–38630. doi:10.1039/c7ra06598a.

[33] V.K. Ponnusamy, D.D. Nguyen, J. Dharmaraja, S. Shobana, J.R. Banu, R.G. Saratale, S.W. Chang, G. Kumar, A review on lignin structure, pretreatments, fermentation reactions and biorefinery potential, Bioresour. Technol. 271 (2019) 462–472. doi:10.1016/j.biortech.2018.09.070.

[34] H. Wang, Y. Pu, A. Ragauskas, B. Yang, From lignin to valuable products–strategies, challenges, and prospects, Bioresour. Technol. 271 (2019) 449–461. doi:10.1016/j.biortech.2018.09.072.

[35] A. Kumar, Anushree, J. Kumar, T. Bhaskar, Utilization of lignin: A sustainable and eco-friendly approach, J. Energy Inst. 93 (2020) 235–271. doi:10.1016/j.joei.2019.03.005.

[36] E. Paone, T. Tabanelli, F. Mauriello, The rise of lignin biorefinery, Curr. Opin. Green Sustain. Chem. 24 (2020) 1–6. doi:10.1016/j.cogsc.2019.11.004.

[37] X. Erdocia, F. Hernández-ramos, A. Morales, N. Izaguirre, P.L. De Hoyos-martínez, J. Labidi, Lignin extraction and isolation methods, in: H. Santos, P. Figueiredo (Eds.), Lignin-Based Mater. Biomed. Appl., Elsevier Inc., 2021: pp. 61–104. doi:10.1016/c2019-0-01345-3.

[38] X. Meng, C. Crestini, H. Ben, N. Hao, Y. Pu, A.J. Ragauskas, D.S. Argyropoulos, Determination of hydroxyl groups in biorefinery resources via quantitative 31P NMR spectroscopy, Nat. Protoc. 14 (2019) 2627–2647. doi:10.1038/s41596-019-0191-1.

[39] Y. Chen, H. Zhang, Z. Zhu, S. Fu, High-value utilization of hydroxymethylated lignin in polyurethane adhesives, Int. J. Biol. Macromol. 152 (2020) 775–785. doi:10.1016/j.ijbiomac.2020.02.321.

[40] M. Goliszek, D. Kołodyńska, I. V. Pylypchuk, O. Sevastyanova, B. Podkościelna, Synthesis of lignin-containing polymer hydrogels with tunable properties and their application in sorption of nickel(II) ions, Ind. Crops Prod. 164 (2021) 20–31. doi:10.1016/j.indcrop.2021.113354.

[41] P. Figueiredo, K. Lintinen, J.T. Hirvonen, M.A. Kostiainen, H.A. Santos, Properties and chemical modifications of lignin: Towards lignin-based nanomaterials for biomedical applications, Prog. Mater. Sci. 93 (2018) 233–269. doi:10.1016/j.pmatsci.2017.12.001.

[42] V. Maharana, D. Gaur, S.K. Nayak, V.K. Singh, S. Chakraborty, I. Banerjee, S.S. Ray, A. Anis, K. Pal, Reinforcing the inner phase of the filled hydrogels with CNTs alters drug release properties and human keratinocyte morphology: A study on the gelatin- tamarind gum filled hydrogels, J. Mech. Behav. Biomed. Mater. 75 (2017) 538–548. doi:10.1016/j.jmbbm.2017.08.026.

[43] K. Lavanya, S.V. Chandran, K. Balagangadharan, N. Selvamurugan, Temperature- and pH-responsive chitosan-based injectable hydrogels for bone tissue engineering, Mater. Sci. Eng. C. 111 (2020) 110862. doi:10.1016/j.msec.2020.110862.

[44] C. Echalier, L. Valot, J. Martinez, A. Mehdi, G. Subra, Chemical cross-linking methods for cell encapsulation in hydrogels, Mater. Today Commun. 20 (2019) 100536. doi:10.1016/j.mtcomm.2019.05.012.

[45] J. Xiang, L. Shen, Y. Hong, Status and future scope of hydrogels in wound healing: Synthesis, materials and evaluation, Eur. Polym. J. 130 (2020) 109609. doi:10.1016/j.eurpolymj.2020.109609.

[46] K. Varaprasad, G.M. Raghavendra, T. Jayaramudu, M.M. Yallapu, R. Sadiku, A mini review on hydrogels classification and recent developments in miscellaneous applications, Mater. Sci. Eng. C. 79 (2017) 958–971. doi:10.1016/j.msec.2017.05.096.

[47] N. Chirani, L. Yahia, L. Gritsch, F.L. Motta, S. Chirani, S. Faré, History and Applications of Hydrogels, J. Biomed. Sci. 04 (2015) 1–23. doi:10.4172/2254-609x.100013.

[48] E.M. Ahmed, Hydrogel: Preparation, characterization, and applications: A review, J. Adv. Res. 6 (2015) 105–121. doi:10.1016/j.jare.2013.07.006.

[49] F. Ullah, M.B.H. Othman, F. Javed, Z. Ahmad, H.M. Akil, Classification, processing and application of hydrogels: A review, Mater. Sci. Eng. C. 57 (2015) 414–433. doi:10.1016/j.msec.2015.07.053.

[50] Y. Meng, J. Lu, Y. Cheng, Q. Li, H. Wang, Lignin-based hydrogels: A review of preparation, properties, and application, Int. J. Biol. Macromol. 135 (2019) 1006–1019. doi:10.1016/j.ijbiomac.2019.05.198.

[51] S. Iravani, R.S. Varma, Greener synthesis of lignin nanoparticles and their applications, Green Chem. 22 (2020) 612–636. doi:10.1039/c9gc02835h.

[52] D. Kun, B. Pukánszky, Polymer/lignin blends: Interactions, properties, applications, Eur. Polym. J. 93 (2017) 618–641. doi:10.1016/j.eurpolymj.2017.04.035.

[53] O. Yu, K.H. Kim, Lignin to materials: A focused review on recent novel lignin applications, Appl. Sci. 10 (2020) 4626. doi:10.3390/app10134626.

[54] D. Rico-García, L. Ruiz-Rubio, L. Pérez-Álvarez, S.L. Hernández-Olmos, G.L. Guerrero-Ramírez, J.L. Vilas-Vilela, Lignin-Based Hydrogels : Synthesis and Applications, Polymers (Basel). 12 (2020) 1–23. doi:10.3390/polym12010081.

[55] R. Mohammadinejad, H. Maleki, E. Larrañeta, A.R. Fajardo, A.B. Nik, A. Shavandi, A. Sheikhi, M. Ghorbanpour, M. Farokhi, P. Govindh, E. Cabane, S. Azizi, A.R. Aref, M. Mozafari, M. Mehrali, S. Thomas, J.F. Mano, Y.K. Mishra, V.K. Thakur, Status and future scope of plant-based green hydrogels in biomedical engineering, Appl. Mater. Today. 16 (2019) 213–246. doi:10.1016/j.apmt.2019.04.010.

[56] L. Wu, S. Huang, J. Zheng, Z. Qiu, X. Lin, Y. Qin, Synthesis and characterization of biomass lignin-based PVA super-absorbent hydrogel, Int. J. Biol. Macromol. 140 (2019) 538–545. doi:10.1016/j.ijbiomac.2019.08.142.

[57] Y. Liu, Y. Huang, C. Zhang, W. Li, C. Chen, Z. Zhang, H. Chen, J. Wang, Y. Li, Y. Zhang, Nano-FeS incorporated into stable lignin hydrogel: A novel strategy for cadmium removal from soil, Environ. Pollut. 264 (2020)

114739. doi:10.1016/j.envpol.2020.114739.

[58] H. Qian, J. Wang, L. Yan, Synthesis of lignin-poly(N-methylaniline)-reduced graphene oxide hydrogel for organic dye and lead ions removal, J. Bioresour. Bioprod. 5 (2020) 204–210. doi:10.1016/j.jobab.2020.07.006.

[59] N. Tahari, P.L. de Hoyos-Martinez, M. Abderrabba, S. Ayadi, J. Labidi, Lignin - montmorillonite hydrogels as toluene adsorbent, Colloids Surfaces A Physicochem. Eng. Asp. 602 (2020) 125108. doi:10.1016/j.colsurfa.2020.125108.

[60] Y. Meng, C. Li, X. Liu, J. Lu, Y. Cheng, L.P. Xiao, H. Wang, Preparation of magnetic hydrogel microspheres of lignin derivate for application in water, Sci. Total Environ. 685 (2019) 847–855. doi:10.1016/j.scitotenv.2019.06.278.

[61] J. Domínguez-Robles, M.S. Peresin, T. Tamminen, A. Rodríguez, E. Larrañeta, A.S. Jääskeläinen, Lignin-based hydrogels with “super-swelling” capacities for dye removal, Int. J. Biol. Macromol. 115 (2018) 1249–1259. doi:10.1016/j.ijbiomac.2018.04.044.

[62] F. Flores-Céspedes, M. Villafranca-Sánchez, M. Fernández-Pérez, Alginate-based hydrogels modified with olive pomace and lignin to removal organic pollutants from aqueous solutions, Int. J. Biol. Macromol. 153 (2020) 883–891. doi:10.1016/j.ijbiomac.2020.03.081.

[63] H. Yuan, J. Peng, T. Ren, Q. Luo, Y. Luo, N. Zhang, Y. Huang, X. Guo, Y. Wu, Novel fluorescent lignin-based hydrogel with cellulose nanofibers and carbon dots for highly efficient adsorption and detection of Cr(VI), Sci. Total Environ. 760 (2021) 143395. doi:10.1016/j.scitotenv.2020.143395.

[64] M. Liu, Y. Liu, J. Shen, S. Zhang, X. Liu, X. Chen, Y. Ma, S. Ren, G. Fang, S. Li, C. Tong Li, T. Sun, Simultaneous removal of Pb2+, Cu2+ and Cd2+ ions from wastewater using hierarchical porous polyacrylic acid grafted with lignin, J. Hazard. Mater. 392 (2020) 122208. doi:10.1016/j.jhazmat.2020.122208.

[65] R.A. Batista, P.J.P. Espitia, J. de S.S. Quintans, M.M. Freitas, M.Â. Cerqueira, J.A. Teixeira, J.C. Cardoso, Hydrogel as an alternative structure for food packaging systems, Carbohydr. Polym. 205 (2019)

106–116. doi:10.1016/j.carbpol.2018.10.006.

[66] I. Spiridon, Biological and pharmaceutical applications of lignin and its derivatives: A mini-review, Cellul. Chem. Technol. 52 (2018) 543–550.

[67] E. Larrañeta, M. Imízcoz, J.X. Toh, N.J. Irwin, A. Ripolin, A. Perminova, J. Domínguez-Robles, A. Rodríguez, R.F. Donnelly, Synthesis and Characterization of Lignin Hydrogels for Potential Applications as Drug Eluting Antimicrobial Coatings for Medical Materials, ACS Sustain. Chem. Eng. 6 (2018) 9037–9046. doi:10.1021/acssuschemeng.8b01371.

[68] W. Yang, E. Fortunati, F. Bertoglio, J.S. Owczarek, G. Bruni, M. Kozanecki, J.M. Kenny, L. Torre, L. Visai, D. Puglia, Polyvinyl alcohol/chitosan hydrogels with enhanced antioxidant and antibacterial properties induced by lignin nanoparticles, Carbohydr. Polym. 181 (2018) 275–284. doi:10.1016/j.carbpol.2017.10.084.

[69] Y. Zhang, B. Yuan, Y. Zhang, Q. Cao, C. Yang, Y. Li, J. Zhou, Biomimetic lignin/poly(ionic liquids) composite hydrogel dressing with excellent mechanical strength, self-healing properties, and reusability, Chem. Eng. J. 400 (2020) 125984. doi:10.1016/j.cej.2020.125984.

[70] L. Musilová, A. Mráček, A. Kovalcik, P. Smolka, A. Minařík, P. Humpolíček, R. Vícha, P. Ponížil, Hyaluronan hydrogels modified by glycinated Kraft lignin: Morphology, swelling, viscoelastic properties and biocompatibility, Carbohydr. Polym. 181 (2018) 394–403. doi:10.1016/j.carbpol.2017.10.048.

[71] W. Farhat, R. Venditti, N. Mignard, M. Taha, F. Becquart, A. Ayoub, Polysaccharides and lignin based hydrogels with potential pharmaceutical use as a drug delivery system produced by a reactive extrusion process, Int. J. Biol. Macromol. 104 (2017) 564–575. doi:10.1016/j.ijbiomac.2017.06.037.

[72] D. Wang, S.H. Lee, J. Kim, C.B. Park, “Waste to Wealth”: Lignin as a Renewable Building Block for Energy Harvesting/Storage and Environmental Remediation, ChemSusChem. 13 (2020) 2807–2827. doi:10.1002/cssc.202000394.

[73] T. Liu, X. Ren, J. Zhang, J. Liu, R. Ou, C. Guo, X. Yu, Q. Wang, Z. Liu, Highly compressible lignin hydrogel electrolytes via double-crosslinked strategy for superior foldable supercapacitors, J. Power Sources. 449

(2020) 227532. doi:10.1016/j.jpowsour.2019.227532.

[74] A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, Hydrothermal treatments of walnut shells: A potential pretreatment for subsequent product obtaining, Sci. Total Environ. 764 (2021) 142800. doi:10.1016/j.scitotenv.2020.142800.

[75] A. Morales, F. Hernández-Ramos, L. Sillero, R. Fernández-Marín, I. Dávila, P. Gullón, X. Erdocia, J. Labidi, Multiproduct biorefinery based on almond shells: Impact of the delignification stage on the manufacture of valuable products, Bioresour. Technol. 315 (2020) 123896. doi:10.1016/j.biortech.2020.123896.

[76] M. Infante, F. Ysambertt, M. Hernández, B. Martínez, N. Delgado, B. Bravo, A. Cáceres, G. Chávez, J. Bullón, Microwave assisted oxidative degradation of lignin with hydrogen peroxide and its tensoactive properties, Rev. Tec. La Fac. Ing. Univ. Del Zulia. 30 (2007) 108–117.

[77] I. Dávila, P. Gullón, M.A. Andrés, J. Labidi, Coproduction of lignin and glucose from vine shoots by eco-friendly strategies: Toward the development of an integrated biorefinery, Bioresour. Technol. 244 (2017) 328–337. doi:10.1016/j.biortech.2017.07.104.

[78] A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, Assessment of green approaches for the synthesis of physically crosslinked lignin hydrogels, J. Ind. Eng. Chem. 81 (2020) 475–487. doi:10.1016/j.jiec.2019.09.037.

[79] A. Morales, J. Labidi, P. Gullón, Effect of the formulation parameters on the absorption capacity of smart lignin-hydrogels, Eur. Polym. J. 129 (2020) 109631. doi:10.1016/j.eurpolymj.2020.109631.

[80] A.M. Salaberria, R.H. Diaz, M.A. Andrés, S.C.M. Fernandes, J. Labidi, The antifungal activity of functionalized chitin nanocrystals in poly (Lactid Acid) films, Materials (Basel). 10 (2017) 1–16. doi:10.3390/ma10050546.

[81] D.T. Da Silva, R. Herrera, B.M. Heinzmann, J. Calvo, J. Labidi, Nectandra grandiflora by-products obtained by alternative extraction methods as a source of phytochemicals with antioxidant and antifungal properties, Molecules. 23 (2018) 1–16. doi:10.3390/molecules23020372.

[82] D. George, P.U. Maheswari, K.M.M.S. Begum, Synergic formulation of onion peel quercetin loaded chitosan-cellulose hydrogel with green zinc oxide nanoparticles towards controlled release, biocompatibility,

antimicrobial and anticancer activity, Int. J. Biol. Macromol. 132 (2019) 784–794. doi:10.1016/j.ijbiomac.2019.04.008.

[83] E.Y. Jin, S. Lim, S. oh Kim, Y.S. Park, J.K. Jang, M.S. Chung, H. Park, K.S. Shim, Y.J. Choi, Optimization of various extraction methods for quercetin from onion skin using response surface methodology, Food Sci. Biotechnol. 20 (2011) 1727–1733. doi:10.1007/s10068-011-0238-8.

[84] K. Pallab, B. Tapan K, P. Tapas K, K. Ramen, Estimation of Total Flavonoids Content (TFC) and Anti Oxidant Activities of Methanolic Whole Plant Extract of Biophytum Sensitivum Linn, J. Drug Deliv. Ther. 3 (2013) 33–37. doi:10.22270/jddt.v3i4.546.

[85] D. George, K.M.M.S. Begum, P.U. Maheswari, Sugarcane Bagasse (SCB) Based Pristine Cellulose Hydrogel for Delivery of Grape Pomace Polyphenol Drug, Waste and Biomass Valorization. 11 (2020) 851–860. doi:10.1007/s12649-018-0487-3.

[86] M. Saidi, A. Dabbaghi, S. Rahmani, Swelling and drug delivery kinetics of click-synthesized hydrogels based on various combinations of PEG and star-shaped PCL: influence of network parameters on swelling and release behavior, Polym. Bull. 77 (2020) 3989–4010. doi:10.1007/s00289-019-02948-z.

[87] J. Fernández-Rodríguez, X. Erdocia, C. Sánchez, M. González Alriols, J. Labidi, Lignin depolymerization for phenolic monomers production by sustainable processes, J. Energy Chem. 26 (2017) 622–631. doi:10.1016/j.jechem.2017.02.007.

[88] A. Morales, B. Gullón, I. Dávila, G. Eibes, J. Labidi, P. Gullón, Optimization of alkaline pretreatment for the co-production of biopolymer lignin and bioethanol from chestnut shells following a biorefinery approach, Ind. Crops Prod. 124 (2018) 582–592. doi:10.1016/j.indcrop.2018.08.032.

[89] I. Dávila, B. Gullón, J. Labidi, P. Gullón, Multiproduct biorefinery from vine shoots: Bio-ethanol and lignin production, 142 (2019) 612–623.

[90] C. Xu, F. Liu, M.A. Alam, H. Chen, Y. Zhang, C. Liang, H. Xu, S. Huang, J. Xu, Z. Wang, Comparative study on the properties of lignin isolated from different pretreated sugarcane bagasse and its inhibitory effects on enzymatic hydrolysis, Int. J. Biol. Macromol. 146 (2020) 132–140. doi:10.1016/j.ijbiomac.2019.12.270.

[91] J. Li, P. Feng, H. Xiu, J. Li, X. Yang, F. Ma, X. Li, X. Zhang, E. Kozliak, Y. Ji, Morphological changes of lignin during separation of wheat straw components by the hydrothermal-ethanol method, Bioresour. Technol. 294 (2019) 122157. doi:10.1016/j.biortech.2019.122157.

[92] L. Chen, X. Wang, H. Yang, Q. Lu, D. Li, Q. Yang, H. Chen, Study on pyrolysis behaviors of non-woody lignins with TG-FTIR and Py-GC/MS, J. Anal. Appl. Pyrolysis. 113 (2015) 499–507. doi:10.1016/j.jaap.2015.03.018.

[93] S. De, S. Mishra, E. Poonguzhali, M. Rajesh, K. Tamilarasan, Fractionation and characterization of lignin from waste rice straw: Biomass surface chemical composition analysis, Int. J. Biol. Macromol. 145 (2020) 795–803. doi:10.1016/j.ijbiomac.2019.10.068.

[94] A. Sequeiros, J. Labidi, Characterization and determination of the S/G ratio via Py-GC/MS of agricultural and industrial residues, Ind. Crops Prod. 97 (2017) 469–476. doi:10.1016/j.indcrop.2016.12.056.

[95] M. Brahim, N. Boussetta, N. Grimi, E. Vorobiev, I. Zieger-Devin, N. Brosse, Pretreatment optimization from rapeseed straw and lignin characterization, Ind. Crops Prod. 95 (2017) 643–650. doi:10.1016/j.indcrop.2016.11.033.

[96] X. Yang, Y. Zhao, H. Mussana, M. Tessema, L. Liu, Characteristics of cotton fabric modified with chitosan (CS)/cellulose nanocrystal (CNC) nanocomposites, Mater. Lett. 211 (2018) 300–303. doi:10.1016/j.matlet.2017.09.075.

[97] I.A. Gilca, R.E. Ghitescu, A.C. Puitel, V.I. Popa, Preparation of lignin nanoparticles by chemical modification, Iran. Polym. J. 23 (2014) 355–363. doi:10.1007/s13726-014-0232-0.

[98] A.M. Căpraru, E. Ungureanu, L.C. Trincă, Ț. Mălutan, V.I. Popa, Chemical and spectral characteristics of annual plant lignins modified by hydroxymethylation reaction, Cellul. Chem. Technol. 46 (2012) 589–597.

[99] X. Ouyang, Z. Lin, Y. Deng, D. Yang, X. Qiu, Oxidative Degradation of Soda Lignin Assisted by Microwave Irradiation, Chinese J. Chem. Eng. 18 (2010) 695–702. doi:10.1016/S1004-9541(10)60277-7.

[100] D. Zang, F. Liu, M. Zhang, Z. Gao, C. Wang, Novel superhydrophobic and

superoleophilic sawdust as a selective oil sorbent for oil spill cleanup, Chem. Eng. Res. Des. 102 (2015) 34–41. doi:10.1016/j.cherd.2015.06.014.

[101] B. Gullón, P. Gullón, T.A. Lú-Chau, M.T. Moreira, J.M. Lema, G. Eibes, Optimization of solvent extraction of antioxidants from Eucalyptus globulus leaves by response surface methodology: Characterization and assessment of their bioactive properties, Ind. Crops Prod. 108 (2017) 649–659. doi:10.1016/j.indcrop.2017.07.014.

[102] D. Ciolacu, G. Cazacu, New Green Hydrogels Based on Lignin, J. Nanosci. Nanotechnol. 18 (2018) 2811–2822. doi:10.1166/jnn.2018.14290.

[103] N. Thombare, S. Mishra, M.Z. Siddiqui, U. Jha, D. Singh, G.R. Mahajan, Design and development of guar gum based novel, superabsorbent and moisture retaining hydrogels for agricultural applications, Carbohydr. Polym. 185 (2018) 169–178. doi:10.1016/j.carbpol.2018.01.018.

[104] A. Kumar, S.S. Han, PVA-based hydrogels for tissue engineering: A review, Int. J. Polym. Mater. Polym. Biomater. 66 (2017) 159–182. doi:10.1080/00914037.2016.1190930.

[105] K.J. Lee, J. Lee, J.Y. Hong, J. Jang, Influence of amorphous polymer nanoparticles on the crystallization behavior of Poly(vinyl alcohol) nanocomposites, Macromol. Res. 17 (2009) 476–482. doi:10.1007/BF03218895.

[106] X.-Q. Hu, D.-Z. Ye, J.-B. Tang, L.-J. Zhang, X. Zhang, From waste to functional additives: thermal stabilization and toughening of PVA with lignin, RSC Adv. 6 (2016) 13797–13802. doi:10.1039/C5RA26385A.

[107] M.R. Guilherme, F.A. Aouada, A.R. Fajardo, A.F. Martins, A.T. Paulino, M.F.T. Davi, A.F. Rubira, E.C. Muniz, Superabsorbent hydrogels based on polysaccharides for application in agriculture as soil conditioner and nutrient carrier: A review, Eur. Polym. J. 72 (2015) 365–385. doi:10.1016/j.eurpolymj.2015.04.017.

[108] H.S. Mansur, C.M. Sadahira, A.N. Souza, A.A.P. Mansur, FTIR spectroscopy characterization of poly (vinyl alcohol) hydrogel with different hydrolysis degree and chemically crosslinked with glutaraldehyde, Mater. Sci. Eng. C. 28 (2008) 539–548. doi:10.1016/j.msec.2007.10.088.

[109] W.E. Hennink, C.F. van Nostrum, Novel crosslinking methods to design hydrogels, Adv. Drug Deliv. Rev. 64 (2012) 223–236. doi:10.1016/j.addr.2012.09.009.

[110] L.Y. Wang, M.J. Wang, Removal of Heavy Metal Ions by Poly(vinyl alcohol) and Carboxymethyl Cellulose Composite Hydrogels Prepared by a Freeze-Thaw Method, ACS Sustain. Chem. Eng. 4 (2016) 2830–2837. doi:10.1021/acssuschemeng.6b00336.

[111] H. Bian, L. Wei, C. Lin, Q. Ma, H. Dai, J.Y. Zhu, Lignin-Containing Cellulose Nanofibril-Reinforced Polyvinyl Alcohol Hydrogels, ACS Sustain. Chem. Eng. 6 (2018) 4821–4828. doi:10.1021/acssuschemeng.7b04172.

[112] H. Bian, L. Jiao, R. Wang, X. Wang, W. Zhu, H. Dai, Lignin nanoparticles as nano-spacers for tuning the viscoelasticity of cellulose nanofibril reinforced polyvinyl alcohol-borax hydrogel, Eur. Polym. J. 107 (2018) 267–274. doi:10.1016/j.eurpolymj.2018.08.028.

